



# Bertso kontuak

Joxe Mari Aranalde





## Joxe Mª Aranalde

**G**aztelun jaio zen 1933-an. Apaiz egin berritan Arama izan zuen lantoki. Han jaso zuen bere ondoan Orixe haundia, eta berekin eraman zuen Añorgara ere, eta han hil zitzaion bere osaba maitatua eta mirestua. 13 urte egin zituen koajutore Aranaldek Añorgan, eta 29 egin ditu irakasle Santo Tomas lizeoan Donostian.


la hogei urte egin zituen liturgia-itzultzaile, gehienak Don Manuel Lekuonaren ondoan. Elizetako euskarak badio zorrik Aranalderi. Eta bertsoa, berriz, bere betiko afizio eta nolabait ofizio ere izana du. Horren erakusgarri bat da orain hemen dakargun "Bertso-kontuak" hau bera.

Sei liburuxka baditu argitaratuak Aranaldek, itzulpen eta beste. Auspoa honek pozik egingo dio lekua gehiago argitaratu nahiko balu ere.



SENDOA

36674  
GMS-129/13



EUSKALTAINDIA

Arabako Ordezkaritza

# **Bertso-kontuak**

---

Auspoa Liburutegia  
264



AUSPOA



• SENDOA

---

**SENDOA ARGITALDARIA**

Ugaldetxo auzoa

Tels. 943 49 35 51 - 49 35 52 - 49 35 53

Fax 943 49 35 48

[www.sendoa.com](http://www.sendoa.com)

[editorial@sendoa.com](mailto:editorial@sendoa.com)

20180 OIARTZUN (Gipuzkoa)

Joxe Mari Aranalde

# **Bertso-kontuak**

---

Auspoa Liburutegia

(1999)

© SENDOA ARGITALDARIA

ISBN: 84-89080-98-4

Depósito Legal: NA.: 2.195-1999

Inprimaketa: Gráficas Lizarra, S.A., Estella (Navarra)

# Sarrera

---

**I**RAKURLE:

Lehengo martxoan atera nuen “BIHOTZAK DION HURA” liburua ezagutzen baldin baduzu, badakizu hura, erdiz aurrera, “DEIA” egunkarian argitaratutako artikuluxkez osatua dagoela. “BERTSO-KONTUAK” hau, dena da hala. “Eskerrikasko, Añorga” hori bakarrik da hala ez dena.

Haiek eta hauek ez dira den-denak elkarren segirakoak. Han badira zenbait artikuluxka hemengo beste zenbait baino geroagokoak. Orduan oker hori egin zen, eta horrela beharko du. Hori izan dedila haundiena.

Eta, bukatzeko, ba al dakizu zer iruditu zaidan, irakurle, orain berriz irakurri ditudanean inprentara bialtzeko? Esan egingo al dizut? Bai? Noski baietz. Politak direla iruditu zait. Lotsaren gorritasuna bezalako zerbait sumatzen dut aurpegian hau esatean; baina inoiz egirik esan badut, hori da egia.

Gusta dakizkizula zuri ere.

EGILEAK



## “Eskerrikasko, Añorga”

---

**B**UKAERAN datozen bertsoetako laugarrena bukatzen dut gaineko hitz horiekin. Nik lehengo martxoaren 28an Añorgan esan beharreko gauza bakarra horixe da: “Eskerrikasko, Añorga”. Behin eta berriz eta miletan esan izan banu ere, ez zen gehiegi izango.

Zer zen, izan ere, egun hura, une guztietan eta detaile guztietan eskerrikasko bat esateko egokiera bat besterik neretzat?

Hamaikak alderako han izango nintzela hitz eman nien, eta hamaikak puntuan han nengoen. Baina ez nintzen ni bakarrik hitza bete zuena. Han zegoen Aitor Basurto ere, eta han, haren ondoan, Xabier Altuna Lehendakaria. Lehenengo momentutik senditu nintzen babestua eta ohoratua, nik beldur haundia nion egun hartan. Nola ez eskerrikaskoka ari goizean goizetik, halako atentzioa ikusita?

Handik zinera lagundu zidaten erdian hartuta, eta aurretik txistulariak nituela. Hura sarrera hangoa! Eskuei hotzak kendu zizkion jendeak txaloka. Bi besoak jasota jendea agurtu eta eseri egin nintzen, esertzeko hobe nengoen-eta. Lehendakariaren ondoan eseri ere lehenengo filan.

Jokatu zen ORIXE SARIA VII, eta eman zen irabazlearen izena.

Orduan hasten zen nerea, eta han igo nintzen eszenaurre edo proszeniora.

Txapeldunari txapela ezartzeko ohorea izan nuen aurrena. Suberbiola jauna kontentu zen eta ni harro. Hurrena dantzaz agurtu ninduten, eta lore ederrez hornitu. Hurrena bi haurrek bertso zoragari bana eskaini zidaten. Eta haien ondoren, Euskal Herriko Bertsozaleen Elkarteko Lehendakariak, Imanol Lazkano adiskideak, zilarrezko plaka bat egin zidan opari bertso biribil batekin. "Gaztelu" ezinez ezagutzen duten horrek izan zuen gazteluar honek merezi hainbat edertasun bere hitzetan eta esanetan. Eta handik aurrera neretzat zen mikrofonoa.

Hasera izan nuen gogorrena. Sariketa haretan meriturik baldin banuen ere, izena ez zela nereza esaten hasi nintzen. Hura Agustin Urdangarin zenari zor zitzaioa, nere adiskide haundiari eta gizon paregabeari. Eta hori esatean, alarguntsa ikusten nuen han aurrean, eta barrena jira egin zitzaidan, eta hitza eztarrian ito. Baina ez nuen gainezkarik egin eta aurrera segi nuen.

Orixe Sariaren historian izandako zenbait gauzatxo aitatu nituen; eta apartekoena zera izan zela esan nuen: Aurreneko aldiz emakumezko bat bertsolarien epaile, sariketa haretan izan zela esan nuen. Eta hantxe aurrean zegoela eta Arantza Arruti zela beraren grazia.

Horretaz aparte, zera ere esan nuen: areto haretan ikusi zela negarrez "irriaren giltza" omen zen Ahetzeko Mattin bertsolari famatua. Eta nigar hura zela-eta Xalbador zenak bertso sail edo andana bat jarri zuela, eta sail hartako pare bat bertso kantatu nituen. Horrelatsu ihardun nuen.

Gero bukatu behar zen, eta horretarako urepel-darrak Añorgari eskainitako bertso hau aukeratu nuen:

“Asko ibilia naiz  
ni Euskal Herritan;  
Añorgaren parerik  
ez dakit dakitan.  
Herri zoragarria  
zara zu egitan,  
ezarri derautazu  
nigarra begitan”.

Honela bukatu zen saloikoa.

Omenaldia ere hor bukatu izan balitz, nahikoa eta gehiegi izatez aparte, goxoa eta osoa izango zen, eta neri zegokidakeen neurritsukoa, eta behin eta mila bider eskertzeko modukoa. Baina ez zen horrela izan.

Handik bazkaltzera joan ginen eta han hasi zen bigarren partea bazkalondoan, goizekoa ere baino areagoa. Hango opari eta bertso eta kantu eta ez dakit nik zer! Hura arratsaldea! Bereziki norbait aita-tzekotan, urepeldarrak aitatu beharko nituzke. Xal-bador zenaren hiru bilobek bihotza ohostua diete lehengo horretan añorgatarrei. Bazen malkorik begietan kantu unki garri haiek entzuterakoan. Hura edertasuna arratsalde hartakoa!

Eta ni erdian, lagunez inguraturik! Ni edertasun guzti haren aitzaki! Nik nion beldurra aurreko egunetan omenaldi hari, eta iritxi zenean eta ospatzen ari ginenean, hain gustora eta atseginez eta pozik ni añorgatarren eta lagunen erdian. Nolaz ez behin eta berriz eta mila aldiz “Eskerrikasko, Añorga!” esan eta errepikatu eta hotsegin lau haizetara?

Eta azkenean kantatu nituen bertsoak jarri baino lehen, zorionak antolatzaileei. Hura antolaketaren zehaztasuna eta egokitasuna! Hura neurria! Eta buru bat agertzen baitzen, mila zorion, Aitor. Bejondaiala! Bejondaizuela!

Eta hona orain nere bost bertsoak:

Hogeita sei urterekin  
etorri nintzen honera;  
berrogeita bost eginda  
nintzen hemendik atera.  
Zer harremana izan genuen  
gogoratzen ote zera?  
Nola zenidan eman, Añorga,  
gizondutzeko aukera?

Egin berri nintzen apaiz;  
munduaz zer nekien nik;  
neroni zer nintzen ere  
nengon ia ez jakinik.  
Zure besotan hartu ninduzun  
eta laztan bat emanik  
esan zenidan, Añorga maite,  
banuela zerbait onik.

Nere bihotz ikarati  
honek hura poztasuna  
ikusirik zuregandik  
zetorkidan erantzuna.  
Sinista zazu, ene Añorga,  
neri gaur hemen entzuna:  
zurea ere badela zerbait  
nigan omentzen duzuna.

Zu edo ni garen zordun,  
hori dakienik nor da?  
Maitasunez baita egina  
gu bion arteko korda.  
Zuk omenaldiz egin didazu  
zure zorraren aitorra;  
eta nik hitzez esaten dizut  
ESKERRIKASKO, AÑORGA!!!

Eta barka, bukatzeko,  
isildu ezin dudana;  
egun honek pausoz-pauso  
haienganaino narama.  
Lagun nazazu, Añorga, arintzen  
zorrik haundinaren zama:  
zurekin ditut eskertzen orain  
nere aita eta ama.

Añorga, 1999-III-28  
Joxemari Aranalde

1986

## **Ikasle on asko**

---

**I**DAZLEARI atsegin zaio beti berak esan duenaren oihartzuna. Onespenezkoa bada, hobe; baina gaitzespenezkoa bada ere, aipamenik-eza baino hobe da. Isiltasuna da hor motza. Honetan ere, etsai kontutan bezala, okerrena ez da atakea. Okerrena aintzakotzat ez hartzea da. Eta idazten dugunok askotan izaten gara bildur inork ez ote dion eskerrik ematen guk diogunari. Horregatik jasotzen ditugu pozik irakurlearen aipamenak.

Neri, oraindik orain, bertsolari gazte batek aipatu dit nere asteroko lantxo horietako bat. Ez zen azkenekoetakoa harek aipatu zidana. Aspalditxokoa zen. Beraz noizpait irakurria zuena, orain gogoratu egin zaio. Bera harritia egon ohi da nik aspaldiko bertso irakurri nahiz entzunen erreferentziak egiten ditudanean; baina berari ere ez zaizkio hain erraz ahazten beraren pareko gauzak.

Eta zera zen guztia. Orain dela hilabete batzu nik idatzi nuen bi esaldi "bait" banarekin eginak elkarren segiran baldin bazeuden eta bigarrena bertsoaren azkena baldin bazen, bertso hori ez zegoela ongi bukatua. Ez zeukala errematerik eta bertsoa kolokan bezala gelditzen zela, asenturik gabe bezala. Hitz batean, ez zegoela biribildua. Hori zen alde-aldera nik nioena artikulua hartan. Eta gure mutilak irakurria zeukan eta gogoan jaso. Ongi iritzita zegoen gainera nik esaten nuenari.

Eta hor non topo egiten duen lehengoan, txapelketako bere bertsoak erreparatzen ari zela, "bait" horrekin egindako bi esaldi segirakoz bukatzen den bere bertso batekin.

Eta jakina, neri irakurri eta onetsi zidana gogoratu zitzaion. Ez zuen gozoa jarria izan behar gure gizonak. Hutsa ez omen zuten balio kantatu zituen bertso haiek. Ia-ia bat onik ez omen zuen kantatu txapelketa guztian. Horrelakoxe etsipenez zegoen gure bertsolari gaztea, nik salatutako hutsegite bat bere bertsotan bilatu zuenean.

Ez dakit nik zenbat arrazoi nuen ohar hura egin nuenean, ez bait nion inori inoiz irakurria, ez entzuna; baina gazte haren minezko onespentak lehengoan sendoagotzen nauela bai, badakit. Eta erakusteak balio duela ere, badakit. Eta idatzitakoa alferrik ez dela galtzen ere bai.

Baina norberak idazten duena aintzakotzat hartzen dela jakiteak baino askoz garrantzi gehiago duen beste gauza bat ikasi dut. Egia esan, lehen ere banekien hori. Orain berritu egin zait osterera. Eta hauxe da: guk merezi baino ikasle on gehiago dagoela. Gure gazte honek ere aurkituko ahal du ni baino maisu hoberik.

*Deia, 86-VIII-2*



# Entretenigarri

---

**U**DA. Oporrak. Astia. Eta hoiekin batera askotan , aspergurea ez da urruti ibiltzen. Beste entretenimendurik ez duzunerako, irakurle, horra hiru bertso entretengarri. 1982ko txapelketakoak dira. Zeinenak diren eta zer gai duten ez dago esan beharrik. Baina esan dezadan badaezpada ere: Amurizarenak dira eta “Txantxangorria” dute gai.

Behin ikasten dituzunean, zerekasa kantatzeko tentazioa izango duzu behin baino gehiagotan, 9 puntuko hiru bertso hauek.

Negua dugu horra,  
jaunak, etorria,  
txoritxo bat saltoka,  
ez da berria.  
Lumak arroak eta  
paparra gorria;  
horixe da neronen  
amets iturria,  
nire aldarria,  
eskari garbia,  
hor hago jarria,  
pozen oinarria...  
Ongi etorri hadi,  
txantxangorria. (bis)

Bere itzala han du  
gaineko arbola;  
badaki zeharkatzen  
beheko ujola,  
maite du pisua nahiz  
artzaien etxola.  
Esan dudana ez da,  
Jaunak, parabola:  
txori hori hola  
ikusiz dagola  
ez dakigu nola  
gaitezken konsola.  
Kanta zak eta ez hadi  
ixil inola (bis).

Txantxangorria dugu  
oso txori fina,  
neguan-e laguntzat  
den krabelina.  
Elur zuri gainean,  
ai zer atsegina!  
Ez haiz kantari abila;  
halere berdina  
guretzat egina  
haizela jakina,  
horra nere grina,  
barneko burdina:  
kanta zak libre nahita  
izan ezina (bis).

*Deia, 86-VIII-16*

## Kalitatea

---

**B**ADIRUDI Txapelketaren ondoren zenbait jende aspertuxea dagoela tankera haretako bertsoz. Behin eta berriz entzuten ari naiz, umorezko bertsoak behar ditugula. Txapelketakoen antzekoak neka-garri gertatzen direla. Eta zenbait jende hasia bide da norgehiagokan parte hartu ez zutenei bereziki deitzen, hauek umore-eske horri hobeki erantzuten omen diotelakoan, edo ote diezaioketelakoan.

Ba omen da gure artean esan duenik, Txapelketaren azken-aldeak izan zuen arrakasta hura, gure kultur-eskasiari zor omen zaiola. Honetaz ez dakit zer esan. Nik jakin uste dudana, zera da: Arrakasta hura, asko eta asko, norgehiagokaren beraren burruka-haizeari zor zaiola, eta komunikabideek eman ohi duten astinduari. Bi hauek nahiko arrazoi badirela uste dut, izan zuen arrakasta izateko. Eta kultur-eskasia delako hori, hala balitz ez balitz, ez dela nahitezko erakarmen hura esplikatzeke.

Dena dela, halako desilusio puntu bat sortu dela esango nuke. Jendeak ez ote duen aurkitu nahi zuenik eta espero zuenik, eta orain beste zer-baiten bila hasia ote den. Hori al zen guztia? Ez al du gehiagorik ematen bertsolariak? Horrelatsuko zalantzatan ote dabilen zenbait jende esango nuke.

Hori alde batera ez da txarra. Edozer gauzarekin konformatzea izango litzateke txarra. Hau izango litzateke arriskutsua bertsolaritzarentzat. Beraz beste zer-bait nahi du jendeak.

Baina zer da nahi dena? Umorea? Eta zer umore? Algara sortarazten duena? Irria? Edo ez bata ez bestea, baizik harrimen bat? Zer nahi da?

Nahi dena nahi dela, zer eska litekeen jakitea ere komeniko litzaiguke. Horrela ikusiko genuke zein den bertsolaritzaren berezitasuna eta zer eska diezaiokegun, eta zer ez, eska ez leiokeena eskatzea, edozer gauzarekin konformatzea bezain kaltegarri izan bait daiteke.

Nere ustez, bertsolaritzaren sekretoak, sorpresa da. Sorpresa eman behar du bertsoak, den mailatan dela eta den klasekoa dela. Eta entzulearen egitekoa, hori estimatzea eta eskertzen jakitea da. Baina sorpresa gutxi du betiko ateraldiak errepikatu besterik egiten ez duen harek. Horretarako irudimena zabaldu behar da eta adimena zorroztu. Findu egin behar da bertsoa.

Hitz batean, kalitatea behar da. Edozer gauzarekin ez gaitzke konforma. Kalitatea lantzen den neurrian irabaziko du bertsoak eta bertsolaritzak.

*Deia, 86-VIII-23*

## Bakoitza bere lekuan

---

**I**ON Lopategik eta biok askotan aitatu izandu dugu nola, haren eta nere ezagun apaiz batek, ari behar izaten duen beti bertsoak egin eta bertsoak kantatu, noiznahi, berak zuzentzen dituen elizkizunetan. Baita bertsolariak partehartzaile izanda ere. Gure ezagun horri edozer gauza barkatzen zaio jarzen duen borondatearengatik, baina bertsoari ez diola inolako mesederik egiten erizten diogu Lopategik eta nik.

Bizkaiko bertsolari haundiak eta biok izandako solas hauek etorri zitzaizkidan burura lehengo batean, irratiz ematen ari ziren jaialdi bat entzuten nengoela. Han kantari ari zen zenbait halaholako bertsolarik kalte egiten zion jaialdiari. Hura ez zen haientzat lekua.

Nik badakit zaila dela esaten zein den bertsolaririk hoberena; baina badakit ere erreza dela zeintsu diren hoberenak eta zeintsu txarrenak esaten. Edozeinek ez al daki bada hemen batzu onak direla, eta oso onak, eta beste batzu txarrak eta oso txarrak? Erdikoak ere badirela? Egia; baina baita muturretakoak ere, badira. Eta hauen nahasketak ez dio mesederik egiten jaialdiari eta bertsoari.

Ni aritu izandu naiz jaialdi batetan zer egin ez nekiela, han sartu zen aldealdeko bertsolari batekin. Harekin ez zegoen asmatzerik. Inola ez zuen lan onik egiten. Eta norberak gaizki kantatzea zer-bait duzu. Besteak aldrebesten ditu horrelakoak. Ez

egin eta ez egiten utzi. Hoztu eta kamustu egiten ditu aldamenekoak. Ardorik hoberenak eta urik hoberenak ere beti urardo txar bat egiten dute. Eta gure kontu honetan ere horixe gertatzen da.

Beraz bertsolari onek bakarrik dute eskubidea kantatzeko? Ez horrelakorik! Zerbait dezakeen harek, bere dezakentxoak egin egin behar du. Baina noiz eta non eta nola. Txoko asko dago bertsolariarentzat gure artean. Denetan ez daitezke ari profesionalak. Ez dira iristen. Mila lagunarte eta mila modutako egokiera dago besteak ari daitezen. Hori dute beren lekua eta beren ordua. Eta hor hobere-naren zerbitzua egin dezaioke jendeari eta bertso-ari.

Konparazio baterako, zera esango nuke. Zu eta ni, irakurle, oso gustora egon gaitzke begira baxter batean pilotan ari diren mutiko batzuri. Askotan pilotaririk hoberenak ikusten baino gustorago. Baina sarrera bat pagatuta frontoi batetara goazenean beste zerbait nahi dugu. Ez goaz mutiko haiek ikus-tera.

Beraz denok ari behar dugu; baina noiz nolak ahaztu gabe. Bakoitza bere lekuan.

*Deia, 86-VIII-30*

## Gaizo Xalbador!!!

---

**N**IK dakit, adiskide Xalbador, nola haserretu zinen behin, "Uztapideri" deitu bertsoetan zuk "osona" zeneukan lekuan "onena" jarri zizutenean. Ikusi nahiko nuen aurten S. Aizarna jaunak egin dizkizun astakeriekin nolako muturra jartzen zenuen. Zure ohoretan eta bertso gogoangarri haiek buruz dakizkitenen omenetan, parez-pare jarriko ditut, Xalbador, zureak eta S. Aizarnak dakartzanak, bakoitzak bere gustora par edo negar egin dezan.

*Xalbador:* Pentsa zazute alargundu bat  
ez daike izan urusa.  
Dolamen unek, oi, ez dezala  
anitz geiago luza.  
Orain urtea ziloan sartu  
andreñoaren gorputza.  
Aren arropa antxet dilindan  
penaz ikusten dut utsa.

Geroztik niaur ere nabila  
guzia beltzez iantzirik.  
Ez dut pentsatzen nigar eiteko  
ene begiak esterik.  
Ez pentsa gero, andre gaixoa,  
baden munduan bertzerik  
zure arropa berriz soinean  
ar dezaken emazterik

*Aizarna:* Pentsa zazute alargunduba  
ez daike izan burutsa

dolamen unek oi ez dezala  
anitz ez geiago luza.  
Orain urte da ziloan sartu  
andreñoren gorputza  
arren arropa antxe dilindan  
penaz ikusten det utsa.

Gerozteik nik aur gerenak billa  
guziak beltzez yantzirik  
ez dut pentsatzen nik areitako  
ene begien besterik  
Ez pentsa gero andre gaxoa  
ba det munduban besterik  
zure arropak berriz soñean  
ar dezaken emazterik

Ikusten duzu, ene adiskide, zer egiten dizuten?  
Horiek omen dire zure bertso sonatuenak. Nola ekar  
ote zitzatekeen hala izan ez balira? Eskerrak baden  
bertso-jasotzaile hoberik eta zure horien ikasle fide-  
lagorik. Baina ez da barkatzekoa triskantza hori. Ez  
dago eskubiderik. Hori burla bat da. Zer esango ote  
zuen hori egin duenak, beste norbaitek Machado  
baten bertso ezagun batzu horrelatsu jarri balitu?  
Zer espantu ez ote zituen aterako? Gaurgero zeruek  
berek ere tximixtaka zihardutekeen aserrearen ase-  
rrez eta eskandaloaren sekulakoz.

Baina badakizu, adiskide haundi. Gaztelera,  
gaztelera da. Jainkesa horri beste begirune bat zor  
zaio. Harek ospea du eta ospea ematen. Baina eus-  
kara... Zer da euskara? Eta zer balio du artzai batek  
egin dezakeenak? Horren berririk ez du munduak.  
Igual dio honela edo horrela jarri. Urepel non dago-  
en ere ez daki kulturak. Hori ez da deus.

Eskerrak baduzun miresle zinezkoagorik, eta  
baden euskaldun bihotz eder-zaleagorik. Konpon-  
dua zeundeke bestela, gaizo Xalbador.

Deia, 86-IX-13



## Urepelen ez nuen esan

---

**U**REPELEN ez nuen esan eta honera ere ez nuen ekarriko, azkeneko **Argia** ikusi ez banu eta Itxaro Bordak dioena irakurri izan ez banu.

Hala dio gure neskatxa eta idazle egokiak: “Sistemak errekupeazio ahal haundia erakusten digu; baina ez ote zen hil aurretik ere Xalbador sistema horretan azken buruko biloraino sartua?”

Ez dakit nik zenbateraino ezagutu zuen gure idazleak Xalbador gizona, ez eta ere zenbat aditu zuen bertsotan; eta are gutxiago dakit zenbateraino irakurria duen Urepeldarraren obra. Baina Xalbador ezagutu zuenak badaki, eta haren obra irakurri duenak ere bai, gure artzaia ez zuela inork bere eskura “bildu ahal izan” inoiz. Eta honek bere bidea egin zuela beti.

Ahaztu ote zaio Itxaro Bordari gure artzaiak bere “hameka urtetan” eman zuen urrats ikaragarri hura? Zeinek du ausardia –eta zeinek zuen garai haietan– adin horretan “eskolako aulkiak” uzteko? Eta hori ez da hasera besterik.

Esan bezait gure neskatxak zeinek salatu duen Ipar aldeko eliza, eta zeinek azaldu dituen erlijio jansenista baten alderdi beldurgarriak Xalbadorek bezala. Ez sisteman “azken buruko biloraino sartua” egon balitz. Esan bezait ere zeinek salatu duen harek bezala bere nortasuna galtzen ari omen den Ipar Euskal Herria. Eta ez ditzagun aipa politika eta politikoak. Ea non aurkitzen duen inork iritzi gogo-

rragorik eta zehatzagorik. Beste guztiak atzerriari eta atzerritarrei kulpak ematen genizkion garaian, ikus Xalbadorrek nolako salaketak egiten dizkion herri honi.

Eta esan bezait, ahal badu eta horrelako gauzak irakurtzeko astirik eta gogorik baldin badu, zeinek egin dituen Xalbadorrek bezalako erlijio bertsoak, erlijioa zapuzten eta baztertzen zen garaietan.

Ez, adiskide Itxaro. Xalbador ez du inolako sistemak bildu eta bereganatu. Ez ohizkoak eta ez bestek. Kostako zaizu batean nahiz bestean sartzen gure artzaia. Ez duzu “eliza kulturazalean” aurkituko akaso; baina ezta herri sorginzalean ere. Honelako manikeokerietatik kanpo gelditzen da Xalbador. Harek, oker edo zuzen, bere saila zaintzen du Elizan, herrian eta etxean.

*Deia, 86-IX-25*

## Bertso idatzi txar asko

---

**B**ERTSOA, batez ere, bapateko hura da guretzat. Han eta hemen, hartaz edo hontaz, garai denean eta ez denean, norbaitek, orduko zerbaiti erantzunez, ateratzen duen kantu berri eta rimatua da guretzat bertsoa. Eta besteok egiteko gauza ez ginatekeen hura egiten duena da bertsolaria.

Besteok, izatekotan, idatzi egiten ditugu. Eta ez gara gu bakarrik. Bertsolariek ere idazten dituzte. Idatzitako hauek ditut nere gaurko gaia.

Eta hasi nadin esanez nahiko aspertua banagoea idatzitako bertsoak irakurtzez eta nere gisara kantatzez. Bertso txar asko idazten da. Eta on gutxi. Txarrak asko izanagatik, onak ere asko balira, gaitzerdi litzateke; baina txar asko eta on gutxi hori, ezin dut eraman.

Eta bapatekoa, txarra izanda ere, barkatzen duzu; baina beste hauek ez daitezke hain barkagarri izan. Idazten hasten denak, behar hainbat denbora baduela esan daiteke horretarako, non eta ezusteko zerbait gertatu ez den eta hartaz berehala idaztea pentsatu ez duen, edo eskatu ez dioten. Beraz ez dakiok denborarik ezari aitzakirik eman, bapatekoetan gertatu ohi den bezala. Hauetan ez da izaten pentsatzeko astirik, ez eta atzera egitekorik. Idatzizkoetan ez dago horrelakorik. Horregatik da penagarria idatzitako bertso txarrak irakurri beharra.

Batzuetan erraz da asmatzen zergatik ez dituen onak atera harako edo honako bertsoak idatzi dituen harek. Gaia ez zuelako berea ez ditu atera bertso onak. Bertso-jartzailearen bihotzak ez zuen sentitzen gai hura. Eta sentitzen den hartaz bakarrik egin daiteke zerbait onik. Hartzez hartu den gai batekin nekez atera daiteke bertso sarkorrik, ez argiz eta ez suz. Norberak "ikusit" duena bakarrik jakiten da, eta hura bakarrik erakus daiteke, eta horren ondorioz sortzen denak bakarrik uki gaitzake besteok. Gainerakoa ezer ez eta festa gertatzen da.

Badirudi zenbaitek uste duela, bertso asko eginenez eta atereaz, indar aparteko bat ematen diola bertsoari eta gure kulturari. Eta hori ez da egia. Askoz ez baina onez erakartzen da jendea erakartzekotan. Ez dugu ezer aurreratzen bertsoa bertsoaren gain pilatzearekin. Onak egiten eta zabaltzen ahalegindu behar da, onik egin nahi bazaio bertsoari eta gure kulturari.

*Deia, 86-IX-27*

## Mendizabal eta biok

---

**O**INATIN izanak gara lehengo ostegunean. Mahainguru bat genuen bertsolaritzaz. Dozenaren bat pasatxo lagun bildu zitzaigun ingurura. Erdiak bertsolariak ziren eta erdi-bertsolari beste erdiak. Noizpait ahaleginik egin gabekorik berriz inor ez ginen. Goikolea jauna ere hantxe zen. Ez dakit zer ikastekotan etorria gugandik, baina hantxe.

Azken hamar urte hauetan bertsolaritzak izan zitzakeen berrikuntzez, edo aldaketez, aritzekoak ginen. Hori jakin nahi zuten nonbait. Eta han jardun genuen Mikel Mendizabalek eta biok, ustez bagenekiena esaten, eta jakin nahiko genukeena agertzen, eta sortzen zaizkigun galderak egiten.

Bertsolari-eskolak izan ote zitezkeen esaten genuen hamarkada honetako gertakizunik nabarmen txoena bertsolaritzen. Bertsozaleak sortzea ote zuen bere egitekorik nagusiena genion, bertsolari berriak egitea alde batera utzi gabe.

Zera ere esaten zen: Gaur bertsolariak, bertsoa osoan hartuta, garai batetakoek baino egokiagoa egiten duela. Ez dagoela, esate baterako, 1935eko Txapelketakoak eta oraingoetakoak konparatu besterik. Beraz bertsogintzak maila hobea daukala gaur, garai batean izan zezakeena baino.

Hala ere kezkarik ikusten zen. Gaurko bertsoak ez al dira ekarriagoak garai batekoak baino? Haiek ez al ziren berezkoagoak, grazi gahiagokoak eta freskoagoak? Ez al da egia, norbaitek esan izan

duen bezala, haiek harkaitzari darion ur negarra bezala zirela, berez iturritik zetozenak, eta hauek kanillako ura bezala direla, depositean bilduta dagoenetik datozenak?

Hori guztia eta gehiago ere esan zen han. Bi ginen hitzegitekoak, baina azkenerako denok ginen hizlari. Izan ere, zein ginen han besteak baino gehiago genekienik, edo zein zen han, gehiena zekienak hainbat ez zekienik?

Hangoa bukatu genuenean, hala esan zidan Mikelek: "Zu aspertu xamarra egongo zara honezkerro horrelako mahainguruz eta abar"? "Ez. Aspertua ez, esan nion. Kezkatua nago. Aurrerapenik ez bait dut ikusten. Ez daukat behar hainbat azterketa eginik, eta ia ez daukat ezer berririk esateko."

Hori da ni kezkatzen nauena. Hitzegin asko egiten dugu, baina ikasi eta aztertu ez dakit zenbat egiten dugun. Eta aurrera egin nahi badugu eta gure bertsolaritza argitu, ikasi egin behar dugu. Gure unibertsitari gazteek, bertsozaleak litezkeenek, badaukate hortan zer eginik.

Deia, 1986-X-4

# Uztapide eta Xalbador

---

**A**USPOA liburu-sailetik hartzen ditudala bertsoak esan beharra daukat aurren-aurrena. Behin eta berriz aipatuta ere ez ditugu behar haina inoiz eskertuko AUSPOA eta beraren egile A. Zabala agurgarria.

Bai, bilduma horretatik hartzen ditut honera dakartzadan bertso haiek. Lehengoan nere lagun bertsolari batek berritu zizkidan, eta horregatik dakartzat gaur. Behin eta berriz erakutsita ere ez dute inoiz beren erakartasunik galtzen bertso eder hauek.

Gaia badakizu zein duten, irakurle. Biak andamio baten gainean ari dira lanean, eta andamiaoa puskatzen hasten zaie. Batek salto eginez bizia jokatuz gero, bestea salba daiteke. Ea zer dioten:

## **Uzt.:**

Lurretik eun metrora zaigu/aldamiyo bat ageri,  
bitatik batek saltatu bear,/badira milla komeri;  
ta, Xalbador, zu eroritzeak/pena ematen dit neri,  
bitatikan bat erortzekotan/nayago det nik erori.

## **Xal.:**

Kasu hunetan nehoiz munduan/gertatu ote da nehor?  
Beheragotik ere guziak/nahiz gintazken erorkor;  
ez, Uztapide, nihaur banoa,/otoi, etzaitela eror,  
berdin zu hantxet hil eta gero/hila litake Xalbador.

**Uzt.:**

Xalbador lagun orren aurrean/erantziko det txapela,  
bañan badakit bitatikan bat/salbatu ez ditekela,  
biotzak dio sentitzen duna,/ez nun esango bestela,  
lagun urkoa maitatzen baidet/nere burua bezela.

**Xal.:**

Zendako behin, oi Uztapide,/ote zindudan ikusi?  
Zer debruk bada ote zintuen/eni hola maitarazi?  
Ez gaiten hemen bat ere geldi,/biak lurrerat goatzi,  
gutarikan bat hor hiltzekotan /bertzea zendako bizi?

**Uzt.:**

Ongi diozu, lagun maitea,/ez dezu itz egin zakar,  
eta zuri zer erantzun ere/pentsatua daukat azkar,  
alkarrentzako sortu giñan da/zertarako bizi bakar?  
Biok gelditu edo erori,/guk artu dezagun alkar!

**Xal.:**

Hau da memento ikaragarri/txarra pasatzen duguna,  
ni memorioz gaizki naiz edo/memento hau ez da ona,  
hau da amets gaixtoenatarik /nonbaitik heldu zaukuna,  
bi maitetarik bat galdu behar/bizia edo laguna.

Datorren asteko saiotxoan berriro aipatuko ditugu  
bertso horiek, eta puntuz-puntu ikusiko dugu zergatik di-  
ren hain eder eta zergatik izan ditzakeen hain gogoko ber-  
tsozaleak.

*Deia, 86-X-11*



## “Onestidadetik urten barik”

---

**T**OLOSAN bertsoaio haundi bat izan zuten gaur hamabost. Aspalditxotik urtero antolatzen dute garaitsu honetan horrelako jaialdi bat. Aurtengokak hala ere, aparteko sona zuen.

Kantatzen, martxoan finala jokatu zuten zortziak zituzten. Ez zen beraz nolana hiko taldea. Bestalde, izen haundi bat eman zioten aurtengo honi. Aitzol zenaren omenetan izan zen. Txapelak eta txapelketek badute zerikusirik gure tolosar haundiarekin eta ederki elkartuak zeuden egun horretan “izana eta izena”.

Jendearen erantzuna primerakoa izan zen, urtero bezala. Saioa egoki antolatu zuen Millan Telleriak. Badaki zer den jaialdi bat eta esku aparta erakutsi zuen lehengoan lan horretan.

Eta bertsolariak ongi erantzun zuten. Zerbaite-tarako ziren finalistak. Neri gehiena gustatu zitzaizkidanak Lizasoren testamentua eta Amurizaren munduaren tankera izan ziren. Baina saioa, guzira, berdina eta ederra izan zen.

Nik, aitzakiren bat bilatzekotan, Sarasuak eta Egañak egin zuten saioari bilatuko nioke. Egaña, parranda haundi bat egin ondoren, emaztearen ondoan ohean sartzeko partez, etxeko katuaren alboan etzaten da. Katu hori Jon Sarasua da.

Gaia ez da izugarria, baina ez da txar-txarra ere. Horrelako pranko jarri ohi diegu eta bertsoa-

riek erabili behar izaten dute. Gai horretan Sarasuak egin zuen jarduna neri ez zitzaidan gustatu. Itsusi samar jardun zuela iruditu zitzaidan. Gauza berari bueltaka ibili zen, eta hura halakoa. Esan behar dena esan behar da, eta esan daiteke; baina noiz eta non eta nola. Behin entzun nion Manuel Lekuona jaunari bizkaitar batek esaten omen zuela, beti ere ibili behar zela “Onestidadetik urten barik”.

Reagan eta Gorbachov gai harturik aritu zirenak ere ez zuten hartarainoko fintasunik ibili. Gure lehenengo BBB kurtsoa egiten ari diren ikasleek begi hobea ibili zutela uste dut. Nik galdetu nienean, bi mandatari horiek izateko partez gutako biren aitzak izan balira, ondoren hobeak aterako ote ziren, ezezkoa nagusitu zen. Hauek oharturik daude, nonbait, arazoa gaiztoa dela; eta pertsonarik hobere-  
nentzat ere oso zaila dela hori konpontzea.

Baina, aitzaki horiek gorabehera, jaialdia ederra izan zen.

*Deia, 86-XI-1*

## Urte askoan horrelaxe, Manuel

---

**A**ZKENALDI honetan notizi izan ditugu egunkariak. Euskararengatik izan dira notizi. Denek batera hasi dute berebiziko joaldi bat gure hizkuntza zaharrari leku gehiago eginez. Eta eman du hizpiderik gertakizun horrek. E.T.B.k ere hortxe eskaini dio bere MAHAI INGURUA bat.

Baina berri horrek badu bere barnean beste berririk. Idazle berriak ditu berri. Eta horretaz hitzegtien nik ez dut inor sumatu. Ez bide zaio inori bestea bezain berri nabarmena iruditu. Ni, berriz, beste honek ere jo nau.

Zein ez du harritzen, izan ere, zenbait zinadura ikusteak? Zein ez du erdi ahoxabalik utzi Manuel Lasarte izendeiturak irakurtzeak? Zein ez duen utzi, ez dakit. Ni hala utzi nauela dakit. Eta hasi eta buka beraren artikuluak irakurri ditudala esan beharrik ez dago. Eta irakurri arazi ere egin dut bat edo beste.

Bejondaiola gure Manueli! Lehen ere bagenuen zerbait irakurrik Lasarterekin. Bere bertso liburu ederrean badu zenbait zati hiz-lauz edo hitz laxoz idatzirik, eta haiek pasa izan ditugu, bertsoak irakurri aurretik. Baina nork espero zezakeen gure bertsolari gozoaren artikulotxoak egunkarietan irakurtzeko "plazerra" izan behar zuenik?

Plazerra esan dut. Guk ez dugu hitz hori batere erabiltzen; baina naparrek eta bestaldeko gure euskal-senideek etengabe darabilte. Eta neri oso ongi

zetorkidan esaldi horretan. Bertarako egina bezelakoxea iruditu zait. Horregatik sartu dut.

Horixe da, izan ere, Lasarteren artikuloek egiten didatena: Plazer, atsegin. Izugarri gustora irakurtzen ditut. Zotal biguinaren gainean denbora pasa egurasten ibiltzea bezain goxoa gertatzen zait. “Zein gozo ta eder den” –barka– Lasarteren prosa.

Inoiz bertsoaren bat ere sartu du. Bakarra nik uste. Gustatu zitzaidan. Hondartzetan eta “jazten” diren xaroa horietaz zen bertsoa. Ba al dakizu nola deitzen dien berak gerriz beheko izpi horiei? Honela: “ipurdiko korbata/deitzen diotet nik”. Hori ateraldiaren grazia!

Maizexeago sartu beharko lituke akaso bertsoak. Bere bilobarekin paseatzen dabilela bururatzen zaion zenbait ateraldi bertsoan ematea ez legoke gaizki. Dena dela, segi dezala idazten. Urte askoan horrelaxe, Manuel.

*Deia, 86-XI-8*

# Basilio Pujana

---

**L**EHENENGO aldia dudala uste dut “Auspoa” saileko ale bat bereziki nere txoko honetan aipatzen dudala.

Beste gehiagok ere merezia zukeen aipamena. Eta inon izatekotan, gure sail honetan. Egia esan, “Auspoa” saileko denek merezi lukete hemen sarre-ra. Eta harrera ere merezi lukete. Guk egin diezaigukeen baino hobea gainera.

Baina gaurdaino ez dut espreski bat bakarrik ere ekarri. Hemen ere, beste gauza askotan gertatzen zaiguna gertatu zaigula iruditzen zait: beste munduko gauzetan ari bagina bezala ibili, eta azkenean, beharrezkoenak egin gabe utzi.

Basilio Pujanaren “Egi batzuek aixetaratzen” honekin ez zait horrelakorik pasa, zorionez. Eta ez lehengo okerrak konpontzekotan nenbilelako. Ez da hori. Egin didan graziarengatik izan da. Ezagutu egiten dut nik soil-soilik bizkaitar bertsolari hau. Inoiz edo beste bakarrik entzun diot bertsoren bat. Nolako bertsolaria den ere ez dakit ia-ia. Gipuzkoa aldean ez du izenik. Ibili ere, esateko, egin gabea da. Baina ez dio inportarik. Nik ez dakart honera, ez dakit nik nolako bertsolari omen delako. Ez dakart bertsolariaren kalitatez gizona. Gizonaren kalitatez dakart bertsolaria. Hori aurkitu bait dut “Auspoa” saileko liburuskan: gizona. Eta zeinek ez daki hori dela gehien balio duena?

Gizon euskaltzale purrkatu bat aurkitu dut. Eta bertsozalea, jakina. Bi gauzak elkartzeko, zer gauza polita kontatzen duen sarreran, bere bizitza "saltoka-saltoka ixurtzen ari delarik".

Gerra ondoko egoeraz ari da. "Kartzelan baiño bildur geiagoz" nola ikusi zituzten esaten du beren buruak herrira itzultzean. Eta euskaldunaren mixeria gorri horretan, elizkizunetan ere beren buruak arrotz ikusten zituzten. Euskaraz ez zen egiten elizkuzunik.

Hori zela eta obispadura joan zen behin obispoarekin hitzegitera, bixita "emakume batzuk gertautu". Obispoak, haien eskabideei errosario eta liburuak bazeuzkatela erantzun omen zien. Ateraldi horren ondoren laster jaso izan behar zuen gure elizgizonak bere erantzuna. "Baserritarraren errazoia" deitzen du Pujanak. "Errespetoz" emana eta mingainean trabarik gabe esana. Hala bota omen zion gure Pujanak: "Errosario eta liburuak naiko badira obispoak sobra dira".

Horixe duzu gure Basilio Pujana, irakurle: gizon argi, alai eta bero bat. Beroa euskaltasunean, beroa bertsolariz eta beroa fedean. Zeinek asma ote dezake zenbat zor dien gure herriak tankera honetako euskaldun zintzoei?

*Deia*, 86-XI-15

# Istripu madarikatuak!

---

**I**STRIPU baten ondorioz joan zitzaigun Xalbador. Hala berean "Ahetzeko Mattin". Eta beste istripu batek eraman digu Balendin Enbeita. Istripu madarikatuak! Muxikarrak min hartu zuen bezperan bete ziren hamar urte urepeldarra hil zela. Bihar hilabete kunplituko dira beste hamar Mikel Arozamena hil zela. Udazken beltza!

Enbeita izenak itzal haundia duela ez dakienik ez da hemen. "Urretxindorra" da hasera ematen diona ohorezko deitura horri. Besteak beste, oraindik gure artean dugun Basarri haundiaren eredu izan genuen Kepa Enbeita. Ez da nolana hiko ohorea.

Haren semea dugu Balendin. Eta Balendinek bere aitaren seme eta jarraitzaile izateko ohore bikoitza izan du. Bizkaitarrek badakite ongi, eta gu ere ikasiak gaude zenbat zor dion Bizkaiko bertsolaritzak herenegun hil zitzaigun Muxikako semeari. Bai, jarraitu dio noski ederki bere aitaren lanari!

Eta aita maisu haundia izan bagenuen ere, Balendin itzela izan dugu. Ez ditugu aipatuko etxez kanpo izan dituen ikasleak. Etxekoak aipatuko ditugu bakarrik, hauen maisu onetsia eta miretsia izatea bait da, edozeinentzat ere, ohorerik minena eta "saririk ederrena".

Eta nork erakus dezake Balendin Enbeitak bezalako ikasle talde etxetarrik? Zenbat dira? Zenbat diren ez dio ajolarik. Denak direla da, hor gehiena balio duena maisu batentzat. Edozeinek ikus ditza-

ke beren aitonaren eta beren aitaren sailean denak batera, haien ordezeko eta jarraitzaile, Jon erdian eta buru dutela. Biba enbeitatarrak! Nolako gozatuak hartzen ote zituen Balendin zaharraren bihotz gazteak bere horiek beraren bide beretik zetozeela ikustean? Zeruak berak ere ederra beharko du izan, edertasun hori gaingitu behar badu.

Balendinen seme-alabek ez dute ondare makala jasotzen. Ez eta nolana hiko erantzukizuna hartzen. Izen haundi baten jabe egiten dira. Oraindaino pentsa zezatekeen, zutik eta oso zutik zeukaten gurasoa aski zela zama hori eramateko, eta harengan utzi zezatekeen egiteko hori. Baina urteentzat menderakaitz zen hura istripu tzar batek bota du, eta beren bizkar hartu beharra daukate Enbeita deituraren izena, eta izana. Badugu itxaropen Urretxindorraren testigua jaso zuenaren seme-alabek jasoko dutela beren aitarena.

Dolumin zuei, Balendin zenaren emazte, seme-alaba, iloba eta ahaideoi. Eta "Agur eta ohore" zuri, Balendin Enbeita Jaun Agurgarri. Laster arte.

*Deia, 86-XI-22*



# Gaiak

---

**A**SPALDI honetan gai kontu horrek inoiz baino kezkatuagoa nauka eta ez dakit seguru-seguru zergatik.

Gaitz zaharrekin gertatzen dena gertatzen dela iruditzen zait hemen ere. Horiek ere hortxe izaten dira gurekin, badirenik ere konturatu gabe luzarotan. Baina gutxien uste denean, hor hasten dira mugitzen, eta adierazten dute ederki zer diren.

Orduan izaten dira komeriak eta pitiriak eta askotan inork ez du jakiten zerk esna arazi dituen.

Gai kontu hau ere arazo zaharra da. Ez da nor den gajartzailerik, ez eta bertsolaririk, gauza horrek kezkarazi ez duenik. Kezkak kezka, aurrera egin ohi dugu ordea, eta hortxe ibili ohi gara ahal duguna eginez. Baina noiz behinka berritu egiten zaizu "barnean zeneraman zauri bizia".

Gaitz zaharrek, egia esan, ez dute gauza haundirik behar izaten kejatzen hasteko. Hamaika aldiz eguraldiari berari aitzakia emanda gelditzen gara lasai asko. Nere hau ere hutsaren hurrengo zerbaitengatik berritu ote den daukat susmoa.

Joan den aspaldian, zintan jasotako jaialdi asko xamar ari naiz entzuten. Hala eskatu zidaten eta hala egiten dut. Eta horrek badu bere zera. Zintan dagoen jaialdia, kontserban dagoen arraina bezala da. Ez du jaio den uneko bizitasunik eta grazirik. Plazako edo saloiko giroa falta du.

Gainera, nik epaile bezala entzun behar izaten ditut bertso horiek, eta ez da posturarik hoberena bertsoarekin gozatzeko. Horrelako zerbaitek berritu ote didan nago gaiak xeblebre xamarrak iruditzearen kezka hau.

Izanez ere, askotan, itxuragabeak gertatzen zaizkit gai asko. Ez dut esan nahi gaizki asmatuak daudenik. Asmatuegiak daudela esan nahi dut. Hau da, ez dutela inolako loturarik eguneroko bizitzarekin, eta gai hori hartu duen bertsolariaren bizimoduarekin; hitz batean esateko, gaiak artifizialegiak iruditzen zaizkit. Hori da dena.

Eta gaiak horrela direlako, bertsolariari ere lan haundiegia jartzen diogula pentsatzen esango nuke. Gaiak benetakoak izan behar dutela uste dut. Bestela nekez kantatuko dute bertsolariek benetan, eta nekez izango dute bertsoek indar sarkorrik.

*Deia*, 86-XII-27

## Xalbador (1920-1976)

---

**T**ITULU bakarra, gaurkoarentzat, izen hori zetorkidan burura. Eta izena biribiltzeko, berriz, beraren urteen luze-laburra besterik ez dut asmatu. Izan ere, Xalbador esanarekin ez al da dana esaten euskaldun batentzat?

Zeinek ez du gogoan duela hamar urte Euskal Herri osoa dardar arazi zuen heriotz trajiko hura? Zazpi probintziak haren omenezko jaialdia ospatzen eta hura azken-arnasa ematen! Nola ez gogoan izan horrelako gertakizun ikaragarri bat.

Eta Xalbadorrek ez du hori bakarrik gogora arazten. Ahoz-aho dabil oraindik Donostiako Anoeta frontoian "eskaini" zitzaion xixtualdi hura. Artean ez zekien asko jendeak nolako bihotzari ematen zion min xixtu haiekin. Gerora ezagutu zuen hobeki, eta konturatu zer sarraskia egin zuen egun hartan gizon haren bihotzean.

Baina ez dira gertakizun garratz eta mingarri horiek bakarrik Xalbador izenak gogora ekartzen dituenak. Ba ote da euskaldunik harek emazte zenaren soinekoari kantatutako bertso haien berri ez duenik? Berri ez duenik ez da, noski; eta bai bertso haiek buruz dakienik, bada. Hamaika bertsozaleri entzuten zaizkio behin eta berriz kantatzen.

Horretaz aparte, ezagutu zuten guztien gogoan dago bertsolari izugarri hura. Zeinek ahaztu ditza-ke, izan ere, haren ahotsaren beroa, haren kanta-

tzeko postura hura, haren ateraldien ederra eta haren arrazoinamenduaren ditzira?.

Eta beraren irudia ere ez da berehalakoan galduko gure begien bistatik. Gizon luxexka hura -Marttin ondoan zuela luzeago gainera- bere aurpegi zorrotz, ibili baldaxka, bekozko ilun, hitz bakan eta ateraldi mardulekin, nola galdu gure oroimenaren sailetatik? Ez, ez. Ez dago Xalbador ahaztu beldurrik.

Eta begien bistan ikusi ez zuenak eta kantari entzun, hor dauka beraren obra. Horregatik da, batez ere, gogoan izatekoa Urepeleko artzai miresgarria.

Apustu egiten diot irakurle daitekeenari, ezetz lehenengoan jaso hitz horietan dagoen mamia, eta baietz gero eta mardulagoa iruditu lerro horietan aurkitzen den mezua.

Orixek Lizardirengatik dio, ez irakurtzeko haren poesiak presaka. Hitz bakoizka irakurtzeko dio. Nik gauza bera esan dezaket Xalbadorren obrarengatik. Ez galtzeko hitz bat bakarrik ere. Eta ikusiko du irakurleak zenbat edertasun eta aberastasun aurkitzen duen.

Horrela irakurriz istimatuko du behar bezala Euskal Herriak Xalbador eta orduan ikusiko du nor eta zer zen benetako Xalbador.

*Deia, 86*

## “Mujikaren euskal-perlak”

---

**H**ORRELA izendatzen du Euskadi Irratiak askotan igande goizetako bertso-ordu hori. Ez dago gaizki esana “euskal-perlak”. Hala ere bertso-perlak hobeki zegokeen, hala direnez gero hor entzuten ditugunak. Duela denbora asko samar jasotak dira. Eta beste inork ez bezala hartuak batez ere. Orain ia edozeinek jasotzen ditu bertsoak horrela; baina orduan bakarra zen lan horretan Mujika jaunna

Eta ez ditugu bertsoak huts-hutsik izaten. Beren xaltzarekin izaten ditugu. Bertsoetik bertso hor agertzen da biltzailearen ahotsa. Eta nola animatzen dituelako gero bertsolariak beren lanean. Inoiz xehetasun politik ere eman ohi digu.

Duela 20urte jokatu zen Nafarroako txapelketan, Goizuetako Narbarte zena maisu papera egiten jartzen dute, eta beraren bi lagunak, bata alkatearena egiten eta bestea apaizarena. Gure bertso-biltzailea, Narbarte -Xalto ezezinez- maisu papera egiten jartzen dutenean, par txikiak egiten hasten da. Zerbait txokatu zaio nonbait. Eta hala dio gero: “Xalto maisu? Irakurtzen ere ez daki-ta”. Eta egia da. Gure Narbarte bertsolari alaiak ez zekien irakurtzen.

Bertso bakoitza, edo saio bakoitza, zein orduetan egiten den ere askotan jakinerazten digu. Horrela ikusten dugu bertso-saioak zer atzerapen darman ere. Atzerapenarekin dabiltzala jakiteak ez di-

gu inolako berririk erakusten; hori betikoa bait dute; baina atzerapena zenbatekoa den jakiteak badu bere zera.

Bertsolariaren planta ere adierazten zaigu. Jakiten dugu eskuak non ezartzen dituen bertsolariak, laister ala nekez altxa den, zer modutako bekozkoa dakarren, jendeak zer harrera egin dion eta abar. Bertsoak entzun bakarrik ez dugu egiten. Bertsolariak ikusi ere egiten ditugu. Sekulako bizitasuna ematen dio gure bertso-biltzaileak zintari. Horrolakoxe graziko saioak entzuten ari gara aspaldi honetan.

Dokumentu hauek denak Mujikari zor zaizkio. Bazuen hamaika bertso bildurik garai haietan. Zeinek ez du gogoan gure gizona eszenario guztien bueltan eta plazetako tranpadura guztien inguruan, beste inor ez bezalako tresneriaz horniturik, hango eta hemengo jaialdi guztietako bertsoak biltzen? Luzaroan ezagutu genuen horrela. Gero itzali egin zitzaigun bapatean. Eta oraintsu agertu da berriz.

Orain ere lehengo lanean segitzen du. Baina oraingoak edozeinek biltzen ditu. Ordukoak bildu izana du meritua gure Mujika jaunak. Horregatik daukagu guk jaialdi haiek entzuteko grazia. Milesker beraz Mujika jaunari euskal-perla horiengatik.

1987

# Berria

---

**U**RTEBERRI on!, irakurle. Hori dugu ohizko diosola egun hauetan, eta nik ere ikasia daukat, eta nere desiorik hoberenez egiten dizut zuri, bertsozale, zarena zarela.

Hemen dugu iadanik 1987 urtea. Haur jaioberrri bat bezain berri dugu, eta harena bezain ikuskitun honen geroa. Aurten ere ez da gezurra izango “zaharrak berri” hura; baina guztiz egia ere ez da izango. Lehengo zulo beretan jausi gaitezkeela –eta jausiko garela– edozeinek asma dezakeen gauza bada ere, erabat ez dela zaharra izango edozeinek, profeta izan gabe ere, igerri dezakeen zerbait da.

Gure sail honetan erabili ohi dugun gaiak ere izan dezake berririk, eta berrikuntzarik, eta horietako bat aipatuz hasi nahi dut aurtengo urtea.

Ondarroako bertsoaio bat entzun ahal izan genuen Urteberri egunean Euskadi Irratiz. Bazen bertso ederrik eta bizirik jaialdi hartan, batez ere lehen partean. Baina hori ez da berria. Beste zerbaitegatik aipatzen dut gaur hemen jaialdi hura.

Gaijartzaileak gaia emateko modu berri bat es-trenatu zuen saio hartan. Binaka eta banaka ihardun arazi ondoren, zortzi bertsolariak batera deitu zituen berriz kantatzera. Eta berak jarri zituen gai ematen. Bakoitzak puntu bat jarri behar zion aldamenekoari, eta honek bertso osoa egin behar zuen. Bina puntu jarri zioten elkarri, eta guztira hamasei



bertso polit atera zituzten bertsolariek. Oso saio interesgarria izan zen, eta neretzat ezezaguna.

Istimatzekoa da Altzalei jaunak egindako berrikuntza hau. Nik eskertzen diot bere asmakizuna. Hemendik aurrera badut helduleku berri bat jaialdiak antolatzerakoan. Eta beste gaijartzaileentzat ere balio dezakeela uste dut. Betiko moldetan ari-tzeak kezkatzen gaituenontzat notizi on bat da. Ea elkarri ikasiz jaialdiak hobetzen ditugun denon artean.

Saioaren zatia oso bizia izatez aparte, kurio-  
soa izan zen ikustea bertsolariek nola heltzen zioten erabilitako gaiari. Bat baino gehiago itzuli zen aurretik erabilitako gaietara, bai puntua ematerakoan eta bai erantzuterakoan. Orduan esan gabe utziak, edo gero eserita zeudela bururatuak, botatzeko aukera ederra izan zuten. Horretarako ere balio zuen elkarri puntujartze horrek. Eta horrek ere argi berri bat ematen digu. Bertsolaria ez da lo egoten eserita dagoenean. Eta haren burua gutxiago. Buruan izaten du lehen erabili duen gaia. Eta badaki zer esan duen, eta zer esan zezakeen, eta zer esango lukeen berrizkorik balitz. Pentsamendu horiekin daudela, nahi dutena kantatzeko aukera emateak, lehen esan gabe utziak eta geroago bururatuak esateko aukera ematea esan nahi du. Horrela gertatu zen Ondarroan.

*Deia, 87-I-10*

# Pitxi

---

“**E**USKAL Herriko Bertsolarien Txapelketa nagusia 1986”. Izen luze hori ipiniko nion nere honi, luzeegia izan ez balitz. Nola jarri, ordea, artikulua bera baino ere ia haundiagoko izenik? Horregatik, alias batekin utzi dut. “Pitxi” jarri diot ezizen edo gaitzizen edo izenorde.

Hoberik merezi zezakeela? Baina ba al da pitxia baino gehiago istimatzen den gauzarik? Zer gutziazten dute lapurrek berek ere pitxi bat baino gehiago? Propagandarako ez dut uste hori baino izan dei-garriagorik asma nezakeenik.

Baina nik jarri diodan izena ez da erostun bila egina. Neri egin didan inpresioa bataiatzeko aukeratu dut izen hori.

Neri benetako pitxi baten inpresioa egin dit liburua. Axala polita du eta barnea oso ongi hornitua dauka. Zeharoa da datoetan, bai bertsolariei dagokionez eta bai doinuei dagokionez. Joanito Dorronsorok oso lan zehatza eta argia egin du doinu kontuan. Argazkiei dagokienez berriz zer esanik ez. Lan gustagarria da benetan. Eta oso baliosa. Zorionak eta eskerronak merezi dituzte prestatu duten guztiek.

Eta erostea ere merezi du. Baina ez, bestela, atera dutenek dirua gal dezaketelako, sos batzuren truke pitxi baten jabe egin gaitzkeelako baizik. Horregatik merezi du erostea. Eta orain esan nahi dizudan beste zerbaitengatik.

Behin Amuriza eta Lopetegi txapelketa batetako lehen saiora omen zetozen. Txapelketa hartan Lopategik ez zuen parte hartzen. Eta Amuriza lehenengo aldiz zetorren txapelketa batetara. Bere laguna lehendik ere ibilia zen lan horietan. Eta etxanoarrak kontseju bat eskatzen dio honela, alboan txofer datorren Lopategiri: "Zer kontseju ematen didak bada, motel? Zer esaten didak?". Eta gure Jonek bi eskuak bolantetik altxata, "Hik altu kantau, hik altu kantau" erantzun omen zion Xabierri.

Bazekien txoferrak zer esaten zuen. Goitik eta egoki eta haundikiro kantatzen den bertsoa, entzuteko atseginagoa dela eta engainagarriagoa dela edozeinek daki. Kantuak jantzi egiten du eta den baino gehiago iduri du askotan bertsoak.

Irakurketarekin ez dago horrelakorik. Hor biluzik dago bertsoa, berezko neurritan. Azken txapelketako epaile bati hala erantzun nion nik, zer egin behar zuen mahairako ongi prestatzeko galdetu zidanean: "Irakur hitzak lehengo txapelketetako bertsoak eta har hiezaiok neurria bertso bakoitzari eta bertsolari bakoitzari".

Horretarako aukera ederra ematen dizu liburu honek, irakurle.

*Deia, 1987*

# Gaijartzailea

---

**A**MURIZAK hala esaten zidan lehengo apirilaren azken egunean Alkizan: “Urteroko jira hasi diagu”. Bai. Santakruzetatik aurrera itzuli berri bat hasten du zenbait bertsolarik urte oroz Euskal Herrian zehar. Urtero berdintsua; baina inoiz ez berdina.

Eta haiekin batera, eta haien ondoan, gaijartzaileen festa hasten da garai honetan. Festa eta buruhaustea hasten dira aldi berean.

Alkizan, bertsolarietara bezala pagatu zidaten neri ere. Eskertzekoa da. Herriko alkatea pagatzera hurbildu zitzaidanean, “neri pagatu behar al didazu” esan nion. Eta Lopategik aldamenetik: “Jakina! Zuk guk baino lan gehiago egin duzu”. Eskertzekoa da aitormen hori ere.

Eta ez da gezurra. Jaialdi bat prestatzeak lan haundia du. Nolanahiko gaiak emateak ez du inolako lanik. Lehenbizi burura etortzen den hura botatzea bertsolariari, gauza erreza da. Baina hori ez litzateke jaialdi bat prestatzea. Hori edozer gauza litzateke.

Aurrena, zein bertsolari diren jakin behar da kantuan. Eta gaiak, batzu bederen, haientzat prestatu behar dira. Bakoitza bere bihotzetik kantari jar eraziko duen zerbait eman behar zaio kanturako gai. Bakoitza berez eta beretik ari denean aritzen da ondoen kantuan.

Gero, ahal dela, egi itxurako gaiak bilatzen saiatu behar da. Inoiz inola egokitu ez daitekeen egoera bat ez da inspiratzeko gairik hoberena. Guri okurritu lekigukeen edozein burutazio ez da on gaitarako. Badirudi, inoiz, okurrentzirik bitxienaren zai egoten garela, bera apuntatu, eta gero bertsolariari gaitzat hura jartzeko. Ez da hori. Gaiak bere itxura bat behar du.

Eta jaialdia, oso-osorik eraman behar da presatua. Ez du balio alde-aldera antolatuta joateak. Ahal dela han ez da ezer inprobisatu behar. Eta horrek lana eskatzen du.

Benetako lana, baina egin beharrekoa, jailadiak egoki ateratzea nahi bada. Bertsolariek egin dezaketen ere, askotan gajartzailearen eskuetan dago. Izenak balio du hemen ere, eta bada bertsozalerik gajartzailearengatik bakarrik bertsoak entzutera etortzen denik.

Gainera orain, gehienetan pagatu egiten dute, eta hori irabazi egin behar da. Ez dago ateratzerik jendearen aurrera ajolakabe, purua ezpainetan eta bi eskuak patriketan.

*Deia, 87-V-18*

## “Carmelo Balda”

---

“**C**ARMELO Balda” du izena gaurkoan, eskole-tako gure bertsolari-gaien ilusioak. Lore horretara bilduko dira gaur bertsoaren eztiak darabilzkian erletxo hauek. Izango da burrunda. Eguerdiarte honetan ez zaio faltako kolorerik eta saporerik Balda pelotalekuari. “Festarik behar bada”, gaur ere Donostian.

Urteroko erakusketa egingo dute goiz honetan Donostian bertsoeskolek. Hor izango ditugu bertsolaritza bereziki landu duten nexka-mutilek ahaleginak eta bi egiten beren lanean. Batzu ez dira iritxiko burutzerak. Gehienak bai. Nahi bezala, ia inork ez du egingo. Gutxien uste zuen zuloan eroriko denik izango da. Eta zenbaiti, gaurko eguna ez zaio sekulan ahaztuko.

Dena dela, ikastetxeetako bertsoeskoletan egiten den lan ixilaren erakusketa bat ikusi ahal izango da gaur eguerdi artean Carmelo Balda pelotalekuan.

Bertso-eskolak. Horra hor izen bikoitz bat, oraintsu arte ezkongaitzak ziren bi alderdi lotzen dituenak: Bertsoa eta eskola. Bertsolariak izan zitezkeen eskoladun; baina ez eskolak eginak, mediku bat edo albaitero bat bezala. Jaio egiten zen bertsolaria, ez egin. Etorria zuen bere tresna, ez ikasia. Berezkoak zituen bere arrazoiak, ez liburutakoak. Horrela omen zen bertsolaria, eta horrela behar omen zuen

izan ere. Eta gaur eskolan bertsolaritza ikasten? Zer diozu horretaz, galdetzen du edozeinek.

Horretaz, oraindik ikuskizun dagoela esan behar da aurren-aurrena. Jaio berriak dira eskola horiek, eta hemendik urte batzuetara esan beharko da zer eman duten.

Eta hurrena, zera esan daitekeela uste dut: Bertsolariaren berezkotasunaren alde daudenei nekez kenduko diela arrazoirik eskolak. Berriz ere jaio egin beharko dute, batez ere, bertsolariek. Etorririk ez duenari nekez erantsiko dio eskolak bertsotarako nahitaezko den trebetasunik. Horretan ez dago du-da haundirik.

Baina hori bezain egia da ere, berezko hori, laguntzarik egiten ez bazaio, galdu daitekeela. Galdetu bestela "Urepeleko artzainari". Garaiz hasi ez balitz lantzen, bere horretan hilko zela dio Xalbadorrek, harengan zitekeen dohain hura.

Beraz non dago berezkoaren eta lanezkoaren arteko muga? Ba al da hori dakienik, eta dakikeenik? Gauza bat da jakina: Lanak berea ematen duela.

*Deia, 87-V-30*

## “Iritxi da ordua”

---

**O**TAÑORI bezala, bertsolariei ere iritxi zaie ordua. Korpusti edo Besta Berri aukeratu dute eguna. Egun horretatik aurrera bertsolariek izango dute beren elkarte. Euskal Herriko Bertsolari Elkarte izango du izen erakunde berri honek.

Bertako bazkide, ez dira bertsolariak bakarrik izango. “Bertsolarien Lagunak” izenpean bilduko diren, edo daitezkeen, beste askorentzat ere izango da lekua. Nahi duen guztiak izango du hor sarrera.

Bidezkoa denez, denek ez dute beti eskubide berdina izango gauzak erabakitzerakoan; baina bazkide guztiak izango dituzte beren eskubideak. Ez da kuota bat pagatzeko eginkizuna bakarrik izango.

Eta zertarako dute bertsolariek elkarte bat? galde dezakezu zuk, irakurle; orain arte ez bait dute sekulan horrelakorik izan. Erantzuna, asmotan ditudzen helburuetan agertzen zaigu garbi. Hona hemen berak, “Erizpide nagusiak” deitu txostenean zehazki izendaturik:

- Bertsolaritza herritarrei ezagutzera ematea.
- Bertsolaritza indartzeko izango diren ekintzak antolatzea: bertso saioak, hitzaldiak, txapelketak...
- Bertso eskolak bultzatzea, koordinatzea, beharrezko duten laguntza ematen ahalegintzea.
- Bertso eskoletarako irakasleak prestatzea.
- Gai-jartzaileen lana eta aurkezleena zaintzea.



- Txapelketa Nagusia antolatu eta gainerakoak koordinatu.
- Euskararen alde lanean ari diren erakundeekin harremanak izatea.
- Bertsoak eta bertsolaritzari buruz lantzen den ahalik eta material gehien argitara ematea”.

Horra hor asmoak banan-banan izendatuak. Ez dira bakarrak, ez guztiak. Horiek nagusienak dira. Bada eskuak bete eginkizun horiekin bakarrik ere.

Horri guztiari eman nahi dio aurpegi, datorren ostegunez eraiki nahi den elkarte berri horrek.

Dudarik gabe egun seinalatu bat izango da Korpus Kristi egun hori Bertsolaritzaren historian.

Nere aholku beharrik ez dute; baina beharko balute, zera esango nieke nik: Patxara-patxaran hasteko lanean, gauzak ahal den ondoen eginez, eta egiten den lanak lortaraziko dituela ezarri dituzten helburuak, eta sortaraziko berriak.

*Deia, 87-VI-13*

## “Ari du eta badator”

---

**I**ZENBURU horixe bururatu zait gaurkorako, oste-  
guneko EGUNA aldizkaria irakurri eta gero. “Ari  
du eta badator” hori, guztiok dakigunez, harako  
morroi alper harena da. Nagusiak bialdu du, siesta-  
tik jeiki ondoren, zer eguraldi dagoen begiratzera  
atarira, eta erantzun horrekin itzultzen zaio mo-  
rroia. Ari duela, eta gainera, badatorrela euria. Hala  
bazen ez bazen, artajorrarako gogo haundirik ez  
zeukanaren susmo txarra hartua diogu guk, delako  
morroi hari

Sail honetan gure lumetan erabili ohi dugun  
jendeak ere badu delako metereologoaren izen txar  
hori. Izan du behintzat! Eta ez nik emana. Badirudi  
oraingoek beren buruak zerbait garbitu dituztela  
erru horretatik. Patxi Etxeberriak ere “langillia naiz  
eta/ez esan gezurrik” kantatu zigun 1.980ko txapel-  
ketan. Bertsoarako horrela hobe baldin bada, on-  
do; baina hala ez bada, ez dugu ezer irabazi bertso-  
lariak lanean jarriarekin, besteontzat ere lanik ez  
dagoen garai honetan.

Baina esanak esan eta izanak izan, langilez  
dauzkat gaur bertsolariak aipatu beharra, ez alpe-  
rrez. Lehendik hor ari zaigu zenbat bertsolari luma  
dantzatzen. Eta ondo dantzatu ere. Eta orain berri  
bat datorkigu. Orrialde oso batekin gainera. “Ber-  
tsoen bidean oinak urratuz” eman dio izen gure  
Eguskitze bertsolariak, berak bakarrik osatu duen  
orrialdeari. Ez zaio, nonbait, bukatu berria duen  
soldaduskan alpergurarik sartu.

Egia esan, ez du berak bakarrik bete papera. Sartu du leku dexente beharreko aurpegi ederrik ere. "Izarraizpeko bertsolari kasta" badakigu denek bertsolariz ondo dagoela, baina guritasunez ere ez dago gaizki. Ez daukate inorako lotsarik hiru horiek.

Ez zaio orrialde aldrebesa atera gure bertsolari gazteari. Hasteko, primeran idatzia dago. Hori ez da harrigarri. Bertsolariek, denek idazten dute ongi. Hitzaren egokitasuna berena dute, eta idazten hasitakoan, ongi egingo zutela, uste izatekoa zen. Eta Eguskitzek ere bai.

Izatekotan, beteegia dago orrialde hori. Hobe zen, nere gustorako, hiru aurpegi horiek erakusteko partez, batberarena hiru aldiz agertu balitz, eta hiruren berri emateko partez, batena bakarrik eman izan balitzaigu. Zerbait izatekotan, orrialde xare-xare bat izan behar du bertsoari eta bertsolaritzari eskaini nahi zaion honek. Ikasiko du bai, ibilian-ibilian, gure azpeitiar honek gauzak kurioso egiten. Ez da ikasle aldrebesa!

*Deia, 87-VI-27*

## Bertsolari baten prosa

---

**E**z dakit erdarazko hitz hori erabili behar nukeen, edo hizketa laua, edo hizketa laxoa, edo hizketa askatua esan behar nukeen, bertsozkoa ez den idazketa esateko. Dena den, esana dago zer adierazi nahi dutan delako prosa horrekin: hizketa batek berezko ez dituen neurrien derriorrik gabe idaztea. Hori da prosa.

Bertsolariez ari garela, nekez etortzen da hitz laxoa burura. Nik “zein da Lasarte” galdetzen badut gure herrian, inori ez zaio burura etortzen prosarik. Bertsoa gogoratzen zaio, nahiz jakin aspalditxo honetan hitz lauz ere ari dela egunkarietan gure leizarra. Eta lehengo asteazkenekoan ere bazetorren bat Lasarterena, “Periko eroa” izenburuarekin.

Ez zen beste egunetakoak ez bezalakoa egun horretako Lasarterena. Baina neri horrek gogora erazi dit, orain arte bururatu ez zitzaidan zerbait. Bai al dakizu zer, edo zein, irakurle?

Orixe; eta beraren prosa gogora erazi dizkit.

Lasarte bertsolariaren hizketa laxo hau, horixe da hain zuzen: hizketa bat. Horrelaxe jarduten dugu elkarrekin hizketan ari garenean. Esaldi batetik besterako lokerak horrela egin ohi ditugu. Aditz-jateak eta abar ere, berriz, tankera horrelakoxeak izan ohi dira. Behin esan, idazketa hori, hizketa bat da oso-osorik.

Eta zer ikusteko du horrek Orixerekin? Kidetarena du horrek Orixerekin, honen estiloa ere horre-

lakoxea bait da. Zein duela uste duzu bada bere berezitasuna orexarrak? Eta zergatik hasi dela uste duzu euskara, dioten bezala, “doinu berriz” mintzatzzen Orixez geroztik? Gure orexarraren idazkera beste inorena baino hurbilago dagoelako hitzegiteko modutik. Ez da ezagutu Orixe bezalakorik euskara hitzegina paperera eramaten.

Eta jakina zegoen, bertsolari ez-eskolatu batek, hitz laxoz idazten hasiz geroz, Orixeren antza behar zuela. Hizketa modutik hurbil beharko zuela beraren idazketak. Herria bera izan bait du bertsolari horrek bere eskola bakarra. Eta kasu honetan, elkarrengandik oso hurbil eskolatuak direnez Lasarte eta Orixe, Leitzan bat eta Uhitzin bestea, ez da misterio elkarren antza izatea.

Gure artean bada eredu bila dabilenik gure euskara idatziarentzat. Ez omen daukagu oraindik, denontzat eta egungo egunerako egokia daitekeen prosa-eredurik. Eta Orixeren izena eman du norbait. Hura izan omen daiteke behar genukeen maisua.

Nik ez dakit hori horrela den, edo daitekeen. Baina hala bada, Lasartek ere baduela zer erakutsia bai. Euskaraz nola idatzi behar dugun ere, azkenean, bertsolariak erakutsi behar ote digute?

*Deia, 87-VII-4*

## Zazpiak eta bat

---

**B**IZKAIKO Bertsolari Txapelketa delakoaren sareak, zazpirak eta bat bildu ditu finalerako. “Zazpi ez baina sei dituk, motel”. “Konforme; baina utz dezagun zazpitan”. Besteak, han-hemenka, bidean galdu zaizkio.

Zazpikote horrek ez zezakeen inor harri. Hor ez dago sorpresarik. Denak bertsolari eginak eta berdinak dira. Eta txapelketa batetan luzitzeko, nahitezko baldintzak dira horiek. Txapelketa, txapelketa da beti. Epaimahaiaren bahea ibiltzen da holakoetan eta han legezkoa dena bakarrik pasatzen da. Bazterrean gelditu direnetan badela bertsolari ederrik? Jakina badela! Baina berdinenak hor daudela esango nuke nik.

Sorpresa izan den bakarra, Haritz Lopategi izan da. Hori da, eskolako gaztetxoaren artetik hasita, helduen pareraino iritsi den bakarra, kidekoak eta helduxeagoak ere atzean utzita. Eta bere merituz iritsi ere. Zekarren izenaren beharrik ez du izan batere. Esan ohi den bezala, hor bai dela egia “kastatik kondea” delako hura; baina ez izena jasotzeko bakarrik, izana ekartzeko baizik.

Nik finalbigarrenge batean entzun nion bakarrik. Eta han, gaietan ere, ez zuen aparteko bentajarik izan. Desbentajaren bat izatekotan ere. Zakar edo zabor-ontzian lokartuta mozkorra pasatzen egote hura, ez dut uste inspiratzeko izugarritzko egoera denik. Eta ongi eraman zuen bere saila. Ederki de-

fenditu zen. Beraz, izena ez-ezik, beste zerbait ere badakar etxetik Jon Lopategiren semeak.

Eta orain, bai bata eta bai bestea, Arriaga antzokian izango dira. Bihar, alegia. Beste seirekin batera joko dituzte jotzekoak txapela etxeratzen. Bietakoren batek bururainotuko balu, nahiz bataren nahiz bestearen kaskoan etxera joan, izenari zor lekioken zerbait besterik ez da izango.

Ez da giro makala izango bihar goizez Arriaga aldean. Kabitu ezina izan daiteke jendearentzat. Eta hori lastima da. Baina bertsolariak beste inon baino gustorago ariko dira antzokian. Eta horrek ere balio du berea. Ea erremate eder bat ematen dioten Bizkaiko bertsolariek beren txapelketari.

*Deia, 87-XII-19*

## “Gehiegi bezala”

---

**I**ZENIK ez dut esango, baina haundia dela bai, esango dut, neri lehengo asteartean honelatsu mintzatu zitzaidan bertsolaria: “Oraintxe bazegok bertsoa nori entzuna irratietan. Gehiegi bezala”. Eta irrati bakoitzak zenbat eta zein ordutan eta abar ematen zuen esaten aritu zitzaidan.

“Gehiegi bezala” delako horrek harritu ninduen. Txokatu egin zitzaidan horrelako bertsolari batek hori esatea. Txokatuko ez zaizu bada? Ez al gara denok esan eta esan ari gure gauzek leku gehiago behar dutela gure komunikabideetan? Horra hor lekua eman. Eta orain gehiegitxo ote den? Nola da hori? Egia esan, gehiegia, edozertan da txarra, eta gauzarik hoberena ere txar bihurtzen du gehiegiak.

Hementxe daukat mahai gainean **Jakin** aldizkariaren inkesta bat bertsolaritzaz. Erantzuten ere hasia nago. Eta komunikabideen kontua ateratzen duen puntuari erantzuterakoan, honela hasten naiz: “Horixe da nik nere buruari askotan egiten diodan galdera. Eta ez dakit erantzuten”. Horrek esan nahi du, nik ez dakidala nola baliatu beharko lutekeen komunikabideek bertsoa emateko.

Eman behar dela badakigu. Ematen dela ere badakigu. Baina aparteko arrakastarik ez dutela dirudi emanaldi horiek. Izan da saioaren bat sekulako grazia egin duena. Hori horrela da. Eta besteak? Zenbaitek ez al du entzulea okitu bezala egin?



“Gehiegi bezala” hori ez al da horrelako zerbaiten adierazpen?

Zer eman eta nola eman, oraindik ikusteke daukagun zerbait da. Aztertu gabe daukagu gauza hori. Eta aztertu beharrekoa da.

Ematea ondo dago. Eta era hoberik asmatzen ez den bitartean segi dezatela orain arte bezala ematen. Batez baino gehiago da. Baina emanaldi horiek erakargarriago nola egin da ikusi behar dena, inoiz nahikorik izan ez dadin, eta “gehiegirik” gutxiago.

Orain artekoa egin dutenei txaloak zor zaizkie. Baina betoz hobeki egiten erakus dezaketenak. Etorriko dira “berriak”.

*Deia, 1987*

## Bertso bat

---

**M**AIZ, nahi haina aldiz ez bada ere, bildu ohi gara Abel Muniategi eta biok. Bertsoa izaten dugu beti aitzaki. Duela egun batzuk ere hala genuen. Bilera horietan, behin eta berriz aipatu eta kontatu eta kantatu izan didan bertso baten berri ematera nator gaur.

Delako bertso horrek badu bere adina. 1964 a da urtea. Eguna, oso deskuidatuta ez banaiz, otsailaren hamazazpia. Goizaldeko txiki horietakoa, berriz, ordua. Orain ikusiko dugu nola eta non jaio zen delako bertso hori ordu arraro horietan.

Bizkaiko Derioko seminarioan zeuden garai hartan Abel eta beraren lagun bertsozale eta bertso-laria. Eta ordu horietan, ametsetan aritzeko partez, bertsoan aritzeko aitzakia, “adoración nocturna” delakoa zuten. Gau osoan irauten zuen, eta duen, eliz-ospakizun bat zen hori. Apaizgaiek, txandatur, Jauna gurtzen pasatzen genuen gaua. Hori zela-eta zebilen gure bikotea ere ohetik kanpora hilabete gogor horretan eta gauezko ordu ez bigunago horietan. Eta noiz-nola-nonak esan ditugun ezkerro, esan dezagun zein den lerro hauen barrenean ikusiko duzun bertso honen gaia.

“Izena ere Iru dau eta” hasten da bertsoa. Joxe Mari Iruretagoiena zen abizen laburtuz deitzen zuten jaun hori, Zarauzko semea, apaiza, Derioko erretore. Zarauztar honek, “iru atzamar (behatz)” bakarrik zituen eskuetako batean. Gerrakoan edo

galduak zituen txikia eta nagia eskuaren zati batekin batera. Eta Bizkaian “irugarrentzat” zuten “elejitu”.

Gotzai jauna, noski, aurrena. Haren ordezkoa hurrena eta seminarioko erretorea irugarrena. “Orra or bada iru iruko gizon batengan ornitu” bertsoak dioen bezala.

“Irukeria” horren ondorioz, beste hiruko bat asmatzen dio bertsolariak delako jaun horri. Ikus, eta gogo baduzu ikas, Xabier Amurizaren bertsoa. Bihoakie gure esker ona “lertau” jaunari –lertau esaten zuen Gazteluko aiton batek abokatu esateko– eta etxanotarrari, apaizgai ohiak biak.

Izena ere Iru dau eta  
iru atzamar gelditu,  
eta Bizkaian irugarrentzat  
bera dabe elejitu.  
Orra or bada iru iruko  
gizon batengan ornitu.  
Milagro ez bada arrautzak ere  
orrek irukotzak ditu!!!

*Deia, 1987*

# Eskola

---

**H**ASIA dugu, edo hasten, 1987-88 eskolaldia. Mila modutako ikasketa berriak padezituko eta gozatuko dituzte gure haurrek eta gaxte-gazteek ekinaldi honetan ere. Zenbat oroitzapen ez du ekartzten eskola hitzak gure buru-bihotzetara! Bada atseginik eta bada bestelakorik. Eskolan urte batzuk egin izan dituen edozeinek, oraindaino izen hori eman zaion zera hori, nolana hikoia eta noiznahikoia den, ezagutzen duela osoan eskola esan daiteke. Ez da mila diferentziarik izan eskola batetik bestera gure artean. Eskola beti eskola izan da.

Orain bada ordea bat, gutako inork ezagutu ez duena. "Bertsolari eskola" deritza. Eskola askoren barnean dagoena da, eta gutako inor ez da ibili eskola horretan. Harrapatu izan bagenu...

Horietan dabilzanek, eta dabilzakeenek, oroitzapen txarririk ez dezaketela izan esango nuke nik. Nola bada? Beren gustora joan, gustoko zereginetan ihardun, gustoko maisua izan, eta hala ere oroitzapen gaziak? Hori ezinezkoa da. Kontraesan bat dirudi. Gustoko lekuan ez da aldaparik. Horiek ez dezakete eskolarentzat kejarik izan. Hori uste dugu, edo dukegu, behintzat guk, gure gogoz kontrako hainbat eta hainbat ibilera egin behar izan dugunok.

Gustoko lekuan aldaparik ez dela badio ere esaerak, galde iezaiozu bere gogoz dabilen edozeini nekerik sumatzen duen bere ihardun horretan. Iku-

siko duzu zer erantzungo dizun. Gogoak ez du lanaren eta ahaleginaren beharrik ukatzen. Gogoz bakarrik ez da inora iristen. Saiatu ere egin behar da, eta askotan, gogoz kontra ihardun behar du gustatuko litzaiokeen zerbait eskuratu nahi duenak. “Non nere gogoa, han nere zangoa” hura, dantzari parranderoen kontua besterik ez da. Gogoak ez du aldaparik kentzen. Izatekotan ere, gainditzeko indarra eman dezake, dena dela gustoko den honi.

Beraz gusto guztizko eskola horietan badaitezke ordu ilunak eta ordu minak? Jakina! Hor ere itoaldiak eta etsialdiak sor daitezke. Hala ere afizioak eman dezake indar, ezin guztiak gainditzeko. Hori opa diegu ikasle horiei. Afizioz gaindi ditzatela bidean aurki ditzaketan aldapa guztiak.

*Deia, 1987*

1988

## Omenaldiak

---

**B**ERTSOLARI Eguna badator. Gainean dugu. Bihar hamabost izango da. Hori du Bertsolaritzak bere festa nagusia. Baina ez du bakarra. Lehengo igandea ere bertsolari egunaren moduko bat izana dugu.

Bi omenaldi izan genituen egun berean eta elkarren pare-parean. Bi bertsolari haundi omendu ziren Euskal Herriko bi ez-edozein herritan. Lapurdiko Sarak loreztatu zuen bat eta Gipuzkoako Tolosak bestea. Izena baino zerbait gehiago badira euskal-kulturan **Gero** famatuaren sorlekua eta Lizardi zenaren “txokondo mina”, Orixek esaten duen bezala. Eta bi herri horietan omendu zituzten abendua-ren hogeitazazpian bi bertsolari haundi.

Haundiak ote gero! Badira esan hutsarekin zutik gelditzen diren izenak. Eta ba ote bertsolaritzan Basarri eta Azpillaga baino zutikago gelditzen den askorik? Haundiak dira gizonak, bai kiloz eta bai bertsolariz, eta haundiak dituzte izenak.

Ni Saran izan nintzen eta hangoa esan dezaket. Ez zioten nolana hiko harrera egin Basarri jaunari. Gogoan eta bihotzean zeukaten han gure errezildarra. Gerrakoan hango neskatxak “karesatzen” eza-gutu zuten errezildarra buru zurituri agertu bazitzairen ere lehengo igandean, ez zeukaten ahaztua. Han gogorarazi zizkioten gaztetako kontuak. Klarita delakoari jarritako bertsoak paperetan zabaldu zituzten eta kantatu ere bai, aspaldi hartan bezalaxe.

Hura giroaren goxoa eta ederra! Hantxe bai ez zirudiela tartean mugarik geneukanik!

Batere ez dakit, baina hausnar-gai goxorik ekarria duela uste dut lehengo horretan Saratik Zarauzko txokora Basarri jaunak.

Tolosan ere badakit gozo ibiliak direla. Ez da harritzekoa, izan ere, gozo ibiltzea, beste inun bada eta, Azpillagaren ondoan. Bertsolariek dakite hori beste inork baino hobeki. Zenbat egun eder eman dien gure Jon haundiak bertsolari lagunei eta herri bertsozaleari. Bere urtea ederki burutu du Tolosako horrekin. Berriz ere izan dezagula Apillagaren urte bat ezagutzeko grazia bertsozaleok.

Zeinen hasera ederra, bertsolarien egun haundi hori girotzeko! Tolosakoa eta Sarakoa itzaltzerako, hemen dugu bestea. Hemen dugu eguna. Donostia zai dagoke eta ez da bakarrik izango. Bilduko zaio lagunik Joxe Salaberriak estrainatu zuen Bertsolari Eguna esaten zaion horri. Bego horretan gaurkoz. Izango dugu, Jainkoa Lagun, seriooki aitatzeko aukerarik.

*Deia, 88-I-2*



## Bertsorik behar bada...

---

“**F**ESTARIK behar bada...”, Donostia omen da lekua. “Bertsorik behar bada” ere, hala izango da igande honetan. Hor izango dira, esateko, bertsolari denak, eta ez dira isilik egotekotan etorriko Gipuzkoako hiriburura.

Hamaiketan daukate berentzat ordua jarria Astorian. Beren gain hartzen dute egun horretan antolaketa guztia, eta lan horiek besteren gain izan ohi direnetan baino puntualago etorri ere etorriko dira. Hamaikaterdiak bitarteko orduerdi horretan egingo dute jaialdiaren tajuketa, jendearen aurrera atera aurretik.

Eta hor aterako dira, omenduak eta omentzai-leak, beren jatortasun osoan. Ez da batere itxurarik izango. Dena berezkoa izango da. Apain bai, aterako dira, emaztedunak batez ere; baina mozorroturik ez, ez dira aterako.

Espantu haundirik ere ez da izango. Ispiluaren aurrean entseatutako seinurik eta keinurik ez dute ekarriko omenduek, ez besteek. Antzesle mozorrotuak gustatzen zaizkiona ez dadila etorri Astoriara. Harentzat ez da ezer izango.

Hor, gure herri honen abots berezi bat entzuten dakienarentzat izango da aukera bihar. Astoriara datorrena ez daiteke etorri inongo eskolak sortu duen estetikaren zurrean. Etxeak berak eta herriak berak sortu dituen artistak dira izatekoak Donostian. Lizardiko gibelurdina eta pagadiko onddo bel-

txa maite dituenak aurkituko dio grazia Astoriakoari. Hari gertatuko zaizkio perretxiku horiek bezain xalo eta xume eta liluragarri antzokiko aktoreak, direla omenduak, direla omentzaileak.

Xalbador eta Bautista dira aurtengo protagonistak. Nafarroako herrixka batetako bi anaia erne, bertsotarako sena noizpait sentitu eta landu dutenak beren ahalmenaren eta aukeren arabera. Horien inguruan egingo da bilera bihar.

Ez omen zuten espero horrelako egunik. Ezta burutik pasa ere, noski. Bertsolarien familian, ordea, ez da inor sobratu izan oraindainokoa, eta horiei ere berena aitortu egiten zaie. Egun horren ederra osasunez gozatzeko grazia eman diezaiela gure Jainkoak Xalbadorri eta Bautistari.

*Deia, 88-I-16*

# Salatu gaituzte

---

**S**ALATU gaituzte bertsolariok. Ni bertsolari ez naizela badaki edozeinek, baina mundu guztiak tarte horretan ikusten nauenez gero beti, ni ere tarteriko egiten naiz nolabait. Beraz barnean gelditzen naiz.

Salatu gaituzte. Lehengo igandekoa dela-eta aipatuak eta kritikatuak izan gara. Erdi-ahopean eta klarki, bietara jo gaitu lumaren miztoak.

Bikote nafarra genduen omendua lehengo horretan, eta behin eta berriz Nafarroaren auzi mingarria erabilia izan zen bertsolarien ahotan. Baitetsia izan zen nafarrekin dugun batasun izatezkoa, eta gaitzetsia anaia horiekin daukagun eten legezkoa.

Hori bakarrik izan balitz igandekoa, ez zuen seguruenik inork salaketabiderik aurkituko. Ez zen ordea hori bakarrik izan. Gauza gehiago eta astunagoak ere esan ziren igandean. "Traiziozko paktoak" eta ere agertu ziren. Hori eta beste zenbait gauza ez-bidezkozat jo dira eta horretatik sortu dira kritikak.

Ni konforme nago kritika horiekin. Eta norbaitzuk aurpegira botatzen badidate ere "hik gauza onak bakarrik esaten dituk bertsolaritza kontuan", orain baino lehen modu horretako kritikak egina naiz neu ere, bai zuzenka eta bai zeharka, nahiz hitzez eta nahiz idatziz. Baina oraingo honetan besteren kritikak onartzuz egiten dut neurea.

Bertolariak ez dezake ahaztu non eta norentzat ari den kantari. Eta ez du uste izan behar, garai ba-

tean gerta zitekeen bezala, publiko berdina daukanik aurrean. Aspaldi sakabanatu ginen, noizpait bat omen ginenok.

Eta inoiz, lagunak norbera ezusteko zulora eramanez, zerbait esan beharrez, edozer gauza esatea barkagarri izan daiteke; baina presak eta ezustekoak behartu gabe ari denean, neurritz eta gizalegez ari beharra dago.

Horregatik, igandekoarengatik egin zaigun kritika, onartzen dut nik ere. Ea ikasten dugun esan beharrak behar bezala esaten. Esanak jarrai beza libre, baina esan behar dena esateko.

*Deia, 88-I-23*

## Bertso haundia

---

**B**ADIRUDI joera berri bat hasia dela bapateko bertsotan. Zenbait bertsolarik bertso haundia botatzeari ekin diola esango nuke. Eta haundia esatean, puntu asko eta luzeak dituen esan nahi da. Era guztietako kantitatez, beraz, haundia.

Oraintsu arte Mitxelena genuen bertso lotsagarri -izugarrizko alea, alegia- horietakoak erabili ohi zituen bakarra. Hari entzun ohi genion, jaialdiren baten bukaeran edo, horrelako bertso itzelen bat. Harek ere ez ordea sekula txapelketa nahiz jaialdi batetako ihardunean. Bukaeran baizik, eta ez beti. Gaurko moda, ordea, bestela da. Txapelketaren barnean ere sumatzen dira bertso handi horietakoak. Garai batean hamarreko haundia izaten genuen silabetan haundiena. Hori bi halako duenik bada orain. Bertso lotsagarriak dira horiek.

Puntu askotako bertsoa eta bertso haundia ez dira berdin. Puntu askotako bertso bat izan daiteke gutxiagoko beste bat baino txikiagoa silaben kantitatez. "Betroi bati" izeneko haiek bederatzina puntu dute, baina ez dira haundiak. Hamarreko haundiak baino silaba gutxiago dute. Puntu asko eta silaba asko duenari esaten diogu hemen bertso haundia.

Jakitekoa izango litzateke mesedetan ala kaltetan duen bertsoak joera berri hau. Neri behintzat zalantzaren bat sortu dit. Esango dut zergatik.

Tamaina horretako bertso batetan maizegi eteten ote den iruditzen zait bertsoaren barne-lokera

edo pentsamenduen elkarrekiko logika. Puntu asko-  
txo gelditzen ote diren, bat alde batetara eta bestea  
beste alde batetara begira. Lau puntuko bertso ba-  
tean ere, puntu bat noranahi begira gelditzeak, ez  
du ondoegi ematen; baina lehen puntua eta lauga-  
rrena ez daude elkarrengandik hain urrun, eta be-  
rehalaxe egiten duzu bi punten korapiloa; beste ho-  
rretan ahaztu egiten zaizu nondik hasi den eta non-  
dik ibili. Bukatu dela dakizu bakarrik. Oso zail da  
bertsoa biltzen.

Beraz trinkotasuna eta osotasuna eta laisterta-  
suna galtzen ote dituen iruditzen zait. Eta baldintza  
horiek kenduz gero, bertsoaren grazia ere galduxa  
dela esango nuke.

*Deia, 88-I-30*

## Estratosfera

---

**E**STRATOSFERAN ibiltzeko ohiturarik ez nuela uste nuen nik bertso eta betsolari kontuetan. Eta hori jakin behar zuelakoan nengoen, ni hain urrun bidali izan nauen jaunak. Eta jakin zezakeen, baldin eta irakurri izan balitu nik idatzi izan ditudanak, egunkari horretan esan diren zenbait gauzen harira.

Bazekikeela esan zitekeen nolako exenplu konkretu eta zeatzez, argi eta garbiz, definitu nuen nik bertsolari klasikoa. Ez nuela nik alde-aldeko kalifikatibo haundirik erabili txapel berri bat ipintzeko. Ez nintzela mundu metafisikoaren estratosferara joan gauzak argitzeko.

Jakin zezakeen, baita ere, konkretuki eta zehazki erantzun izan dudala jendearen aurrean bertan ere, irudimenezko gogoeta baten fruitu zen txosten bat aurrean jarri zitzaidanean. Ez nintzen abstrazioekin ibili. Esquarekin helduta neukan gaia. Erantzunik ez du izan konkreturik galdera harek.

Irratiz edo beste nolabait gauza jakin-jakinak galdetu zaizkidanean ere, eskatu bezalako erantzunak eman izan ditut. Ez dut ihes egin estratosferara. Hori jakin behar zukeen ni hain urrun bidali nahi izan nauenak.

Baina hain pertsonaia miresgarria dugun bertsolariaren giza-tipologiaz galdetzea estratosferan ibiltzea bada, bego.

Jakin beza, ordea, ez naizela bakarra, makrokultur-mundu honetan bertsolaritzaren kokaguneaz eta etorkizunaz galdetzen eta kezkatzen. Duela gutxi, **Argia** aldizkarian Mikel Mendizabalen bertso batzuk irakurri nituen. "Bertsolaritzak gerorik bai" zuten izena. Ez naiz estratosferatar bakarra. Badut laguna.

Eta bukatzeko, hitz bat oraindik jautilari horri. Entzule bezain ikusle izan baldin banu, balekike zenbat aldiz ukatu zitzaidan eskatu nuen hitza, eta jakin beza, ez zela topikoen esferan ibiltzeko eskatua izan. Elkarrizketa exenpluen zorura jaitsi arazteko zela. Baneuzkala bat eta bi eta hamar baino gehiago buruan eta paperetan. Hara zer galdu duen lehengoan nere entzule kritikoak, neri hitzik eman ez zitzaidalako. Hala ere, akaso, estratosferara bidaliko ninduen jaun horrek; baina hala ere kostako zaio bertsoarena ez den orbita batetan ikustea ni, beste batzuk ikus daitezkeen bezala.

*Deia, 88-II-28*



## Lizardi eta Txirrita

---

**A**ITZOL haundia batarengandik bestearengana joan zen. Aurrenetan Lizardi zuen dena. Olerkarien elitea, alegia. Harek salbatu behar zuen gure herria. Hurrena Txirrita zuen dena. Betsolariak, alegia. Bertsolaritza zela uste zuen gure kultur-pizkundearen oinarri izan zitekeen harri bitxia. Eta Bertsolari-Egunak antolatzen hasi zen.

Ez da Aitzol bakarra tankera horretako txangoa egin izan duena gure artean. Bada hor oraintsu arte bertsolaritza atzerakoitzat izan duenik eta gaur punta-puntan dabilenik bertsoaren inguruan. Beraz ez da Ezkurratik atera lehenengo kondena. Etxegaraik izan du tarte horretan jarraitzailerik. Eta Aitzolek ere bai.

Baina ez dut uste gurea bakarrik denik ibilera hori. Julio Caro Baroja jaunari irakurria diot nonbait, non ez dakit, herriarekin berarekin ere halamoduzko jokabidea izan izandu duela zenbaitek. Guztia zen holakoarentzat herria. Basa-zaborra zen halakorentzat. "Jainkoaren hitza" da herriarena zion batak. Biraoa zen bestearentzat. Horrelako alderorik ezagutu omen da historian zehar herriaren baloraketan Caro Barojak zioenez. Ez gara beraz bakarrak haruntz-honuntzetan.

Ez du arrazoirik eskolatuak, zein eta Aitzol den bera, gure kulturgintzaren oinarri bakarra bertsolaritza dela uste duenean. Ez eta ez du arrazoirik eskolatuak, zein eta Perurena den bera, "bertsolari-

tzak ez dit iada balio” dioenean. Lizardi nahitezkoa dugula esan behar zaio batari, eta Txirritaren ordezkorik ez duela unibertsitateak aterako esan behar zaio besteari. Ez zaio hernaniarrari “Xabierto-ren eriotza” bezalakorik jaioko gazta zaharrarekin eta pitxarra erdi bat ardorekin meriendatuta gero; baina harek bezala, algaraz eta txaloka, ez ditu milaka lagun jarriko, bapateko eta ezusteko bertso haundi-  
ren baten ederrez zarauztarrak.

Zertan hizkatu behar dugu zein dugun beharrrago eta zein hobe? Zertan baztertu behar dugu bestea bataren hautuz? Zertan egin hau edo hori? Zertan ez hau eta hori? Bata eta bestea? Nik biak behar ditut, eta biak balio didate. Ez zaizkit elkarren etsai Lizardi eta Txirrita.

*Deia, 88-III-20*

## Gaia bukatu

---

**B**akarka erabiltzeko gaiak eman ohi zaizkie bertsolariei, bai txapelketetan eta bai noiznahiko jaialdietan. Eta askotan, gai haundiak. Nafarroako finalean ere eman zitzairen. Eta gai ederra gainera. Guztiz egokia. Besteak ere hala izan zirela esango nuke nik, orduan ere behin eta berriz esan arazi zidaten bezala. Horretan ez zuen aitzakirik izan lehengo igandekoak.

Norberak bakarka heldu beharreko gai honetan, bertso bakoitza aintzat hartu behar da, jakina; baina sorta osoa ere hartu behar litzatekeela esango nuke nik. Garai batean sortari ere nota jarri ohi zion mahaiak, bertsoei bakoizka zegokienetaz aparte. Eta osoari dagokionez, besteak beste, biribiltasuna dela iruditzen zait neri eskertu eta baloratu beharreko gauza bat. Ongi hastea ongi dago. Ongi zabaltea ere bai. Baina ez da aski. Bukatu egin behar da gainera ongi. Eta ongi bukatzea, bukatzea da. Ixtea. Errematatzea. Kurpila osoa egitea.

Bada hor, 1967ko txapelketan edo, Xalbadorren saio bat, nik esan nahi nukeen hau adierazteko primerakoa. Gaia "salatzailea" da. Horrelaxe hitz bakar batez emana. Hiru ditu kantatu beharreko bertsoak. Lekuz urri bait nabil, bertsoen bukaerak bakarrik idatziko ditut hemen, eta buruz.

Hona lehenaren laugarren puntua: "Min gaizto batek salatu omen du / kontrabandan nandailala".

Salaketa zela begenekien; baina ez zer salaketa zen. Orain badakigu. Kontrabandoa egitearena.

Bigarrenarenak azken bi puntuak jarriko ditut. Hona: "Salatzaile oi lengo batean / bide makurretik zuan; bere burua salbatzeko nau / ni or ezarri putzuan". Horra orain salaketaren arrazoiak ederki adieraziak. Badu logika eta baita psikologia ere arrazoiak horrek. Zeinek ez du ezagutu hainbat eta hainbat gaizkile, bere gaiztakeriak estali ahal izateko, errugabeak salatzen?

Eta ikus orain saioaren errematea: "Orien esanak ez du balio / mundu untako baizikan". Alferrikakoa izan da salatzailearen ahalegina. Ez du lortu nahi zuenik. Zergatik? Gizakiaren izatea bere osotasunean hartuz gero, ez dezakeelako gaiztoak zintzoa gal.

Horra afera edo asuntoa esplikatua hasi eta buka.

*Deia, 88-III-27*

## Gaia bukatu (eta II)

---

“**G**AIA bukatu”, hori zuela uste dut izena lehengo astekoak. Zera esaten nuen han: Bertsolariak, bakarka ari denean, gaia hasten eta zabaltzen ez ezik, biltzen eta biribiltzen jakin behar duela, eta honetan batez ere. Errematatzen, alegia.

Adibidetako, txapelketa batetakoa hartu nuen “Auspoa” liburu sortatik. Xalbadorrena zen. “Salatzailea” gaiarekin egina. Nik bertsoen bukaerak jartzten nituen bakarrik. Eta lagun batek “osoan zergatik ez dituzu jartzten ” esan zidan. Hona hemen osoan:

“Mingain gaiztoak gu ontaratzen  
gaitu edo ala,  
oian mingainak arkitzen baitu  
beti lanpide zabala;  
bazinakiten baserri baten  
prestu zintzo nindagoala,  
min gaizto batek salatu omen du  
kontrabandan nandailala.

Anai-arrebak, gogoan hartu,  
emango dedan bertsoan  
egia zerbait izango baita  
arkitzen naizen kasuan:  
lengo batean salatzaile oi  
bide makurretik zuan,  
bere burua salbatzeko nau  
ni or ezarri putzuan.

Zeruko santu guziak eni  
ari zaizkit errepikan,  
salatze orier sekula santan  
ez eitako kasurikan;  
oiek bota nai izanagatik  
egon gaitezen zutikan,  
oien esanak ez du balio  
mundu ontako baizikan”.

*Deia, 88-IV-3*

# Kanporaketak

---

**T**XAPELKETA Nagusia gainean omen dugu. Datoren urtean omen da. Eta bitarteko bakanketak hasiak dira. Bizkaiak –eta Arabak– egin du bere txapelketa. Nafarroak ere bai berea. Gipuzkoa gelditzen da bakarrik. Bakarrik gelditu eta bakarka ibili nahi?

Hemen ez da txapelketa hotsik. Hemen kanporaketa egingo omen da. Gipuzkoarrei ez ote zaie txapelik gustatzen? Edo eta txapelik-eza ote da gustatzen ez zaiena? Dena dela, gipuzkoarrek ez dute, izenez behintzat, beste senideek egin dutena egin nahi, Txapelketa aurreko hautaketa honetan.

Hala ere, kanporaketak egin edo txapelketak jokatu, besteek egin dutenaren paretsukoa izango da gipuzkoarrek egingo dutena ere. Nahiz batean eta nahiz bestean, batzuk bazterrean geldituko dira eta beste batzuk aurrera segiko dute Gipuzkoan ere Txapelaren bila. Apainduri kontua izan daiteke, beraz, alderik nagusiena haiek egin dutenaren eta hauek egingo dutenaren artean.

Apainduria eta itxura eta izena bakarrik izango dira diferenteak, kanporaketan ere, txapelketetan bezala, bertsolariak hurrenez-hurren lerrokatzen baldin badira, izan dituzten puntuen arabera. Zer inporta dit bada neri, burua txapelpean eduki edo kaskutsik egon, aurrena ni naizela baldin badakit? Eta min gutxiago izango al dut nik, aurrenekoarengandik ez dakit zenbakarren puestoan egonik, ha-

rek txapelik ez daukalako? Hor ez da buruaren tapakia garrantzitsuena. Hor puestoa da balio duena. Eta hori, izen bat ala beste eman egiten den hautaketari, berdina da, baldin eta zein zenbakarren gelditu den jakitekotan eta jakineraztekotan.

Izenez ez-ezik, izanaz ere diferente izan nahi badute ekitaldi horiek, garai bateko ohiturara itzuli beharko da. Hautaketak berdin egin ohi ziren; baina zein zenbakarren gelditu zen, ez zen jakinerazten.

Nik ez dakit hala edo hola behar duen. Eta ez dakit zer komeni den ere. Nik dakidana zera da: izen aldaketak ez duela izan aldaketarik egiten besterik gabe.

*Deia, 88-IV-16*



## Ikuskizun

---

**B**AKAR bakarrik ihardun zuten gure bi bertsolariak ETBko leihotik. Inolako laguntzailerik ez zuten izan, entzulegoaren txaloak salbu. Hala nahi zen eta hala egin zen. Horretarako gai direla bertsolariak erakutsi nahi zen. Saio haundi eta eder bat atera dezatekeela berek bakarrik. Beraz ez dagoela laguntzaile beharrik?

Ez dut uste horrenbeste esan nahi zenik. Laguntzaile izeneko hori askotan oztopo dela dioenak berak ere ez dut uste beti hala dela esan dezakeenik, eta esaten duenik. Nik behintzat horrenbestekorik ez diot entzun izandu inori.

Ez da gezurra, hala ere, gaijartzailearen auziak sortarazi zuela ETBko saio hura. Aurretik bertsolaritaz izan zen “Ezbaian” haretan erabaki zen saio hori egitea. Eta bi bakarrik, eta biak bakarrik izate hori, elkarrizketa haretan gaijartzailearen arazoa agertu zelako izan zen. Han esaten zen, gaijartzailea askotan alperrikakoa dela, eta beste askotan kaltegarria. Eta hori horrela zela demostratzeko, saio haundi eta eder bat laguntzailerik gabe egitea da, noski, frogak hoberena. Hori hor dago. Erakutsi ziguten gauza direla berek bakarrik bertsote on bat egiteko.

Hori ikusia dago beraz. Baina ikuskizun dago oraindik, bertsolari haiek berek, neurri bereko saio batean, leiho hartatik bertatik, gaijartzailearen laguntzarekin zer egin dezaketen. Hori ikusteko dago

oraindik. Eta hori egiten bada, bi alderdi behintzat izango ditu bere alde hurrengo saio horrek. Haue-  
txek: etenak eta bapatekotasuna.

Gaijartzailea tartean sartzeak, eten egingo du bertsoen jarioa. Eta deskantsua emango dio entzuleari eta bertsolariari berari. Eta ez da txarra. Hainbeste denboran, aterrunik gabe, bertsoa entzuten egotea, nekagarri xamarra da. Kosta egiten da atentzioari eustea.

Baina, batez ere, entzuleak hain maite duen bapatekotasuna han izango du. Garrantzizko gauza. Elkar jotzearen eta harrapatzearen hazkura hori kentzen bazaio bertsolarien ihardunari, gauzarik kilikagarrienetako bat kendu zaiola esango nuke bertsoari. Eta hori ikusi ahal izateko, ez da modurik hoberena bertsolariak bakarrik uztea.

Hori egiten den egunean jakin ahal izango dugu gaijartzailearen balioa zertsu izan daitekeen. Bitartean ez. Guztia ez dago beraz egina eta esana oraindik.

*Deia, 88-V-31*

# Poto bana

**Amurizak eta S. Lizasok ETBtik egindako saioaren ondoren**

---

“**P**OTOKOAK ere bana”. Hori esan nuen nik ETB isildu zenean bertsoan. Aurrena Lizasok egin zuen. Errimarik erosoenetako batean ari zen. Eta hala ere poto egin zuen. Ez da aurrenekoa hori gertatzen zaiona.

Xalbadorrek “Odolaren mintzoa” liburuan esaten duen gauza bat gogora erazi zidan poto horrek. Ez omen da beti errimarik zailena edo arraroena izaten zuzen erabiltzeko gaitztoa. Arraroak direlako gutxi omen diren errima horiek, han heldu omen dira denak batera, bertsoak behar dituenen. Ugari horiek, berriz, eta nolana omen daitezkeenak, huts egiten omen dute askotan. Etxeko andre bati gertatzen zaiona, edo dakiokena, jartzen du konparaziorne. Harek ere, urtean behin bakarrik –zerriltzekoan edo– erabili ohi dituen ontziak, urtemuga iristean, lehen kolpean eskuratzen omen ditu. Egunero erabiltzen dituenak, berriz, ezin eskuratuz ibiltzen omen da askotan. Horrelako zerbait gertatu bide zitzaien Lizasori ere, “ahaleginean” bi aldiz sartzeko bertso bereko lau edo bost errimetan.

Amurizak puntuka ari zela egin zuen berea. “Galanta” errepikatu zuen berak hasitako bertso batean. Honena ere nahiko tontoa gertatzen da. Bestek hasitako bertsoan egitea ere; baina norberak hasitakoan? Berdin egin zuten, beraz, pototan.

Beste hutsegitetxoren bat ere izan zen; baina ezer gutxi. Egia esan, aukeratu zuten estrofa moeta

ere, izan zitekeen errexena zen. Hamarreko eta zortziko haundietan, ia-ia geu ere, bertsolari gara. Beste estrofa moeta batzuk dira hor bertso gintza zailtzen dutenak. Horiek erabili zituztenak, estrofarik mendera-errezanak, erosoan eta eskurakoenak dira, edozeinek dakien bezala. Ondo egiteak, horietan ere, bere zailtasunak baditu, jakina; eta asko, izan ere. Ez ordea guztiak. Bada nekosoagorik. Biderik seguruenetik jo zuten. Ez dago gaizki lehen prueba bat egiteko.

Hala ere lanak izango ditu beste bikote batek, hainbeste bertso haundi eta eder kantatzen, etenik gabe, ordu bete batean. Bertsoan ez dago zailtasunik eta arriskurik gabeko molderik.

## Beste galdera bat

---

**G**ALDERA bat izan zen, Lizasok eta Amurizak telebistaz egin zuten saioaren ondorengo elkarriketan, inorentzako ez zena. Ordurarte kantuan aritu zirenak, orduan hitzik ez zuten. Eta norbaitek erantzutekotan, haiek erantzutekoa zen galdera hura. Haiek berriz mutu une hartan. Horra beraz, erbia altxa, eta ehiztaririk ez.

Eta gu jakin-minez. Zenbatsu prestatua ekarri ote zuten, alegia, beren ihardunaldia. Hori zen gure jakinnahia. Eta gusto hori kunplitu gabe gelditu behar izan genuen.

Egia esan, galdera ez da garrantzi haundikoa, non eta hoberena zein izan zen erabaki nahi ez den. Egun hartan, ordea, ez zen hori kontua. Egun hartan, zera jakin nahi zen: ea bi bertsolarik, berek bakarrik, inolako laguntzarik gabe, zertsu eman zezaketen telebistatik. Hori zen ikusi nahi zena, eta hori egina zegoen. Ederki eta haundiki egina gainera. Jakin-mina, ordea, hala ere guk.

Neri, egia esan, bidea alde zurretik zertxobait ebakia ote zeukaten iruditu zitzaidan. Eta besteak beste, Xebaxtianek bere purua piztu zuen une hartan. Segiran Amurizak kantatu zuen bertso hura, buruan buelta bat baino gehiago hartua zela pentsatu nuen. Nik badakit Amuriza zer den, eta zenbatsu den bertsoan. Eta badakit aldameneko "Muxarro" harek nolako aukera eskaini zion kantatu zuena kantatzeko. Hala ere, Xenpelarren "Aiza i,

motell, manontzi” hain eskura hartzeko eta doinu ezberdineko bere bertsoan hala sartzeko, lehendik espero zuen zerbaiti erantzuten ziola pentsatu nuen. Ez zela bapatean moldatua. Amuriza, Amuriza izango da –edo Amuritza, norbaitek beti esaten duen bezala– baina halaxe ere... Eta beste momenturen batetan ere sortu zitzaidan galdera bera. Erantzunik gabeko galdera, ordea. Eta gu jakin-min ez.

Nik beste galdera bat ere badaukat. Han egin ez zena eta nik neure buruari maiz egiten diodana eta saio harekin zer-ikusia duena. Hauxe duzu: zer izan zitekeen ekitaldi hura, bi bertsolariek bakarrik eta inolako laguntzarik eta etenik gabe iharduteko partez, norbaitek “lagunduta ” ari izan balira?

Nere txoko txiki honetan gaur lekurik ez daukadanez gero, Jainkoak ondo banau, hurrengoan erantzungo diot gaur egin dudan galdera horri. Nere honek sortua diezaizukeen jakin-mina ase gabe ez zara geldituko, irakurle.

*Deia, 88-V-21*

## Gaijartzailearen pozak

---

**E**z dakit jendeak badakien, eta bertsolariek ere ez dakit badakiten, gaijartzailea kezkatan ateratzen dela mikrofonora jaialdia gidatzera. Baina horrela da. Hitzegiteko gogo gutxi edukitzen du gaijartzaileak jaialdiaren aurretik. Bertsolariak ere askoz berritsuago izaten dira lanak bukatu eta gero. Eta kezkatu ateratzen dela bezain egia da, bertsolaria bera haina pozten eta pizten dela jaialdi on baten ondorioz. Horrela da hori.

Joan den San Pedro gauean ez ginen haserre bertsolariak eta ni. Antolatzaileak ere gustora ziren. "Horrela denok pozik, zuek eta gu" esan zidan haietako batek. Lehengoan zine aretoa jendez bete zela? Hurrengoan ez da gutxiago izango. Aurtengoak eragingo dio hurrengo urtekoari.

Lehengo honetan bai atera zela erbia nik gutxien uste nuen lekutik. Zenbat ustekabeko! Zeinek esan, lehenengo ariketan, seina-zortzina bertso kantatu behar zizkidatela mikrofonora deiegin nien hiru bertsolariek? Telebistan bezala hasteko esan nion Amurizari, inork zertaz kantatu agindu gabe. Txikia eta Eguskitze zituen lagun. Nola trabatu zirelako hirurak! Hura zen ez-ustekoa! Ez zutela bukatuko. Bai, gustora ihardunak dira. Zenbat eta kolpe haundiagoa jaso aldamenekoarengandik, orduan eta bizkorrago ekiten zioten erantzunari. Bazen harturik eta emanik. Eta ez nuen izan hori sorpresa bakarra.

Nor den gaijartzaileak, jaialdia xeheki prestatua eramaten du, edo behar du behintzat. Eta gehiengtan, aldez aurretik pentsatu eta uste bezala ari arazten ditu bertsolariak. Neri, bederen, horrela gertatzen zait. Lehengo horretan ez nuen pentsatua eta prestatua neukanik eta neukan bezala erabili beharrik izan. Oso gutxitan ekarri dut etxera bueltan horrenbeste gai estrainatu ere egin gabe. Puntuak, launa oinak, neronek bertsoa hasita puntu banakan egin arazten dudan ariketa, denak bere horretan ekarri nituen berriro etxera, hainbeste denbora haiek pentsatzen eta idazten pasa eta gero. Baina pozik hala ere. Eta horretxegatik pozik batez ere, gaijartzailearen premi gutxi izan zuelako jaialdi harek. Berez zeuden heze bertsolariak; ez nuen zuma aterarazi beharrik izan.

Horrelako sorpresak izaten dira gaijartzailearen pozak, eta horiek ematen dute animoa gerorako. Nolabaiteko lan honetan nekatzen eta agortzen ere erraz bait da.

*Deia, 88-VII-2*



## Beti esaten

---

**B**ETI esaten ari naiz, bertsoa mimatu egin behar dela. Ahalik eta kondiziorik hoberenetan ari behar duela bertsolariak, eta egon entzuleak, jaialdiak irabaz dezan. Bi alderdi horiek osatzen dute festa: Bertsolariak eta entzuleak. Eta biak zaindu behar dira.

Lehengo larunbat gauean, egia esan, gustora etorri nintzen Igeldotik. Sei bertsolariak egoki aritu ziren. Helduek sasoi zeukaten eta gazteak ez zeuden amutsak. Ongi atera zen jaiia. Bazen, ordea, hobetu zitekeen detailerik.

Etxebesteneako plaza haretan ez dago exerlekurik. Norbaitzuk inguruko petriletan aurkitu zuten jarraulkia. Beste batzuk hormen kontra kendu zien gerriei lana. Bazen etxeko leihokoskan bere bular gainetan asentatu zenik ere. Ahal zuenak ahal zuena egin zuen eroso egoteko. Besterik ezin denean, zer egingo zaio?

Izan, ordea, besterik! Hori da kontua. Hortxe hogeiren bat bertso izango ziren kantatuak. Gizaseme bat inguratzen zait eta aulkiak jarri behar dituztela esaten dit, eta jendeari adierazteko nik. Gure atzekaldean zeuden aulki horiek, Herriko Etxeko arkupetan, jendea entzuten zegoen lekutik hamarren bat metrotara. Jendeak nolaz ez zituen hartu harritzen naiz. Baina jendea jende, non ziren antolatzaileak ahulki haiek lehenago beren lekuetan jartzeko? Alde ederreko itxura hartu zuen entzulegoak, ber-

tsolarien aurrean exerita jarri zirenean. Txalo ere gehiago egiten zuten.

Ez da harritzekoa. Exerita edo jarrita dagoena, erosoago dago. Bere gorputzaz ahaztu bezala egiten da, eta gustorago entzuten ditu bertsoak, eta eskuak libreago dauzka txaloak jotzeko, eta berezago mugitzen zaizkio. Horregatixe ez dago saloiko egone-  
ra bezalakorik bertsoak entzuteko. Horrela dagoenean hartzen du bertsoak oso-osoa entzulea eta pizten eta bertsolarien lagun eta laguntzaile bihurtzen. Berriz esan, zergatik ez zeuden ahulki haiek saioa hasi baino lehen han jarriak? Ez da inoiz ahaztu behar, festak ongi egiteko, lan ere egin behar duela norbaitek festetan.

Eta entzulea bezalaxe, bertsolaria ere zaindu egin behar bertsoaren mesedetan. Norbaitek egin behar die harrera, eta lekutxoren bat eskaini ere bai, beraiek eta gaijartzailea elkarrekin egon daitezten jaialdiaren aurretik. Nik behintzat nahi izaten dut, nondik hasiko garen, edo gaitezkeen, beraiekin hitzegiteko, eta honelako edo horrelako ariketa egingo dugun edo ez galdetzeko, eta abar. Gero ez da denborarik eta aukerarik izaten.

Zaindu dezagun, beraz, bertsoaren inguru guztia, pitxi horren dizdirak gero eta gehiago lilura gaitzan.

*Deia, 88-VII-9*

## Orexarrak...

---

**O**REXARRAK etorri zaizkit lehengoan, Orixen zena-ren jaiotzako mendeurrena dela-eta. Bertso-paper Lehiaketa bat antolatu behar omen dute. Gauza asko dute egitekoa beren herritarraren omenetan. Eta horietaz gain bertso lehiaketa hau. Datoren irailaren 30a bitartean jaso nahi omen dituzte lanak. Baina hori guztia ikasiko du nahi duenak komunikabideetan.

Nik, ederki pentsatua zegoela esan nien gauza hori. Bertsoa ere sartu behar zela Orixeren omene-tan. Beste inork gutxi bezalako eskerra eman ziola orexarrak bertsoari, eta bertsolaritzaren moldeari.

Orixeren obrarik nagusia, literaturari gagozkiola, "Euskaldunak" poema dela esango nuke nik. Berak " Uitzi-liburu" deitzen duen hori da Orixeren literatur-lanik haundiena, eta hainbesteko lan bati eska dakioken neurrian, ederrena. Eta lan hori, guztiok dakigun bezala, bertsoan egin dago oso-osorik.

Liburu horri egiten dion hitzaurrean, honela esaten dio irakurleari: "Ez-ikasiala balin ba zera, utzi ezazu aurren-berriketa hau, irakurle, ta sar zaite bete-betean bertsoetan; zuk eginak bezala baitira, eta zuretzako eginak, batez ere". Orixeren helburua beraz, bete bazuen ez bazuen, herriaren moldetan herrria kantatzea izan zen. Eta zenbait bertso bere hartan uzteko ere, batere leundu gabe, bertsolaria

du arrazoi. Eta ez edozein. "Pello Mari Otaño" aipatzen du izenez.

Badu besterik Orixek beraren bertsozaletasuna ikusteko. Harek bere Huitzi maitean ikazkinengandik eta laborariengandik jasotako ahozko literatura guztia sartzen du bere "Euskaldunak" liburuan. Herri honen izenean egitekoa bezain eder zaio herri honek eginik daukana, edo ederragoa; eta batez ere, egin beharraren eredu zaio. Hori da hemen garrantzizkoena. "Iragan besta biharamunian" bezalako bertso-lanik ederrez ez zuela ezagutzen ere berari entzun izan genion. Eskolarik eta unibertsitaterik gabeko hizkuntza honetan egina zegoen elederra ez zuen baztertu Orixek. Ederretsi egin zuen, eta erduetsi gainera. Eta berak, bere sorkuntza, alde-aldera, herriak zerabilkien moldera bildu zuen.

Ez naiz hasiko orain esaten zertaraino moldatu zuen bere lana herriaren neurri horietara. Konparaketa-lan hori luzeegia litzateke honerako. Aski dela uste dut esana, Orixeren omenaldian bertsoa bere lekuan dagoela jakiteko.

Bukatzeko, poemaren azken bertsoa ekarriko dut hona. Hala dio:

Bertsolariak oitura baitu  
esaten urtegarrena,  
bertsu-lan oni jakin zer urtez  
eman diodan azkena:  
Kristo jaiorik emeretzireun  
ogei ta amalaugarrena...  
Ederrik badu, Arena du, ta  
txarrik badu, neronena.

*Deia, 88-VII-16*

## Jakinda nago...

---

**J**AKINDA nago, Usurbil alde horretan, moda berriko bertsotea izana dutela aurtengo Santai-sabeletan. Neroni ez nintzen han, eta beraz, ikusita-koaz ez naiteke ari. Entzunaz ari naiz. Badakit gai-jartzailea, edo kasu honetan zirikatzailea, Antton Aranburu zela. Bestetan ere hala izan ohi da herri bertsozale horretan. Bera ere bertsolaria da. Eta ez nolana hiko. Horrek haina txapela etxean duen askorik ez da izango. Udarregiren eskolako behin eta berrizko txapel-duna bera dugu. Badaki, beraz, zertan dabilen eta ari den.

Eta ibili, beste asko bezalaxe, jaialdiak egiteko gure ohizko moldeak berri-itu nahian dabil. Ez da bakarra. Han eta hemen egin izan da ahaleginik gaiak emateko modua berrituzekoan eta bertsolariak ari araztekoan. Diapositibak erabili izan dira. Gaia, hitzez esateko orde, gauzaz beraz ere eman izan da. Mahai baten inguruan bilduak ere ikusi ditugu bertsolariak antzokian, bazkalondoko saio baten tankera eman nahirik jaialdari, eta aren zumu bera atera nahiz saioari. Berrikuntza horiek guztiak ikusiak gaude. Zerbait berria egin nahi denek ere, jaialdiak hobetu eta edertu beharrez.

Izan ere bertso-jaialdiak, txapelketa-saio bat bezala eratzen omen ditugu. 1935 urtetik honera txapelketetan erabiltzen den molde bera omen daukate gure jaialdiek. Txapelketetako ariketa berdin-berdinak eginarazten omen dizkiegu bertsolariei.

Hitz batean, bertsolariak neurtzen bezala omen gabiltza jaialditik jaialdira urte osoan zehar.

Guztia egia ez bada ere, ez dirudi guztia gezurra denik ere. Bada jaialdietan txapelketetan sartu ez den ariketarik, eta sartu ere ez daitekeenik. Baita jaialdietatik txapelketetara pasa denik ere. Gaurko txapelketak eta garai batekoak ez dira berdinak. Eta jaialdiek haiengandik ikasi dutela bezain egia da txapelketek hauengandik ikasi dutela. Hala ere zeinek uka elkarren antza haundia dutela jaialdiek eta txapelketetako ihardunek?

Berdintasun hori puskatu beharrez eta txapelketek berezkoak dituzten sua eta tira nolabait berdindu nahiz eta jaialdien inguruan jendearen burruna haundiagoa sortu nahiz entseatu ohi ditu jendeak modu eta moda berri horiek guztiak. Eta usurbildarrek ere bai. Nola edo hala erakargarritasuna eman nahi jaialdiei.

Bertsolariak elkarri begira jarri omen zituzten tranpaduraren gainean. Denak eserita. Ez ziren zutitzen kantatzeko. Edozeinek erantzun ziezaiokeen edozeini. Ez zegoen hurrentasunik ariketa batetik bestera. Gaijartzaile edo zirikatzaileak ere noiznahi eta nornahiri eskatzen omen zion bertsoa. Horrela egina dute Udarregiren herritarrek aurtengoa.

Nik, kontu horiek entzun ondoren, telebistan ere ez ote litzatekeen entseatu beharko horrelako zerbait esan nion gaijartzaileari. Batak bestearena ikusiz ikasi behar dugu guztiok jaialdi egokiagoak egiten.

*Deia*, 88-VII-23

## “Ezkontzen zaigunaz...”

---

**T**XOMIN Garmendia, “Tontola” ezezinez Tolosalde guztian ezagutzen dena, Berrobin jaio eta bertan bizi dena eta bertako alkate ere badena, gaur ezkontzen da Hernaniko Ereñozun, Txirrita mutilzahar haundiaren sortauzoan, San Antonioren elizan, Antonio Zavala uztargile dela. Pentsa al zitekeen leku eta konpainia hoberik Berrobiko bertsolariarentzat bere egun seinalatu honetarako?

Ez zuen asko uste egun hau iritxiko zenik nik dakidan batek. Txominek izandako istripua ikusi zuen. “Hor ibili denak ez dik kontatuko” esan omen zuen bere kasa. Kontatu, ordea, gure Txominek. Hartu zuen bai ederra. Kosta zitzaion klinikak uztea. Kosta zitzaion mila puska egindako hanka haiek konpontzea eta osatzea. Eta... gaur... ezkondu!!! Duela gutxi telebistan zioenez, bere bizitzari berritu bat ematea pentsatu du. Bejondaiola!

Urte asko da nik Txomin lehenengo aldiz bertsoan entzun nuela. Gure jaitetxean bertan entzun nuen. Taberna zuten gure gurasoek, eta hantxe entzun nuen gure Tontola lehenengo aldiz, jo eta fuego bertsoan, igande iluntze batez, bere kidetsuko beste gazte batekin. Neska kontutan ziharduten. Bazen erronka. Txominekin ari zen harek garai haretan bazuen sona pixka bat; baina gerora ez du luzitu.

Txominek bai, luzitu du. Tolosaldean oraintsu arte gure garaian ezagutu den bertsolaririk sonatuena bera izan da. Bertsolari ugaria da. Arrazoi

onetakoa. Jendearekin kunplitua. Lagunarterako atsegina. Euskal Herri osoak badaki gaur zein eta zer den Txomin Garmendia bertsolaria, ni esaten aritu gabe. Hori ez zegoen esan beharrik.

Esan behar dena, akaso, zera da: Bertsolari ezezik, idazle ere badela. Hortxe daude **Auspoa** sailko bost liburu horiek. Zeintzu diren ez dakienarentzat, hona hemen bosten izenak: “Denbora pasa”, “Bizitzaren arian”, “Bordaberriko gozo-mikatzak”, “Bertsolari kurpilla” eta “Erriz-erri”. Zorigaiztoko ezbehar hura zela eta hasi bazen hasi, eman du berea Berrobiko bertsolariak.

Orain ez dakigu idazteko denborarik geldituko zaion. Bizimodu berriak eskakizun berriak ditu eta ikusi egin beharko. Baina hemendik aurrera idazten badu ezpadu, orain arteko uztak balio du gizon baten bizitza. Gainera, gaurtik aurrera, bestelako, uzta eman nahiko du Txominek. Agian!

Gaurtik andre izango duen emaztea behin bakarrik ikusi dut, eta ez nuke ezagutuko; baina ezagutuko banu bezala esaten diot, ez duela nolana hiko senarra hartzen. Txomin Garmendia bertsolaria ez dela edozer gauza. Eta biei, hitz bat bakarrik esaten diet: ZORIONAK.

*Deia, 88-VII-30*



## Lagun bat

---

**P**ATXI Mujika jaunak bildutako bertsoak ari gara entzuten aspaldi honetan igande eta jai-egunetako “Bertsoz-Bertso” emanaldietan. Noizpait egin zuen lana gure gizon honek. Gaur istimatzen da bilketa hori, nahiz garai haietan zenbait bertsolari haserre xamar ibili gure gizonarekin. Ez zen guztiz harritzekoa ere, bertso horiek bildu ziren urte triste haietan.

Baina orain, zorionez, gure esku dauzkagu hainbat eta hainbat saio, bestela galduak zitezkeenak. Eta saio horietatik asko eta asko, gaijartzaile-rik gabe egindakoak dira. Bat eta bi baino gehiago entzun ditugu horrelakoak azken aldi honetan. Orduan horrela izan ohi zen. Gaur ia beti badute norbait ondoan eta orduan ia inoiz ez zuten izaten.

Euskadi Irratiak eman dizkigun saio horietan, laguntzatxo baten falta sumatzen dut nik. Bakarregi uzten direla bertsolariak iruditzen zait. Laguna falta zaiela mikrofonoaren aurrean. Ez dezagun esan gaijartzailea, nahi bada. Esan dezagun laguna.

Lagun hori da, hasteko, bertso saioari garrantzia emateko. Inork ez dio jendeari atentziorik eskatzen. Inork ez ditu bertsolariak aurketzen. Eta horrelako zerbaitek, jaialdia jantzi egiten du. Garrantzi bat ematen dio ekitaldiari, eta bertsolariari babes bat. Prestakuntza bat dago, lanean hasi daitezen. Hori gutxienez falta dela iruditzen zait saio horietan. Ezer kostatzen ez den gauza bat da. Bestela ba-

dirudi, inork esan gabe eta deitu gabe eta agindu gabe, erdi-moxkor batzuk bezala, hasten direla kantari jende artean. Eta horrela saioari garrantzia kendu egiten zaio.

Horregatik lagun bat komeni da beti bertsolarien ondoan, bi izan nahiz lau beraiek. Harrera hori eta sarrera hori zor zaizkie gure gizonei. Eta jendea-ri ere bai.

Bertsolariari mikrofonoa eman eta baztertu da delako lagun hori. Eta hasi dira gure kantariak bertso eta bertso. Ari dira eta ari dira; eta ari direla, bukatu zaie haria. Orduan, bertsolariek berek eskatuta, nahiz norberak hala ikusita, arnaspide bat ematen die ondoko lagunak. Eta mikrofonoa hartu eta kantapide berri bat eskaintzen die. Horrela izango dute aukera gure bertsolariek, doinua aldatuz eta abar, beste saiotxo bat egiteko.

Lagun hori beharrezkoa dutela esango nuke bertsolariek. Ez agintzeko, laguntzeko baizik, errezago eta egokiago ari daitezten. Hor gertatzen dena da, lana errezteko partez, zaildu egiten zaiela askotan. Orduan da kaltegarri gure gizona. Lagun ezbaينا, etsai gertatzen da orduan.

*Deia, 88-VI-4*

## Sendimendu ezberdinak

---

**B**ERTSO eta bertsolari artean igaroak ditut lehengo larunbat iluntzea eta igande eguardiartea. Ez solamente eginkizun berdinez! Larunbatekoan epaile nintzen eta igandekoan entzule eta zirikatzaile. Eta sendimenduak ere ezberdinak izanak ditut. Hasi nadin atzekoz aurrera nere kronika egiten.

Igandez Euskadi Irratiak ematen duen saio hori entzuten joan nintzen kotxean. Han ari ziren Peña eta Millan Telleria koplatan. Ez dakit maizago zergatik ez duten egiten. Eta bertsolari gehiagok zergatik egiten ez duen ere ez dakit. Itsusiena zein zen ez dakit erabaki zuten, baina epelak elkarri esan, bai, egin zizkioten.

Eguerdian, berriz, Joxe Lizasoren eta Joxe Agirrerren saiotxo bat entzun nuen. Neronek eman nien kanturako bidea. Duda haundirik gabeko bertsotea egin zuten gure bi Joxe hauek. Gozatu zuten jendea Aitolako tontorrean. Eta ni ere bai. Gero hala galdeztzen nion neure buruari: munduan ba ote dago hauek baino bertsolari hoberik?

Bertsolari on eta txar. Edo on eta hobe. Ez dago erraza erabakitzen; baina horretan ihardun behar izan nuen larunbat iluntzean. Bi hoberen hautatu behar genituen zortzitatik beste hiru lagunek eta nik. Eta ez bide genuen asmatu. Handik atera ginean, hala bota zigun batek: “Hori al da afizioa indartzeko modua?”

Galdera horrekin zer esan nahi zuen, guztiz-gutztiz ez dakit nik; baina gure epaiarekin ez zegoela konforme, argi dago. Ez genuen, nonbait, harek hoberen uste zuena hautatu. Ezta mahaiko norbaitek halatzat zeukana ere, ez genuen hautatu. Zer egingo zaio!

Nik badakit edozeinek duela bere iritzia izateko eta esateko eskubidea. Hori jakina da. Eta gauza jakina behar lukeela ere esan daiteke, bi ordu eta gehiagoko saio baten ondoren, hainbat eta hainbat bertso nolabaiteko entzun eta gero, denbora pasa bertsoak entzutea baino zerbait gehiago behar dela erabateko epai bat emateko. Lau gizon ihardun han lana ondo egitea beste interesik gabe, buruak eta belarriak atera beharrean bertsoak zeharo eta arretaz entzuten, eta haiek baino norberak bertsoak hobeki neurtu dituela uste izatea, uste haundi xamarrara dela esango nuke.

*Deia, 88-VI-11*

# Elegintza

---

**P**ATXI Perurenak du idatzia, errukia ematen dio-  
la bertsolari gazte bat, bertsotan ihardutez  
gain, bertsolaritzarako gaietan murgilduegia ikustek-  
ak. Nik ere idatzia dut, bertso eskoletan eta bertsoi-  
kaskintzan dabilen jendea, hitzaren arteak bere di-  
tuen beste sail batzuetan ere landu beharko litzate-  
keela. Hitzaren deia sumatu duten hauek, alegia,  
bertsoaz bestelako sailetarako ere hezi beharko ote  
liratekeen. Ez dut uste gauza bera direnik Patxi ku-  
piarazten duena eta nik esaten dudana; baina ba-  
dukete antzik.

Eskola horietan dabilen jende hori, bertsoaren  
lilurak darabil dudarik gabe. Baina bertsoarena bai-  
no zabalagoa den hitzaren graziak joak daudela ez  
al dago esaterik? Hitzezko artea ez da bertsoarekin  
bukatzen. Beraren biki-laguna den poesia ere hor  
dago. Horretan ere ez da, ordea, amaitzen hitzaren  
mundua. Ez al lukete landu beharko ikasle horiek  
bertsoarenak ez diren beste hitzaren alor guzti ho-  
rietarako ere?

Badugu exenplurik bertsolarietan bertsoz kan-  
poko elegintza –ele=hitza– horretan. Hor dago gure  
Basarri haundia, besteak beste. Zeinek ez du en-  
tzun eta irakurri atsegin haundiz gure Errezilgo  
“elegina”? Eta ez da bakarra. Badu garaitsukiderik;  
eta ondorengorik.

Bada beste zarauztar bat, bertsolari gazte  
haundi ez ezik, idazle deigarri dena. DV egunkarian

astean behin agertzen den ZABALIK sailtxo horretan badut nik gustoko firma bat. Hura falta denean, letra haundiak bakarrik irakurtzen ditud askotan, aste honetan bezalaxe. Harena berriz, oso-osorik irakurtzen dut. Beti da atsegina. Andoni Egaña da nik maite dudana firma hori. Baina ez da zarauztar gaztea bakarrik, bertsolariak bertsoa baino elegintza zabalagorako balio dezakeela erakusten duena.

Nere ustez! Horrela esan beharra daukat, lehengo batean gertatu bait zait gauza xelebrea. Bizkaitar batekin bazkaldu berria naiz, eta bazkaritakoan poesi kontuetan ihardun genuen. Eta nik, Bizkaiko poetarik hoberenetarikoa Amuriza zela esan nuen. "Zuk ez"? galdegin nion. Eta "Amuriza bertsolaria da" esanda utzi ninduen. Hori banekien nik; baina harek ere beste hori bazekiela uste nuen.

Harri eta zur gelditu nintzen. Nik uste nuen, Bizkaiko hoberena bada ez bada, mundu guztiak bezekiela Etxanoko bertsolariak, bertsoez gain, poesia ere egin bazuela, nobelak eta kazetaritza aipatu gabe. Eta gaitasun izugarri bat erakutsia zuela. Hori uste nuen nik.

Beste bertsolari askok egin zezakeena egin duela horretan esango nuke nik Amurizak. Horregatik galdetzen dut ez ote lireratekeen landu beharko bertso eskoletan dabilzan horiek bertsoak baino elegintza zabalago baterako.

*Deia, 88-VI-25*

## Bi bederatzi puntuko

---

**T**XAPELKETA berri baten atarian gauden honetan, aspaldiko txapelketetako zenbait bertso erakustea eman dit gogoak. Gerraondoko lehen txapelketakoak dira gaurko bi hauek, eta orduan ez-ohizkoa zen neurrian kantatuak. Orduko norgehiagoka haietan ez zen gaur aina bederatzi puntuko entzuten. Ez zuten ohiturarik, ez eta gogorik molde horietan aritzeko. Gaurko bi hauek irakurtzean ederki suma daiteke gogorik-ez hori.

“Euskeraren gainean” kantatzeko eskatzen zaie. Euskaraz kantatzen dutela garbi dago; baina “euskeraren gainean” ari direla, oso berandu ohartuko zara, irakurle. “Kulixka” sortatik jasoak daude.

*Uztapide:* Gai au ezta izandu  
nere atsegiña,  
baiña Irigoienek  
du itzegiña;  
kantatuko ez banu,  
danentzako miña;  
esango lutekena:  
ori ezta diña,  
Ni enaiz apaña,  
bertsolai apaña,  
baña in nai azaña  
luzaturik zaña;  
euskeragatik ein det  
nere alegiña.

*Basarri:* Bederatzi puntuan  
dadukat sarrera;  
Irgoienek jarri  
digu karrera;  
probatuko gera gu  
emendik aurrera.  
Noiz nai ezta izaten  
olako aukera.  
Egin da billera;  
guziok batera,  
kontuak atera.  
ez guaz gainbera.  
Oraindikan bizirik  
dago euskera.

*Deia, 1988*



## “Bertsolari Eguna”

---

“**B**ERTSOLARI Eguna zertan da” galdegin zidan lehengo batean jaun batek. “**Bertsolari Eguna?** Ondo dator beti bezala. Oraintxe ia denborak kunplituta da” erantzun nion nik. Beti bezain mardula eskainiko digu aurten ere urtarrilak, urte oroz opari egin ohi digun bertsolarien lehen-fruitu hori.

Egun horrek orain arte izan duen etsai bakarra, eguraldi txarra izan da. Batek baino gehiagok gogoan izango du, poltxikuan nola kiskali zitzaion urte hartan Baldarako sarrera. Garai haietan ez bait zen antzokian egiten omenaldi hori.

Bestela? Bestela egun haundi horrek “ez dauka bildurrik inungo aldetik” kantuak dioen bezala. Sortu bazuen sortu egun batez Joxe Salaberria zenak, San Sebastian inguru horretan bertsolariek eta bertsoek apaintzen dute gure Donostia. Egun bakar batez inon eta inoiz ikus daitekeen bertsolaririk gehien ikus daiteke egun horretan Gipuzkoako hiriburuan. Zahar eta gazte eta bitarteko, kapeldun eta bako, denetatik da hor, eta ia-ia denak ikus daitezke egun horretan Donostian. Nekez hutsegingo du inork, goizxeago edo beranduxeago, senitarte horretara agertu gabe egun horretan. Eta beraren araberatsuko laguna ere izaten du bakoitzak bere inguruan egun horretan. Bera baino apainduagoa, jakina! Ez dute erdoi haundirik ekartzen bertsolarien emazteek Donostia polit honetara. Horrelaxe egin ohi da urteroko bilera hori.

Batzutan izen haundi baten inguruan bildu ohi gara. Iazkoa lekuko. Aurten bi anaia ditu egun horrek bilera-aitzaki. Joan Bautista eta Xalbador Madariaga anaiak dira omentzekoak. Bautista dugu ezagunena bertsozaleok. Nafarroako txapelketetan asko agertzen da hirurogei inguru horretan, eta bere egokitasuna erakusten du bertsoan.

Txapelaren goxoa zer den ere badaki. Berak jasozuen Nafarroakoa 1961 urtean. Ez da kunplimendu haundietakoa, baina bai ateraldi kuriosotako bertsolaria.

Xalbador ezezagunagoa da. Ez da anaia aina ibilia eta ez du bere burua erakusteko aukerarik izan harek bezala. Biek batera jasoko dute omenaldia bihar zortzi Donostiako Astoria antzokian. Nafar-kerua izango du, beraz, aurtengoak, Arantzako bi seme erne hauek direla medio.

## Biba Bilbo!

---

**J**OAN dira Aste Nagusiak. Hil da festen istilua gure hiriburuetan. Ez da egun zoroen aztarna itsusirik gelditzen. Horretan kalegarbitzaileek dute meritua. Ez dakit inork agertzen dien esker onik; baina merezi dute. Zer zerritegi lirateke gure hiriak horiek gabe? Horiei eskerrak daude orain inorako lotsarik gabe. Guk festa zoroetan itsusitu genuen Donostia, horiei eskerrak dago lehen bezain zoragarri. Eta berriro ere, "Festarik behar bada, bego Donostia".

Ala Bilbo? Neri hango festen programa gehiago gustatu zait. Programa esan dut. Festak, ez batekoak ez bestekoak, ez ditut ikusi. Eta ez da xexenak irargatzen zituztelako izan. Bilbok badauzka oraindik eta Donostiak ez. Hemengo "torotako paza", narrek esaten zuten bezala, garbitu zuten. Bilbotarrek eutsi egiten diote. Ez dakit hala behar lukeen edo ez. Hala dela diot. Neretzat alperrik dira xexenak; baina ez gureak ez direlako. Arroztasunaren izenean xexenak gure artetik uxatu nahiean ibili denik bada. Baina gaur ez dago inor, xexen kontu hori, beste inork baino gureagoa dugula uka dezakeenik. Hasi Iruñea zaharretik eta Loiola haundian barna, xexenzale amorratuz josia dago herri hau. Ez dakit ona edo txarra den hori. Horrela dela diot bakarrik. Nik aurrerapen bat dela uste dut gizatasunean, abereentzako sortua den eta hazten doan kupira hori. Horrela gizakiago garelako uste dut, abereen etsai eta sufriarazle izanda baino. Kristautasunaren

fruitu bat dela esango nuke nik, abereei horrelako bihotza erakustea. Beraz xexenak kentzeko eskatuz hasia den dehadar hori, bidezkoa dirudit. Baina ez afizio "krudel" horren arrotasunaren izenean. Hori bere-berea du herri honek.

Baina nerea ez denez zaletasun hori, ez zekidakeen horregatik gusta gehiago Bilboko festen programa. Nere txoko honi dagokion beste zerbaitegatik izan da. Donostian ez da bertsolaririk izan Aste Nagusi osoan eta Bilbon egunero zituzten. Eta jakin dudanez, jende mordoxka ederra biltzen zen eguerdiero gure artista hauek entzutera. "Euskalduna ez" omen den Bilbo zakarra euskaldunago, beraz, hiribururik euskaldunena omen Donostia baino?

Ez du oraingo gaitza Donostiako Aste Nagusiak bertsolaririk-eza. Lehen ere horrela izan da gure garaian. Ez dakit zeinek izan dezakeen errua. Nik ez dut. Batere ez zegokidan arren, behin baino gehiagotan hutsune hori salatu izan diot festen ardura zeukan jendeari. Beste egitekorik gabe hori bakarrik esatera ere joan izan natzaio norbaiti. Ez alperrik! Idatzi, ez nuen inoiz egin. Gaur hori ere egin dut. Ez dakit besterik zer egin dezakedan, Bilintxen hiri zoragarri honetan bertsolariak entzun ahal izan daitezten Aste Nagusian.

*Deia, 88-IX-3*

## Bertsoak irratian

---

**A**DISKIDE birekin, lehengo batean, Euskal Herri txiki hau konpontzen aritua naiz. Badago zer egina gure ustez. Txiki izatearen arazo haundi horrek ematen dio lanik asko bere izaeran. Eta besteak beste, komunikabideak ziren guretzat arazo. Horiek nola hobetu eta nola bildu jendea horietara.

Honetan ari ginela, hala dio nere solaskideetako batek: “Bertso emanaldi horiek ere berritu eta hobetu beharra zegok”. Nere lagun honek eskertzen zuen egiten dena. Nola hobetu esaten zuen bakarrik. Beste guztiok ere hori galdetzen dugu. Nola, ordea? “Hor yagok untzea”. Nik esango dut nere kasa pentsatzen aritu naizena.

Lehengo igandean zortzikoak piztu dit argia. Ez nuen sarrerako zatia besterik entzun. Gipuzkoatik Nafarroara bidean harrapatu ninduen emanaldiak, eta Lizarragako gainez gero, ez nuen ongi entzuten eta itzali egin nuen irratia. Ordizikoa zela uste dut saioa eta lau bertsolari zirela: Azpillaga, Lazkao-Txiki, Joxe Lizaso eta Joxe Agirre.

Lehenengo ekinaldi horretan, 25 bat bertso izan ziren. Batere gairik gabe aritu ziren. Nola trabatu zirelako! Lazkaoko solteroak badu heldulekurik eta orduantxe ere eman zuen hizpiderik. Ez ziren, ordea, tiro guztiak txikiarentzat izan. Harenak, jakina, besteentzat ziren, eta ederki lotsagabetu erazi zituen beste hirurak elkarren artean. Oso ederki jardun zuten laurak.

Handik aurrera ez dakit batere zer izan zen jaialdia. Nik dakidana da, hasera hura zoragarria izan zela. Eta irratietako emanaldiak hobetzeko, bertso onak ematea dela lehenengo baldintza. Eta jaialdika bertsoak emanaz, txarrak ere eman beharra dagoela, jaialdietan ere denetakoak izaten bait dira. Ez ote genituzke irratietako emanaldiak, hango eta hemengo zati hobereenez osatu beharko, jaialdi osoka egiteko partez?

Ez da berdin bertsoak plazan entzun eta irratiz entzun. Irratia hotzagoa da. Hilagoa gelditzen da. Entzulegoaren artean egoteak badu bere berotasuna eta zenbait bertso txar errexago eramaten dira.

Badakit jaialdika ematea erosogoa dela. Orduak errexago betetzen direla. Bestela egite horrek askoz lan gehiago eskatzen duela. Askoz gehiago ibili beharko litzateke, nonahi eta noiznahi jaiotzen diren pitxi horien bila; baina hobekuntzarik nekez lortuko dugu lan gehiago eginez izan ezik.

*Deia, 88-X-1*

## Esan izana damu

---

**B**ERTSOLARI bati baino gehiagori entzun izan diogu, eta Xalbador zenari irakurri ere bai, behin baino gehiagotan egin izan diotela beren buruari desapio ez direla berriz bertsoara aterako. Eta ez, jakina, bertsoe eder bat egin ondoren. Lardaskaren bat egindakoa izan ohi dira horrelako asmoak.

Eskerrak beroaldiko asmo horiek gero ez diren kunplitzen. Bestela akabo gure bertsoak. Nolabaiteko saioren bat egin duten bakoitzean horrelako pausoren bat eman izan balute, axolakaberen bat edo beste besterik ez genuen gaur plazetan bertsoak kantatzeko. Noiz egiten duen ongi eta noiz gaizki ez dakien bat bakarrik.

Kakalana eginaren kezka eta pena eta lotsa noiznahi izan ohi ditu nor den bertsolariak. Eta ez dut uste grazi haundirik egingo dionik plazako hozkia berritzeak, plazan egin zuen lardaska hura irratic norberari entzuneraziz eta bota zenean entzule izan ez zirenei ere jakineraziz. Mingarria benetan, norberak lehenbaitlehen ahaztea nahiko lukeen zer-bait, norberari eta besteri gogoraztea.

Eta zerk sortarazi dezake bertsolariarengan damu hori? Dударик gabe, bertso txarrak bota izanak. Hori ez zegoen esan beharrik ere. Eta gauza asko dira bertsoa txar dezatekeenak. Bertso bat neurritz izan daiteke txarra, errimaz izan daiteke txarra, joskuraz izan daiteke txarra eta milamodutako beste

nahasteborrastez izan daiteke txarra. Horiek guztiak dira lotsaizun iturri bertsolari batentzat; baina ez horiek bakarrik. Bada besterik ere.

Ustekabeko astakeria bat esan izana ere izan daiteke penagarri gerora. Eta bapateko lan horretan, gerora damua sor dezakeen ustekabekoren bat esatea ez da harrigarri. Eta penagarriak dira zenbait ateraldi, berez aldrebeskeria haundiak direlako, edo eta norbaitentzat nahiz norbaitzurentzat mingarriak izan daitezkeelako. Horrek ematen dio min bertsolariari eta horrek sortarazi diezaioke damua.

Hori guztia gogoan eduki beharrekoa dela esango nuke bertsoak komunikabideetan ematerakoan.

*Deia, 88-X-22*



## Hamabi urte...

---

**H**AMABI urte badira dagoeneko, “Urepeleko arztaina” hil zela. Etzi dira urteak ahots miresgarri hura isildu zela. Urtabea denez, aipatzea ez da misterio izango noski. Eta aipatu egiten dut; baina horretarako bide, liburu batek eman dit, eta ez haren heriotzaren urtemuga izateak.

“Euskal Hizkuntza eta Literatura 3” deitu liburua daukate testu hirugarren BBB kurtsoa egiten ari diren ikasleek. Eta bere 182-83 orrialdeetan Xalbador aipatzen du. Nor eta zer zen esaten digu.

Lehen lerroetatik hasten dira hutsak. “Bi alaba eta semea izan zituen” dio boskarren lerroan. Hori irakurri eta gero halako irudipen txar batek hartzen du bat. Edozeinek daki bi alaba eta bi seme izan zituela urepeldarrak.

Hurrengo lerroan, beste hau dakar: “Bizitzan zehar Ameriketara egin zuen ateraldi bat”. Xalbador behin eta berriz izana zen Ameriketan. Eta leku gehiagotara ere iritsi zen. Ez dakit nondik ikasitako berriekin dabilzan.

Gero, gure garaian ezagutu den bertsorik sonatuen hura dakar. Eta lehenik, bertso hura sortarazi zuen giroa du adierazten. Eta behin eta berriz goiza eta goiza ari da. Bertsoa arratsaldekoa dela harriek ere badakite Euskal Herrian. Nondik atera dituzte “goiz” kontu horiek?

Hurrena bertsoa. Sona horretako bertso batean ez daiteke hutsik ametitu. Kantatu eta biharamone-

an egunkariak egin zuen huts bera eginez bukatzen du bertsoa. “Oraindik” dio amaieran. Eta edozeinek daki, ez Xalbadorren euskalkiak eta ez bertsoaren dobladurak ez dutela hori onartzen. Aita Zavalak konpondua dauka hori. Liburugile hauek ez ordea.

Eta azken aldera, horra zer dion: “Bertso kantatzeaz gainera, Xalbador zenbait aldizkaritan ere idatzia zen, hala **Herrian** eta **Gure Herrian**”. Hori irakurrita, ez dakizu parre egin edo negar egin. Hamabigarren urteurrenean horrelakoak irakurtzen baldin baditugu, zer ez ote dute irakurri ahal izango hamabigarren mendeurrenean?

*Deia, 88-XI-5*

## Gauza gogorak

---

**G**AUZA gogorak irakurri dizkiet bertsolariei eta bertsolariez joan den aste honetan. HABE aldizkarian irakurri ditut batzuk eta EGUNA astekarian beste batzuk. Jon Lopategi da lehenengoen esale, eta Eguzkitze bigarrenagoena.

Hala dio bizkaitarrak HABE aldizkariak egiten dion elkarrizketan: “Txapelketak beharrezkoak dira bertsolaritza mugitzeko eta eragina izateko. Lagunartea hautsi egiten du, ordea. Orain sei urte bertsolariak askoz ere lagunagoak ginen gaur baino, eta hori txapelketen ondorio da”.

Eguzkitze berriz, aste oroz EGUNA astekarian betetzen duen orrialdean, honako erretolika honekin dator: “Juradutzako lanak behin besterik probatu ez dituen bat mintzo zaigu, baina hori aski dut herenegungo solaskideak esana inongo nekerik gabe ulertzeko”.

“Lehengo larunbatez epaitu behar izan zuten saioan, sekulako kritikak heldu omen zitzaizkien, lana negargarri egiten ari direla omen dio bakarren batek eta hori baino lotsa gehixeago behar luketela”.

“Hori zioen batek. Bestetik, aldiz, berekin mahaian esertzen zirenek eta berak kriterio ezberdinak zituztela aipatu zidan, eta hori guztiz bateratzerik ez dagoela. Eta komeni ote?”

Ez dira kontu gozoak bi bertsolari horienak, arranoak ez baluke! Bata, txapelketek lagunartea

hausten dutela eginez, eta bertsolariak lehenago lagunagoak omen zirela orain baino. Bestea, zenbait jendek epaimahaiarentzat ari duen erretolikaren berri ematen. Ez da giro gustagarria, gure bi bertsolari hauek diotena egia baldin bada.

Txapelketak beharrezkoak izango dira; baina honelako eta horrenbesteko triskantzak eragin behar badituzte, ez dakit zer irabazten dugun. Ezer bada eta, lagunarte eder hori du bertsolaritzak bere alderdirik bikainenetako bat.

Garesti joko digute txapelketek, gure herri-artista hauen arteko eta inguruko giroa txartu behar bazaigu. Beti ditu alderdi mingarri samarrak norgehiagoka batek; baina horiek norberak pasatzen jakin behar du.

*Deia, 88-XI-25*

## “Orain sei urte...”

---

**M**UGA izendatu zaigu. Duela sei urtetik hona bertsolarien lagunartea hautsi egin omen da. Eta txapelketaren ondorioz hautsi ere. Beraz 1982 urtea da gaitzaren jaioturtea.

Urte seinalatua dela 1982 hori bertsolarien txapelketen kondairan, ez dago ukatzerik. Ordurarte besteren gain eta esku zegoen txapelketen antolaketan, Bertsolarien Elkartera pasatzen da. Handik honako gorabeheren erantzukizuna, bertsolariek berek dutela esan beharko da, beraz. Gerozko honetan berek dantzatu dute bertso-zartagia, txapelketa kontuetan behintzat.

“Kezka eta ardura handiz” ikusi zuenik bada 1982 urte hartako hura. Ez antoloketarengatik, jakina. Epaia izan zen nonbait kezkarria. Sortu zuen esamesik. Haren erantzukizuna beren gain izan zutenetan bada geroztik belarrietako hotzik gabe dabilenik. Nik ez dakit zenbait gauza esanaren eta eginaren damurik inork badaukanik. Harria tira eta eskua gorde zuen hainbat eta hainbatek baleukake honetan zer esanik eta zer argiturik.

Bertsolarien lagunartea, berriz, txapelketen inguruan nahiz haietaz kanpo, gizalezkoegia ez dela beti izan edozeinek daki. Ez nion oraintxe irakurri, txapelketetan inoiz ibili ez den bertsolari eder bati norgehiagoka horiek “triskantzaren” bat ekarri ohi dutela gehienetan bertsolarien artera. Ez zegoen inork esan beharrik. Historia errepasatzea nahikoa

da hori ikusteko. Ez gara hasiko izenak eta xehetasunak ematen.

Ez eta ere ez gara hasiko bertsolarien arteko harremanen nahaste izan den beste zenbait arrazoi izendatzen. Gure gizarteko gertakizunek ere hautsi dute lagunarte bat baino gehiago bertsolarien eta beste askoren artean.

Nik behinola ezagutzen nuen bikote haundi bat -binaka izan dira batez ere haundiak gure bertsolariak-, ez du txapelketen erruak banatu. Bestelako sesiante batek bidali ditu bakoitza bere aldera eta alderdira.

Behin batean bertsolariak aldarrikatzen zuen "gizalegeak" agindu beza gure artean, eta txapelketek ez diote kalterik egingo bertsolaritzari.

*Deia, 88-XI-27*

# Orixe eta bertsoa

---

Zatozkida, Goi-arnas  
eizu nerekin lan,  
erri baten arnasa  
mamitu dezadan.  
Geroak esan beza:  
“Erri bat izan zan”;  
edo-ta ats emaiogun  
ontan iraun dezan.

Bertsolariei galdetuko balitzaie bertso hori zena den edo nongoa, gehienek ez lukete erantzungo ez dakitela besterik. Norbaitek esango luke hala ere, “Euskaldunak” poemakoa dela, eta hala da. Euskaraz egin den bertsolanik haundienaren agurra da idatzi dudana bertso hori.

Aste honetan guztian Orixeko gora eta Orixeko behera jardunak gaituzu Unibertsitatean eta Orixeren “bertsolaritasuna” ere atera izan da momenturen batean. Orixek bertso ederrak egiten badakiela jakin dezazun, bertsolari nahiz bertsozale, bai poeta eta bai handik kanpora, hona hemen zenbait argibide goikoaz aparte:

Orduntxe, Jauna, nolako miña  
etorri zitzaidan neri!  
Zuk eta biok bakar dakigu  
zazpi urte beltzen berri.

Zuk neri miñak bialdu eta  
ni guzien gain igeri.  
Zure laguntzaz ezin nezaion  
ukorik egin ezeri.

Ezin dut aztu Urli'ren bidez  
erantsi zenidan lorra;  
ez Sandi arek bide-erdian  
ipiñi zidan zoztorra;  
gero, Berendi egin nun topo,  
gogorrik bazan gogorra.  
Guzi oiekin ordaindu bezat  
nere gaizkigiñen zorra.

Bere minak kontatuz egiten ditu Orixek bertso  
hauek eta ez dut uste bertsolaritzarik hoberenaren  
lotsarik dutenik.

*Deia, 1988*



# Bertso-papergile

---

**O**RIXE gora eta Orixe behera gabiltza aste honetan; eta nere buru-bihotzetan hura besterik ez dagoenez, harekin nator asteroko txoko honetara ere, leku hau ere badagokiola uste bait dut gure orexar neurkaitzari.

Bertso-papergile ageri zaigu Orixe, Iparraldean egin zituen urteetan. Hemendik 1938an aldegin zuen, eta handik 1949an ateratzen da Ameriketara. Bitarte horretan, besteak beste, “Bachenabarre Bidarrain” bizi da Orixe. Hiru bertso-paper bildu ditugu herri horretan eginak. Hona izenak: “Merkatu beltza”, “Idorrerria” eta “Kontrabanda”.

Ikus “Merkatu beltza” paperaren lehenengo zortziko haundia:

Bachenabarre Bidarrain nuzu nitaz bazineza galde.

Bertsu berrien gisaz hontzeko balia bekit Otchalde;

Bai ere lagun hil berri dugun Luhosoako Larralde.

Hetarik sosik altcha ba neza ez nuke lan hau debalde.

(Airea: “Salamankarat nindoalarik”).

Ederra ez bada gero bertso hori! Bertsolarien modura, bertsoak jartzeko laguntza eskatuz hasten da. Baina haiek ez bezala, bertsolariak deitzen ditu bere alde. “Otchalde” famatua eta hil berria den “Larralde”. Hori da bertsoaren kerua. Bertsolariaren erak ederki ezagutzen ditu Orixek.

Eta nolatan gogoak eman ote zion Nikolas Ormaetxeari bertso-paperak egitea? Edozeinek badaki, gure artean bertso-paperak diru-iturri bat izaten zirela. Egin eta saldu egiten ziren. Hamaika bertsolari entzun izan diogu nola erosi ohi zituzten herriko elizatarian edo merkatuan eta nola ikasi ohi zituzten buruz etxean. Uztapide haundia lekuko.

Orixek ere “sos” batzuk biltzeko egiten ditu. Garbi asko erakusten du bere asmoa, lehen idatzi dudan bertso horren azken puntuan: “Hetarik sosik altcha ba neza, ez nuke lan hau debalde”. Ez dago esan beharrik zeinen ederki darabilen baxenapartarren euskalkia, ortografia eta guzti.

Eta gure “bertsolariak”, orduko beste bertso-papergile guztiek bezalaxe, moda-modako gai bat hartzen du. Bigarren gerra mundiala ari du, eta nekazariak ez daukate beren emaitzak nahi bezala merkatuan saltzerik. Horrela dago legea. Eta gure baserritarrak, beti bezala, galtzen. Hori aztertzen du Orixek, eta nekazariaren eskubidea defendatzen du bertsolariak.

Hor eta beti, gure orexarra, behartsuarekin. Alde guztietan horrelakoxe bihotza ikusten zaio Nikolas Ormaetxeari. Bertso ederrik badu; eta bihotza hobe du.

*Deia, 88*

# Mitxelena bertsolaria

---

**O**IARTZUNEN lehengo astelehenean sermoia egin behar izan banu, honela hasiko nuen, neukana neukala esateko pentsatua: “Zuen presentzia da, gaur eta hemen, Joxe Joakin Mitxelenaren heriotzako ordu honetan, esan daitekeen hitz haundiena eta ederrena. Zuek esaten duzue zein eta zer zen gure gizona eta gure bertsolaria”. Zeini ez zitzaizkion itzaltzen, izan ere, lehendik zeuzkakeen ideak eta iritziak jendetza lotsagarriaren aurrean? Aldarean geundenontzat dena giza-buru zen Oiartzungo eliz ederra.

Baina sermoia ez nuen nik egin. Zegokienek bakarrik egin zuten hitz ordu haundi hartan. Joan Mari Lekuonarena izan genuen sermoia. Sermoi fina, azkenean bertso xoragarri batekin apaintzen ziola bere lagunari oparia. Baina sermoi hark izan zuen beste apaingarririk: nik Joan Mariren begietan ikusi nituen malkoak gero sakristian. Oiartzuar haundi batek beste oiartzuar haundi bati egiten zion opari isila.

Bertsolariek ere, denen artean, dena esan zute-la uste dut. Lizaso zaharrak eskaini zion lorerik apartekoena: “Lagunik onena”. Baina Lazkao-Txiki-  
ren damu-lore more more hura ere polita zen. Joxe Joakinek eman-leku haundiak zituen eta ederrik hartuta joana da. Eta amanda! Hartu eta eman, bertsolaritzaren lege da. Eta Mitxelenaren bertsolaritzarena batez ere. Baina Lazkao-Txikik, beti legez eta gizalegez ez ari izanaren damua erakutsi zion lagunari.

Ederki! Hori esan beharra egon zitekeen, eta esan egin zen. Esan beharreko guztia esan zen, nik uste, jendearen presentziaz eta hizlarien hitzez. Agur be-  
tea egin zitzaion astelehenean Mitxelenari.

Joan da Joxe Joakin haundia. Gehiegi ezgutu gabe joan zaiola, eta bere pena agertzen zuen atzo EGUNA astekarian Eguzkitze gazteak. Beranduegi jaio ote den irudipena sortzen omen zaio honelakoetan. Bego trankil gure Xabier. Bakoitza bere orduan jaiotzen da hemen. Baina pena izatekoa da Mitxelena bezalakoak ezagutzeko aukerarik ez izana, eza-gutuago eta maitagarriagoa bait zen gure oiartzua-  
rra. Grazia egin zion nik dakidan bati "Mitxelenaren Jainkoa, Jainko haundia huan" esan nionean. Gogoan izango du. Hori ere hala bait da. Jainkoa ere, haundi ikusten zuen Mitxelenak. Nik uste, guztiok ere, gure bihotzaren arabera ikusten dugula, eta haren bihotz puska hark ezin Jainko txikirik izan.

Nik gogoan izango dut beti, nola galdetu izan zidan behin eta berriz "zer moduz zazte?" ni egoera txar batean ibili nintzenean. Bihotz hartan edozein premiarentzat bazen lekua. Bertsolari eta lagun haundi bat joan zaigu. Jainkoak zerua diola!

*Deia*, 88-XII-10

## Nola esan

---

**B**AI. Nola esan, Mitxelena joatearekin, bertsoez gain, zer galdu dugun bertsolarien kuadroan? Adierazi egingo dudala nolabait uste dut; baina izen bat jartzen ez dakit oraingoz.

Adibiderik garbiena eta argiena, joanak ditugunetan, Mattin dugu. Askotan entzun izan diot amari, gure aheztarra xutitzen ikustea nahikoa zela jendea parrez hasteko. Marmar alai bat hasten zen zinemetan eta plazetan Mattin mugitzen zenean. Ezagutu genuenok badakigu hori horrela dela, eta ez zuenak ikas dezake garai hartako edozein zinta entzunez.

Mattin ez zen bertsoa bakarrik. Itzal edo errainu haundi bat ere bazeraman berekin. Grazizko bertsoa zuen eta grazizko pertsonaia zen. Ez bertsoz bakarrik egina. Itxura fisiko hura ere han zegoen. Txikiz haundia, eskasia errainu alai bihurturik. Honela gertatzen zitzaigun pertsonaia berezi gure bertsolaria.

Exenplurik argienetakoa Mattin baldin badugu ere, ez da bera bakarrik izan, bertsolaria pertsonaiaz jantzi duena. Hil berri dugun oiartzuarrak ere bazuen hori. "Hori hutsunea utzi behar du herrian" esaten zidan haren herritar batek. Bertsoena izango da hutsunea. Hori jakina da. Zeinek kantatu, izan ere, harek hainbeste eta hainatan, noiznahi eta nonahi kupirarik gabe? Baina bertsolariak ez ezik, pertsonaiak ere utziko du hutsunea. Mattinena

errainu txikiz baldin bazen haundia, Mitxelenarena ugariz zen. Zintak erreparatzen hasiko bagina, ikusiko genuke zenbat gai eman duen Mitxelena "pertsoneiak".

Ez da dudarik, eta ez legoke esan beharrik, denek ez dutela pertsonaia-jantzirik. Eta dutenek ere, ez dutela denek buelo berdinekoa. Askorena ia ez da ikusten. Gutxi batzurena da nabarmena. Hauek jantzen ditu bakarrik beren sona berezi horrek. Eta horri eskerrak, herrian badute onespenez berezi bat. Bertsoarena bakarrik ez den ixtimazio bat izaten zaie.

Hala ere, norberarentzat zama gertatzen da jantzi hori zenbait aldiz. Ez diot irakurri zaharra Mattin zenaren "bixkilagunari", jendeak pertsonaiaren araberako konportamendua eskatzen diola bertsolariari. Eta hauek ez izan beti gauza bera. Bi gauza izan pertsona eta pertsonaia. Izana eta izena. Xalbadorrek ere berandu ikusi zuen, Mattin irri-pertsonaia haren barnean zegoen pertsonaren bihotza. "Mattin nigarrez ikusi dut" oihu egin zigun espantuka.

Mitxelenari ere gerta zekiokkeen behin baino gehiagotan zama bere pertsonaia.

*Deia, 88-XII-17*

1989

## Xabier Olaskoaga

---

**B**ESTE nonahi ere ager daitezke lotsarik gabe izen-abizen horiek; baina hemen leku bat zor zaie. Horregatik erakusten ditugu hemen.

Badaiteke norbait baino gehiago bertsolarien sailetan Xabier Olaskoaga nor den ez dakienik. Txokotan honelaxe egon ohi da langile ez-ezagunik. Eta errenteriar honekin ere gauza bera gerta lekieke bertsolari nahiz bertsozale bati baino gehiagori.

Bada, ordea, ongi dakienik ere gure gizon hau nor den eta zer bertsolarien artean. Eta ez bat edo beste bakarrik. Asko dira gizon-bitarte honen berri dutenak. Asko, eta zazpi batez ere. Zeintzu diren? Zoaz datorren otsailaren 5ean Errenteriako Reina zinemara eta han jakingo duzu zeintzu diren zazpi jaunak.

Baina joaterik ez bazenu ere, neronek emango dizkizut izenak. Joan deneko hemezortzi urte haue-tan Xenpelar Saria irabazi dutenak dira. Gazteak denak txapela jaso zutenean. Gaur helduxeak, horratio, bakarren batzu. Honako hauetxek dituzu: Narbaiza, Murua, Peñagarikano, Euskitze, Sarasua, Sorozabal eta Narbarte. Zortzikotea osatzeko Santa-gedatan Xabier Olaskoagak koplari ekartzen zuen Koxme Lizaso izango da. Horietxek izango dituzu Xenpelarren herrian otsailaren 5ean eguerdiko 12etan.

Gehiago ere idea politikak izan dituzte omenaldi horren antolatzaileek, baina hauxe baino politago-



rik! Xenpelar Saria irabazi duten zazpiekin jaialdia. Meza Nagusitik etorriko dira zinemara jendeak, elizan eta herrian, denetan bait da hartzekodun errenteriar fin hau. Elizakoa 1 letan hasiko dute.

Bertsolariak sari bila joan zirenean baino trankilago joango dira egun horretan Errenteriarra eta jaialdi eder bat eskaini ahal izango diote Xabier Olaskoagari eta herriari. Nik, nere solasaldia, orogarritan emango dioten oparian agertuko den bertso honekin bukatzen dut:

Xabier Olaskoaga  
agur eta ohore.  
Herrian eta elizan  
kantugile-kantore,  
landu duzu hizkuntza ta  
landu duzu folklore.  
Milesker, eta jarrai zuk  
gurekin gero ere.

*Deia, 89-I-29*

# Lexoti

---

**O**RAINTSU arte askorentzat ia ezezaguna zitekeen izen puntatxorrotx hau, edozeinen ahotan eta nonahiko letratan dabil joan den aspaldian. Ezizen bixi hori duen jaunak, Joxe Luis Lekuona ditu izen-deiturak. Abizen mardulekoa dugu, beraz, Oiartzunen sortu eta Hernanin bizi den gizon hau.

Herrian eta herritik kanpo, bertso lanez da batez ere ezaguna Lexoti. Harritzekoa al da, oiartzuarra eta Lekuona izanda, bertsolari izatea? Abizen gizen horrek badu bertso kontuetan fruitu ederrik emanik. Eta horietako bat, Lexoti dugu.

Ugariz badakigu inork ez diola ukatuko “basapizti” horri bertсотako ahalmen ikaragarririk. Edozein ordu eta egun eta lagun eta leku eta gai ona izan da Lexotirentzat bertсотan iharduteko. Zenbat ote zitzakeen kantatuak egun bat bakarrean, argitako eta ilunpetako ordu guztiak kontatuta? “Jaungoikoak daki”, behin berak bere sorlekuaz esan zuen bezala.

Ugariz ezezik, ordea, onez ere ez dakioke uka Lexotiri baliorik. Berezko bertsolariak eta bertсote freskoak guk bezain ongi, edo guk ez bezala, eskeretzen zituzten garai bateko epaileei galdetu besterik ez dago. Ea zer jenderi aurrea hartzen dion 1962ko Erregeen Egunean. Hor dago “Auspoa”, 10 zenbakiduna, nahi duenari erakusteko. Nik lehenengo aldiz entzun nuenean ere, Tolosako frontoian, bigarren izan zen, eta ez edozeinen aurretik. Badira urteak

hura zela. Hogeitamasei-hemezortzi bai. Gazteen-  
tzako sariketa bat zen. Lexoti ere gaztea zen or-  
duan; baina bazen gazteagorik.

Bai. Lexoti, bertso-jokoan neurtu denetan, oso  
aurrera ibili da. Ez dugu nolana hiko bertsolaria  
izan Oiartzungo Lekuona hau.

Bihar, lastima den bezala, bere betiko lagun bat  
faltako da. Lagun bertsoetan eta lagun bestela izan  
duen norbait. Eta ez du haren bertsorik entzungo  
bere omenaldian. Lastima da. Zeinen ederki emango  
zuen bihar Victoria Eugenia antzokian Joxakin Mi-  
txelenak bere lagun Lexotiren ondoan!

Hura faltako da; baina besteak hor izango ditu  
Joxe Luis Lekuona bertsolariak. Eta kezka batekin  
bukatuko du egun haundi hori: nola eskertu hoin-  
beste ongina. Jakin beza Lexoti festa-gizonak, le-  
hen eginaren ordaina besterik ez dela izango igan-  
dekoa.

*Deia*, 89-I-14

## Zorrak ordaintzen

---

**E**z da erraz jakiten zeini zer zor diogun gure bizitzan. Askori eta asko zor dugula jakitea bezain erraz ez da behintzat. Eta herriek ere nekez ikasiko dutela deritzait, beren zein seme duten hartekodunik haundiena. Hala ere batzuetan badirudi ohartzen direla.

Burutapen horietxek jaio zitzaizkidan lehengogan, Joxe Luis Lekuona “Lexoti” opariak jasotzen ari zela Donostian. Lastima zen behar bezala ez zela “konpletatu” eskeintza hura! Eskasia agertu zuen ederki gure zirtolariak: “Konpletatzeko neska zar on bat/ekarri behar ziniten”. Horixe izan zen lastima, beste guztiak han bait ziren; baina gusto guztiak ez dira munduan, bertsolariak esan zuen bezala, eta han ere zerbait falta.

Bestela ongi hornitu zuten gure gizona erregalitz. “Baztertua” ez zegoela argi ikusteko aina bai behintzat. Nonahitik eta nornahirengandik sortu zen han eskuerakutsia. Haurrena ere bai. Lexotik edozein txokotan bazuela zirudien bere hazitxoaren ereina. Bere festazko hazia, jakina. Umorezkoa, atsegina, gustagarria. Eta debaldezkoa! Bere auzo-herritarra bezala “debalde festa preparatzen” mutila izan bait dugu Lexoti.

“Debalde... debalde...”... duda egin dezake norbaitek. Eta bidezko duda, noski. Hartzailearentzat izan bait da debaldekoa, ez jartzailearentzat. “Berrogei urtetan larogeitako kupoa” bete duenak, erreke-

ta haundiak egin ditu. Eta ez beti merkeak poltxikuarentzat, ez eta osagarriarentzat. Hau asko "mendratzen" du modu horretako kiskaltzioak. Eman egin behar, berriz, martxan egongo bada han eta hemen, gaur eta bihar, egun eta gau, jai eta aste. Ez da kosta gabea Lexotiren umorea.

Entzun berria dut, norbaitek esan omen zuela, poetak maitagarriak omen direla herrirako, baina galgarriak etxerako. Ez ote daiteke gauza beretsua esan umoregile profesional hauengatik ere? Ez dut uste etxeari puska haundirik erantsiko ziotenik; baina bai besteoi hamaika ordu gozo igaroarazi. Festajale bakarrik garenok, eta ez festagile, horrelakoei zor diegu, beharrezko ditugun ordu alai hoiak zorionez pasa izana. Debaldeko festa asko ikusi eta gozatu ahal izan dugu honelakoan kontura.

Gauza honetaz ohartuta zebilela iruditu zitzaidan lehengoan Lexotiren inguruan zebilen jendea. Zor honen ordain zirela eskuerakutsi haiek denak. Festalari profesional batekin zeuzkan zorrak kitatzen ari zela herria.

*Deia, 89*

## Patxi Goikolea

---

**E**USKAL Herriko Bertsolari Elkarteak bere urteko batzarrean, izen bat, eta gizon bat, berezi zuenez gero, badu izen horrek lekurik txoko honetan. Patxi Gokolea dugu bera. Ohorezko bazkide izendatu du gizon hau delako elkarte honek.

Patxi Goikolea. Ez da errez gizon jasoagorik, junttuagorik, argiagorik eta hurbilagorik bilatzen. Oraindik ez dut ikusi zabartua esanetan, ez egin-tzetan. Beti bere goxoan eta alaietan. Planta bai kurio-  
soa gizon honena. Hitza ez bageneuka itsusitua, jaun bat dugula esango nuke Patxi. Jaun egoki bat.

Baina Elkarteak ez du ohorez hartu bere baitan jaun bat delako. Berezko jauntasunez gain Elkarte horri dagozkion merituak dituelako aitatu eta aupatatu du. Ez du hautapen aldrebesa egin. Inoiz bada eta, hemen bai dela egi, aupatzaileak bere burua aupatu duela aupatua aupatzearekin. Norberetzat da ahore Patxi bezalako bat etxean hartzea. Eta hori egin du lehengoan Bertsolarien Elkarteak.

Patxi Goikolearen aditzea eta ezagutza nonahi dira Euskal Herrian, baina, batez ere, Leintz bailaran da ezagutuena. Han dakite, beste inon ez bezala, zenbat lan egin duen bertsoaren sustapenetan. Zenbat ahalegin eta ordu –eta otordu– zor zaizkion gure gizonari. Hango bertsolari eskolako maisu dugu, besteak beste, bertsozale amorratu hau.

Adiskide haundi bati behin entzun nion harek biziorik gabeko pertsonari ziola beldur. Goikolea

jaunak, guztia egokitasunez betea dirudien arren, badu bizio zimel bat. Bertsoa du bere bizio eta afizio. Nik horrengatik ezagutu dut. Euskal Herriko beste txokoetan ere horrexegatik da ezaguna gure gizona.

Garai batean, bakarrik ezagutu genuen. Gehienez ere bere emaztea izan ohi zuen inguruan. Gero bere ikasleekin ikusi dugu hainbat eta hainbat lekutan eta alditan. Horixe du izan ere, bere meritu paregabea: bere inguruan bertsozale eta bertsolari talde zoragarri bat sortu izana. Meritu horrengatik egin dio ohore lehengo urtarrilaren 29an Bertsolari Elkarteak.

Esan, hitz bitan egin dugu Goikolearen lana; baina zehatz-mehatz kontatu beharko bagenu, hitz bi ezezik, liburu bi ere beharko genituzke. Urtetako zeregina izan du Patxik bertsolari gintza hori. Berari haur irudituko zaizkio oraindik, akaso, hala zirela hartu zituen nexka-mutil horiek, gurasoarentzat beti bait gara haur, baina Patxiren ikasleak ez dira iadanik haurrak. Gaur pertsona eta bertsolari eginak dira. Zenbat atzera-aurrera bitarte horretan gure maisuak! Ez du, ez, bere poltxikurik asko gizen-du joan-etorri horietan.

Ongi bidezkoa zen, bai, egin zaion ohorea egitea eta egin zaion aitormena egitea. Urte askoan holaxe, Patxi.

*Deia, 89-II-4*

## Txapelketa-urtea

---

**A**URTENGOA hala izango dugu, aldrebeskeriaren bat tartean sortzen eta sartzen ez bada. Eta hamargarrena jantziko du aurtengo txapela janzten duenak. Askogarrena, beraz, hamargarren aldia izango baitu aurten, duela 54 urte hasi zen norgehiagoka honek. Bost burutan ibili dira orain arteko bederatziak. Hurrengoak ez dakigu buruz aldatzeko asmorik ekarriko duen.

Hamargarren honetatik gorakoak, lau urtez behin izango omen ditugu jokoan. Urte ez-paretan, beraz. Izan ere, pareak hartuta zeuden. Futboleko mundialak betetzen du bata eta olinpiadek bestea. Gu tartean gelditzen gara. Haien aurretik eta hauen ondotik, nahiz hauen ondotik eta haien aurretik. Nahi den bezala datatzen dela ere gure hau, beste bi horien tartean beti.

Neri, egia esan, urte pareak gehiago gustatzen zaizkit. Serioagoak direla iruditzen zait, zer nahi duzu. Beste horiek ipurtestuagoak dirudite, eta aldakorrakoak. Baina nola hasi behar genuen guk euskaldunen atentzioa geureganatzen, beste bi gertakizun liluragarri horiek ospatzen diren urteetan? Non eta, geuron buruei begira jartzeko, geurok sekulako azioren bat egiten ez genuen kirol horietan. Beraz horrelaxe ondoena gure kirol berezi hau ospatzeko.

Buru kontuan, gure txapela honek, badu eta ez du gusto jakinik. Bueloari dagokionez bakarrik duela dirudi joeratzoren bat. Haundi xamarrak guzta-



tzen zaizkio. Bestela, adina eta honelakorik ez zaio batere axola. Gazte bati eman zion babesaren lehenengo aldian. Zahar bati hurrengoan. Gerozkoetan heldu xamarretan ibili da, eta azkenekoan, berriro, gazte batengana jo du. Itxutasunik eta itxitasunik gabea dugu, beraz, gure kapela.

Beraren bila doazenei lasaitasun bat eman diezaiekeela uste dut gauza hori ikusteak. Txapelak ez duela begikorik, ez begitakorik bertsolarien buruetan.

Txapelaren hori ez litzateke eredu txarra txapelketaren inguruan ibili ohi garen besteontzat. Bata izan nahiz bestea axolarik ez zaion txapelaren garbitasuna beharko genuke guk ere gure buru-bihotzetan, bertsoa irabazian atera dadin, eta ez bertsolari bat edo beste. Bertso onak behar ginduzke zale, txapelak bezala, eta ez bertsolariak.

*Deia, 89-II-13*

## “Bapatean 88”: Pitxiak

---

**L**IBURU horretako bertso asko baino hoberik ba  
loimen daiteke haizeak eramanez lehengo urte  
horretan. Hori entzun diot bertsolari bati. Kostako  
zitzaion, hala ere haizeari honako Eguskitzeren  
hauek baino ederragorik eramaten. ETB ko infor-  
matibo bat zuen gaia. Hona lau bertsoak:

Gabon denoi hasieran  
hauxe da albistegia,  
gaurko egunak eman ditu  
oso berri ugariak,  
kongresutikan iritsi dira  
batzuk ikaragarriak,  
dimisioa aurkeztua du  
Ardanza lendakariak.

Nazio artea Txilek  
dauka erabat kezkatu,  
oso gauza pozgarriak  
entzun zaizka Pinotxeti,  
azkenik ere sarrera libre  
utzia dio Serrati,  
eta esan du hark demokrata  
jarraituko dula beti.

Ta kirolen berritara  
pasatzera goaz horra,  
gaur atleta haundi batek  
berotua du motorra  
Nikolas jaunak egina digu  
benetan marka gogorra,  
ehun metrotan hautsi berri du  
mundu osoko rekorra.

Jakina da biar dela  
kilometroen eguna,  
jakina da eguzkia  
lagun izango deguna,  
besterik gabe arretagatik  
mila-esker zuri laguna,  
gaur honenbestez bukatzen degu  
albiste emankizuna.

## Beste gazte bat

---

**H**IRUGARREN aldia dut “Bapatean 88” liburuko bertsoak dakartzadala honera. Eta hiruretan gazteen bertsoak. Ez bekizkit haserretu helduak. Ez dut uste. Horiek desiatzen egoten dira ondorengo berriak eta onak ikusteko. Aita semeekin bezala.

Andoni Egaña dut gaur. Izen haundia hartu duen gizon gaztea dugu zarauztar hau, bai bertsoan eta bai hizlaur idazten. Ondorengo hiru bertsoak, aiton-papela eginez kantatuak ditu. Bastoi bat egiten dio ilobak opari. Lehenengoaren fintasuna eta hirugarrenaren edertasuna etenda uzten dituela uste dut bigarrenak. Tratamentua “txotxolotu” egiten dela esango nuke, nahiz gaiari dagokionez, eta nahiz solaskideari dagokionez. Hika ari da bigarren honetan, eta zuka beste bietan. Ikus:

Zure urtetan ekarri nizun  
pilekiko kamioia,  
zure Jaunartze egun goxoan  
reglamentuko baloia,  
orain ordainez eman didazu  
agurearen bastoia,  
seguru asko esan nai dezu  
galdu dedala sasoia.

Nere ustetan oraindik beintzat  
ez zaidak falta indarrik,  
esango nitek hi heu hagola  
hortatik galdu samarrik,  
suspensoak lau ekarri dituk,  
aprobatu bi bakarrik,  
hire maisua(r)i emango ziot  
nik ez det horren beharrik.

Erregalo bat ez eskertzea  
ez litzake legezkoa,  
erritarekin ez det galdu nai  
zure irripar freskoa,  
alde batean izan nai nuke  
makila lizarrezkoa,  
eta bestean izango al det  
iloba, zure eskua...

*Deia, 89-III-19*

## Nik irakurri dut

---

**N**ORBERA bezain amorratuak ez diren bertsozaleak ondoan edukitzeak baditu bere abantaila edo bentajak. Liluraren gandurik gabe gauzak ikusten laguntzen du. Nik badut lagun bat, “Bapatean 88” erosteko nik ainako irrikarik izan ez duena. Ez da joan bila liburudendara. Eskura jarri zaionean irakurri bai, egin du. Edo gutxienik, aritu egin da irakurtzen. Aspertu egin omen zuen liburuak. Ez omen zuen aparteko gauzarik aurkitzen. Eta nola-baiteko gehiegi.

Ez dut uste, hori berari bakarrik gertatua zaiokeenik. Gauza beratsua da guztion burutik pasa dena. Uste eta nahi hainbat “urre-pikor”, Orixek liokeen bezala, ez dugu aurkitu. Bai ordea liburu osoa irakurtzeko hainbat arreta sortarazteko aina. Nik irakurri dut.

Liburuak hotz eta erdi-zaputz utzi zuen jaun hori bera, ordea, “lorietan” –Xalbadorrek esaten duen bezala– egona duzu, duela gutxi irratiz eskaintzen zuten saio bat entzuten. Polita omen zen noski! Apustu egingo nioke liburu honetan badela harek irratiz txoratzen entzun zuen saio haren parekorik eta hoberik. Eta hala ere liburukoek ez zioten irratikoek hainako graziarik egingo. Bai irratiz entzun balitu, egingo zioten.

Ez da dudarik bertso horiek irakurleengandik ez dutela jaso entzuleengandik haina txalo. Liburuak hoztu egiten du bertsoa. Burni gurituari urak

egiten diona egiten dio liburuak bertsoari: guritasuna kendu. Dударik ez dena, bertsoa entzuteko da.

Liburua, akatsak nabarmendu erazteko da ona. Burni gurituarentzat ura bezalaxe. Dena su da burnia uretan sartu aurretik. Dena liluragarri da. Urak erakusten du zer kalitate duen. Hotzean ikusten zaizkio zuloak eta zirrikituak eta abar.

Hamaika bertso ere, jaialdikoan eder zirudiena, kaxkartu da gero moldezko letretan. Kantatu zen momentuan giroak eman zion edertasuna falta du. Itzali egin zaio gauko sua. Hori da guztia.

*Deia*, 89-III-26

## Nik ez dakit...

---

**N**IK ez dakit gauza haundirik, egia esan. Bada hor besterik uste duenik gugatik. Gu eskolatuak omen gara eta guk asko omen dakigu. Eskolarena egia da; baina eskola berez ezer gutxi zela aspaldi esan zuten. Berez behar da izan Billabonakoa.

Nik ez dakit telebista kontuetan ezer. Aditzea badut horko minutuak eta orduak asko balio omen dutela dirutan. Leihatila horretan eskaintzen zaigun edozein huskeria asko kostatzen omen da. Horren aditzea badut; baina zergatik izan daitekeen hori horrela, ezin dut asmatu.

Nik ez dakit, batere ustekabeen lehengo Pazko biharamunean ikusi eta entzun ahal izan nuen "Hitzetik hortzera" saioa, zertsu kosta dakioken telebistari. Ordubete da, eta horko orduak garestiak omen direnez gero, dexente balioko du bertsozko honek ere.

Nik ez dakit teknikoki oso ongi egina zegonetz astelehen gauekoa. Hori kritikari ofizialentzat uzten dut. Nik dakidana, guri asko gustatu zitzaigula. Nola ez zitzaigun bada gustatuko, entzun eta ikusi genituen gauzak eta pertsonak entzun eta ikusita gero? Joxe Lizasoren mezua ederra zen Aberri-egunerako. Ez du aurreneko aldia gauza bera esaten duela. Baina sermoilari txarrari baino kasu gehiagorik ez diogula egiten esango nuke. Eta Lazkao-Txikiren bihurri-aurpegi harekin nola ez gustora egon? Bista bajatua daukala baina, begi haietan badago orain-



dik argia eta grazia. Hala ere ez dut uste behar hainbat zumu atera zitzaionik elkarrizketa hari. Lazkao-Txikik ez dut uste behar haina hitzegin zue-nik eta galderei behar bezala erantzun zienik. Ixkin-txo egiten ziela uste dut, demontre harek, Joxerra-ren galderei. Eta gero sagardotegia. Sagarrarena ez zegoen gaizki. Klabe altuegietan nik uste; kultura behar zen, zertan ari zen jakiteko. Gainerakoa ongi. Bi "sudur-motzak" koplatan aritu izan balira, hobe, nik uste.

Nik ez dakit, telebistako manejuak gehiago erabiliaz, saio hobe egin daitekeen ala ez. Ez dakit maizago egitea zenbat kostako litzatekeen ere. Baina nik maizago nahiko nuke, batere hobetu gabe ere. Hobetuko balitz, zer esanik ez. Beraz, aurrera, Joxerra eta konpainia.

*Deia, 89-IV-8*

## Zutik bertsoan

---

**Z**ALDIBIN nintzen gaur zortzi. Artzanberri bertso-sariketa hasten zen, eta bertsolari gazteak ezagutzera joan nintzen. Batzu ezagunak nituen; baina bazen ez-ezagunik. Eta erdi-ezagun bat ere agertu zen tartean. Aurpegiz ezagutzen nuen; baina bertsoalariz ez.

Harritu ninduen benetan mutil huraxe han ikusteak. Sekulan ez nuen entzun bertsoarako zaletasunik zuenik ere. Kantatzen zuenik gutxiago. Donostiarra da eta kale-kalekoa. Azkena gelditu zen lehengoan; baina egin egin zuen bertsoan. Segitzen badio, aterako dela esango nuke bertsolari. Etorria badu. Bertsoa moldatzeko ohitura falta zaio baka-rrik. Eta hori ibiliak eta jardunak ematen dute. Animo, beraz, Jon.

Kurioso antolatua zegoen saioa Guraso Elkarte-an. Iñaki Murua bertsolari ezaguna zen gaiemaile. Mahaiko, berriz, Peña, Mendizabal, Egaña eta Rufino Iraola. Jendeak arretaz eta errespetoz entzun ziztuen bertsoak, nahiz afalondoa izan eta jendea hotzak egon ez. Gaxte-gaxterik ere bazen entzule arte-an. Nexkak gehiago mutikoak baino. Gizonezkoak izan, nonbait, kantariak. Dena ongi horrera arte.

Nik gauza bat egingo nuen beste nolabait. Bertsolariak, afaldu zuten mahai berean eta beretik aritu ziren kantari. Mikrofonoa eskura ematen zitzaizen eta bere hartan ekiten zioten kantari. Eserita de-

nak. Aurrean afaritako ontziak eta mahaiaren bestaldean afaldar lagunak.

Nik ez dut uste hori denik bertsoan egiteko egoerarik egokiena. Askoz hobe dela uste dut tranpadura baten gainean, edo beste nonbait, baina entzuleengandik tarte gehixeagorekin. Hori hurbilegi da. Babesik gabe gelditzen da bertsolaria. Ez dauka tarterik, beraren begiak hutsunean gal daitezten. Ez dauka edukitzerik bere begiak ezertan finkatu gabe.

Bestalde, gorpuzkera ere zutik hobeki doakiola uste dut bertsolariari kantuan ari denean. Osoagoan dagoela esango nuke eta indarrak batera biltzeko egoera hobean. Eserita dagoena, bi pusketan dago nolabait, eta bertsoan egiteko bilduan egon behar da. Tartearen babesa eta gorpuzkera garrantzizkoak direla esango nuke bertsoan egoki egiteko.

*Deia, 89-IV-15*

## Berezkoa

---

**E**GUNA astekariak badu orrialde bat bertso kon-  
tuekin. Aste honetakoak “Zaldibiko berriak”  
delako sailtxo bat dakar tartean. Xabier Eguzkitzek  
berak idatzia dago “Artxanberri eta Patxi Errota VII”  
dela eta. Sorozabal izan omen zen aurren eta Anats  
aurrenbigarren. Zorionak bieri.

Izenak eman eta gero hala dio gure azpeitia-  
rrak: “Bi bertsolari hauek dira gaurko gazteen talde-  
an berezkotasunaren eredu gisa har litezkeen biak  
edo bi nagusienetakoak behintzat, eta hori oso onga-  
rri dela derizkiot, halakoak txapelketan zer eginik  
gabe geratzea gehiegitan jasan behar izan den tris-  
tura delako”.

Berezkotasuna. Zer da hori? Bertsoak azkar  
kantatzea? Ugari kantatzea? Azkena ixiltzea kanta-  
ri? Noiznahi eta nonnahi bertsotan jardutea? Hala-  
holako bertsoetan txistetxoren bat edo beste egitea?

Berezkotasuna, zerbait izatekotan, doakionean  
eta behar denean bertso onak kantatzea da. Bertso  
beteak, zehatzak, argiak, etorrizkoak, hitz batean,  
gogoangarriak. Horretan ikusten da eta ikusi behar  
da berezkotasuna.

Nik oraindik ez diot entzun inori bertso gogoan-  
garri aldrebesik. Edozeinek edertzat gogoratzen di-  
zun bertsoa, dela oraingoa edo dela lehengoa, beti  
bertso biribila kantatuko dizu. Hanka-motzik nahiz  
beso- motzik ez du inork gogoratzen. Ongi egindako

bertsoa beti. Bertso bertsoa. Ez txisteren bat edo ateraldixoren bat daukan bertsoa.

Oraindainoko txapelak bildu dituztenen izenak, honako hauek ditugu: Basarri, Txirrita, Basarri, Uztapide, Amuriza eta Lizaso "Sebastian". Ez dut uste horien bertsoak berezkotasunari inolako zorrik diotenik. Horiek baino berezkoagoa zirudienik eta dirudienik baditaike horien garaietan; baina hoberik nekez. Berezkotasunaren neurria, ontasunak izan behar du eta ez alderantziz.

"Dohaina eta lana" jarri zion dudako berezkotasuna ez zuen harek lema bertsolaritzari. Eta urren-goek ere ala jarri beharko diote: "Dohaina eta lana". Eta neurria beti bertso ona izango da.

*Deia, 89-IV-23*

## “Bapatean 88”

---

**J**ENDEAK badaki, hemen esaten ari gabe, “Bapatean 88” bertso-liburu bat dela. Izenak berak erakusten du noizkoak diren. Joan den urtekoak. Nongoak diren berriz, ez dago hasterik esaten. Nonahikoak direla esanda bukatzen da aguroen. Norenak diren ere, izenez izen, ez dago esaterik. Zerrenda luzeegia litzateke. Hitz batean esateko, bertso asko dira, toki askotakoak eta bertsolari askorenak. Eta mila pezeta balio du liburuak. Besterik ez? Horixe bakarrik. Horrenbeste? Horrenbestexe.

Hirurogeitasei bertsolarik botatako 582 bertso horiek, neke haundirik gabe pasako ditu irakurleak. Gehienak kantatuz egingo ditu, nik uste, edozein irakurlek, bertsolari nahiz bertsozale. Den-denak ez noski, oraindik belarrietan ezarri gabeko zenbait doinu berri ere bai baitago liburu horretan.

Zenbait bertso, horixe egingo du irakurleak nahiz abesleak: pasa. Eta ez ditu errepatatuko. Hai-zearen magal zabalean lo utzi beharreko bat baino gehiago aurkituko du. Hainbesteren artean ez da harritzekoa. Ez dakiola maizegi gerta. Bestela liburu alperrik erosiaren damua sor lekiok.

Orain arte ia txapelketetakoak bakarrik ezagutzen genituen horrela argitaratuak. Txapelketa giroz kanpora kantatutako hauek haiekin zer aldea izan dezaketen ikusteko balio dezakete. Ez dut uste mila diferentzi ateratzen diotenik elkarri. Haietan eta hauetan bapatekotasunaren mugak beti hor.

Bertsoa, dakigunez, kantatuz egiten da, eta kantatzeko. Hori du bere giroa. Baina idatzirik ere ematen bazaigu, irakurri ere egin daiteke. Hemen bertsoak isilak dira. Ez dute burrundarik, geldi daude. Eta biluzik. Doinuaren apaindurarik ez dago hemen. Bertsoaren berezko neurriak gehiago ikus daitezke horrela.

Hurrengo txapelketan epailetzan ari behar dutenek badaukate liburu honetan zer ikusirik eta zer ikasirik. Nahiko poliki egin dezakete bertsolari bakoitzaren argazkia. Zein zertan luzitzen den eta zeinek nondik herren egiten duen igerriko diote.

Ez dut uste inori damutuko zaionik mila pezeta zikin pagatu izana liburua. Horixe baino gehiago balio duela iruditzen zait. Ni behintzat, bi halako balio izan balu ere, ez nintzen dendan utzita aterako.

*Deia, 1989*

## Kezka

---

**B**ERTSOA nola hobeki neurtuko ikusten eta ikasten ibiliak gara joan den aspaldian han eta hemen. Guztia, epaiketa lanak ahalik eta ondoren egin nahiz.

Entzun dudanez, zenbait jenderi, lehenaz gain, kezka berriak sortu zaizkio. Aipatu eta eztabaidatu diren hainbat eta hainbat puntu gogoan izan behar badira bertsoa kalifikatzerakoan, lan gaiztoa ote den bertsoak epaitze hori. Ez ote den posible, alegia, bertsoa entzun hainean puntu horiek denak gogoan edukitzea eta aplikatzea.

Izan ere, xehetasunetan sartuz gero, helduleku asko ematen du bertsoak, eta guztiek dute zerikusia bertsoaren kalitatean. Latinez esaten zen “onak on, alde guztietatik behar zuela hala izan”, eta “txarra txar, edozein hutsek egiten zuela”. Bertso kontuetan ere hori horrela da. Zernahi hutsek txar dezake bertso bat. Ona izateko, berriz, osoki behar du izan on.

Ez da harritzekoa, beraz, bertsoaren hainbat eta hainbat alde eta ertz eta zoko miatu ondoren, epaitu ezinaren irudipen bat sortzea lan horretan ari behar dutenetan.

Hala ere, nik esan behar banu, bertsoa arretaz entzuten ohitua dagoen belarriak, berehalaxe salatzzen ditu akatsak, eta eskertzen merituak. Berehala hasten du entzumenak bere negar-xistua, ezer txarrik baldin badu, eta berehala bialtzen bere edermezua bihotzera, zerbait ederrik jaulki baldin bada.



Belarriaren arreta hori da landu eta lagundu behar dena.

Entzumenari lana errazten dio, hasteko, bertsoa nekerik gabe entzun ahal izateak. Belarria luzatzen ari behar bada esaten dena jasotzeko, kalte-tako neke bat gehitu zaio epaileari. Entzute hutsa bihurtzen da lan, eta epaitzeko ahalmena gutxitu egiten da. Bigarren hau bera bada aski lan, lehenarekin indarrak alferrik galtzen ibili gabe.

Eta entzun ezinari ulertu ezina eransten bazaio, akabo epaiketa lanak. Orduantxe etorri zaio erabateko ezina epaileari.

Beraz, baloratu behar duen materiala, argi eta garbi jasotzea da lehenengo baldintza epaiketa lanak ongi egin ahal izateko.

Ez da beti betetzen den baldintza, eroso eta garbi entzute eta ulertzearen hori. Harengatik ez bada honengatik, izan ohi da hor oztoporik.

*Deia, 89-V-13*

## “Baldatikan oraintxe...”

---

**B**APATEKO bederatzi puntukoetan nik ezagutzen dudan bertsorik harrigarrienetako batetik dio hori. “Baldatikan oraintxe noa beragana”. Irratiz bertsoak entzuten ari zaion amarengana doa bertsolaria Donostiako frontoitik. Ez da dudarik, bai larriak eta bai “loriak”, maitaleenak ditugunengana garamatzala beti.

Gaur ere Baldan ez da faltako larririk eta “loriarik”. Gure eskola eta ikastolako txiki bertsolari-gaiek izango dute era guztietako emoziorik. Eta ez gordean edukitzeko. Ezagungo du saridunak, eta zer esanik ez sarigabeak. Eta horiek ere eramango ditu norabaitera emozioak. Beren maiteengana joango dira horien buru-bihotzak ere. Ez ordea “Baldatikan” kanpora.

Txikien ondoan han izango dira gurasoak ere. Beren horiekin poztuko eta penatuko dira. Txikiak baino gutxiago ez gero! Irabaztunaren musuak mal-koren bat leherraraziko du gurasoaren begietan, “ez baita beti pena/negarren gakoa”. Galtzailearenak ez dezake negarrik egin, ez-irabaziaren pena areagotuko bait lioke maiteari. Irripar neketsu bat ikusiko du sarigabeak gurasoaren begietan. Irri ekarria, ez etorria. Baina irria behintzat. Eta ez al zuen bada bertsolariak kantatu “nahiz irria gezurra izan/ eta berari eman min, bederen beti bere inguruan/ eginen dautzu atsegin”? Honela izango da maitale-maitatuen festa. Baldan errendituko da. “Baldatikan” inora joan beharrik gabe.

Baina Baldako festa ez da maitale-maitatuen artekoa bakarrik. Miresleak ere hor izango dira, eta hauen burruna errendi dezakeen frontoirik ez da munduan. Gainez egingo dio Baldari, eta zabalduko da herririk herri gaur eguerdiarte Donostian gertatzen dena. Beraienak galdu edo irabazi, berek festa egingo dute. Festa Baldan, festa joanetorrian eta festa beren herrietan. A zer eguna daukaten gaur gure txiki bertsozale festajario hauek! Eguraldia eta Jainkoa lagun dakizkiela egun eder hau ospatzen.

*Deia, 89-VI-3*

# Ikara

---

**H**ORIXE da egia. Ikara ari zait sartzen joan den aspaldi honetan. Eta guztia, hainbat hilabeteetan isilik dagoen ahots horrengatik. Malapartatua! Entzun berri-berriak ditut “Txantxangorria” gaiarekin kantatuak, eta berriro ere sumatua dut barrua eta axala kizkurrarazten dituen ikara hura. Zeinen zirrara kilikagarriak! Ikara goxo hori berriz sentitzetik izango ez ote dudanaren ikara gorriak nauka harturik azkenaldi honetan.

Irakurri, bai, irakurtzen ditut etxanotarraren bertsoak. Behin eta berriz irakurri ere. Azkenaldi honetan egunkarietan eta aldizkarietan dabilzan “Ogi gogorrari, hagina zorrotz” direlako horiek ere, gutxienez hiru aldiz irakurri ditut. Eta lehenengoan baino gehiago gustatu zaizkit bigarrenengoan, eta bigarrenengoan baino gehiago hirugarrenengoan. Bertso onak hala behar du, irakurriago eta gustatuago. Edo hobeki esan, kantatuago eta gustatuago.

Ez daukagu beraz isilik gure “ahoskabea”. Badihardu berbetan. Ez ordea kantetan. Eta txantxangorria ez omen bada ere “kantari abilla”, hari hura kantatu ziona, bai, bada. Eta halako doinuetan ari denean batez ere, nahiz ezagun izan orduan ere ez-tarri haretan badela zerbait, azken bertsoko azken puntua bueltan goitik ematen duenean. Halako tinbre falta bat sumatzen zaio. Baina orain dena falta zaio, tinbre eta beste.

Eta gu ahots ikaragarri hura galtzeko ikararekin.

Badirudi zenbait jende txapelketan parte hartu ahal ez izateak kezkatzen duela. Neri horrek ematen dit kuidadorik gutxiena. Bera ere ez du horrek gehiegi kezkatzen. Egin xamarra ote duen iruditzen omen zaio txapelketetan egin beharrekoa. Horretan ni ez nau irizkide, han ere ez bait du inork harenik egingo; baina, berriz esanda ere, hori da gutxienekoa.

Bertsolaritza ez du txapelketak egiten . Eta etxanotarrak bertsolaritzari eman dioena ere, ez da txapelketetakoa. Hitzez eta izkribuz eta kantuz bertsolaritzara ekarri duen guztia ez da kabitzen txapelketetan. Horietaz kanpo dago.

“Jainkoa banintza”ka ari den kantu batean berak dioenez, mundu osoa dantzan jarriko omen luke, ahal balu. Nik, baldintza hori neure esku baneka, berbetan eta bertsotan jarriko nuke Xabier Amuriza.

*Deia, 89-VI-10*

# Gazteak

---

**G**AZTEAK, txapelketa nagusia dela eta ez dela, askotan aipatzen dira. Norgehiagoka honetan norainotsu iritsi ote daitezkeen eta bat eta beste, esan da kontu bat baino gehiago. Eta esango da, nik uste.

Inoiz bada eta itxaropentsu agertzeko moduan dira oraingo honetan gazteak. Lehengo asteburu honetan, nahiz larunbatez eta nahiz igandez, hamaika bihankako bagara ahozabalik egonak gazteei begira. Izenak esan beharrik ez legoke; baina Txang eta Arantxa ez dira, behin eta berriz esanda ere, horren erraz gastatzen diren izenak. Harritu dute mundua Frantzia alde horretan. Gehiago besterik ezer egiten ez badute ere, izen gogoangarriak izango dira gaurdanik.

Roland Garros, famatua bazen ere lehendik, famatuagoa dugu gaurdanik. Zer izango ote litzateke gure txapelketa, honelakorik, edo honelatsukorik, gerta baledi lehiaketa honetan? Baina posible ote litzateke gero honelako sorpresarik bertso kontuetan?

Bi lehiaketa horiek ez direla parekoak ez dakienik ez dago hemen. Bata gorputzaren abileziaz baliatzen den kirola da, eta bestea buruarenaz. Ez da berdin. Hala ere, zeini ez zaio bururatzen, bi abilezia mota horiek, etorri eta joan, bateratsu egin ohi dutela? Ez al dira memoria eta hankak bateratsu

moteltzen? Urteak aurrera joan hainean abildade gehienek atzera egiten dute.

“Hala ere ez da berdin, gizona” eginez hasi zait honez gero norbait espantuka. Eta egia da, ez da berdin. Ez da ezinezkoa. Neri 1935ekoa datorkit burura. Han ere gazte bat izan zen nagusi. Hogei urtez behekoa. Eta bazuen alboan bertsolari heldurik eta zaildurik. Ordukorik ez daitekeela gaur gerta? Zeinek daki.

Oraintxe bertan ere ez du urtez urdindutako buru bat estaltzen azken txapelak. Hori ere gaztea da. Baina dexente gazteagoa zen estrainaldian zapaldu zuena. Eta berriz lehengora itzuli nahiko balu?

Dena dela, ez litzateke berriketa motza jarriko, Roland Garros bat gerta baledi gurean. Hobeak ona botatzekotan, betor.

*Deia*, 89-VI-17

## Mahaiak eta mahaia

---

**U**RTEAN zehar eta urteetan zehar Txapelketa nagusitik nagusira, hainbat eta hainbat mahai behar izaten da maila bateko eta besteko sariketak eta txapelketak epaitzeko, direla bertso idatziak edo direla bapatekoak. Sekulan baino gehiago gainera azken urteotan.

Eta sekulan ez dugu entzuten mahaia antolatzeko aparteko lan berezirik hartzen denik. Inori ez zaio entzuten halako edo holako mahaiak ez zuen gaitasunik epaitzeko. Gizonezko nahiz emakumezko, gazte nahiz zahar, bai hango eta bai hemengo, edotariko epaile eta mahaiak ikusi ditugu, eta inori ez diogu entzun aparteko kejarik. Antolatzaileek izendatutako epaileekin konforme izan da jendea.

Baina iristen da Txapelketa Nagusia, eta beti komeritan gara zorioneko mahaiarekin. Hasteko, antolatzaileez aparte, partehartzaileek ere badute beren zeregina mahai hori izendatzerakoan. Epaile zeintzu izan eta zenbat hango nahiz hemengo eta abar, partehartzaileek erabakitzea nahi da. Bestetik, epaia noiz eta nola adierazi ere beroiek esan behar dute. Eta beti komeritan eta esamesetan ditxosozko mahaiarekin.

Zer gertatzen da hor? Zergatik beste sariketa nahiz txapelketa bakar batetan ere jartzen ez diren baldintzak jarri behar dira txapelketa honetan? Garrantzizkoa delako? Hor bakarrik behar delako zuzentasuna eta besteetan ez? Harrigarria ez bada gero!



Beste norgehiagoka guztiak oso-osoan, epaimahaia barne, antolatzaileek eratu dituzte, eta mundu guztia konforme izan da. Mahaiko guztiak egokiak ziren. Denek gaitasunez eta zuzentasunez eman dute epaia. Eta ez da inolako okerririk izan. Ez du inork hitz bat ateratzeko motiborik izan. Dena ongi joan da.

Ez al litzateke aski prozedura bera txapelketa nagusian? Horrerrainoko mahaietan ibili den jende hori bera ez al litzateke nahikoa, den herrialdetakoa eta den pertsona klasea dela, euskalki konturen bat gogoan izan ezkerro, txapelketa nagusiko lanak egiteko?

Ongi dago gauzak ongi egin nahi izatea, eta behar bada, norbaitek esan duen bezala, apaizik eta frailerik ez sartzea; baina beste hori guztia...

*Deia, 89-VI-25*

## Telebista bertsotan

---

**T**LEBISTA bertsotan ari zen lehengo igande eguerdian gure sukaldean, ni etxera bildu nintzanean. Ez dakit bertsoengatik sakatua zioten boiari ala beste zerbaiten bila egina zuten; baina nik bertsotan harrapatu nuen telebista.

Nik entzun ez nituenak ez dakit nolatsu joanak zitezkeen. Azkenaldea zen nik entzun nuen zatia. Eta ez nuen bakarrik entzun. Ama nuen ondoan, eta honako bi gauza hauek entzun nizkion bertsoak ari zuten bitartean: “Neri ez da ezer nazka haundia-go ematen didanik bertso txarra baino”. “Hor Azpilla onena”. Hori da nik adineko bertsozale bati igandeko bertsoaioan entzun niona.

Egia esan, han bazen bertso-bertsoa ez zen zerbait saio hura moteltzen zuena gure amarentzat. Hizketa kontua zen. Xanpuni ez zion erdia ere ulertzen gure amak. Batetik euskalkia du arrotza guretzat lapurtarrak, eta bestetik bertsozalea da bihurri xamarra bera. Eta jakina, laukote batean norbait ondo ulertzen ez bazaio eta beste norbait hala-hola edo ari bada eta abar, ez da harritzekoa saioa zozoa gertatzea entzulearentzat. Baina bada besterik ere, nik uste.

Bertsoa komunikabideetara ekarri beharra omen zegoen. Hori hotsegin eta hotsegin ari ginen aspaldian. Irratian aspalditxotik, beraren jaioteguetik ia-ia, sartuak genituen bertsoak. Orain ugarriagotu egin dira hor ere. Bertsolari bati entzuna

diot, nahikoa eta gehiegi ere badela irratietan bertsoa. Okitu egingo omen gaituzte. Ez dakit.

Telebistan ia ez zegoen bertsoarik. Orain hor ere hasiak ditugu sartzen. Gure ontzi sorgin hori bertsoan ere hasi zaigu. Ai ongi egin baleza! Zer atsegina guretzat.

Eta zer egin dugu telebista bertsoan jartzeko? Errazena nik uste. Jaialdi bat hartu plaza edo antzoki batetan eta hura eman. Orain sukaldea dugu bakoitzak bertsoak entzuteko gure plazatxoak. Hori al zen egin behar zena? Plaza al da gure sukaldera edo saloira ekarri behar dena? Ez al du bertsoak antolamendu berezirik eskatzen telebistarako, beste emanaldi-mota askok eta askok eskatzen duen bezala?

*Deia, 1989*

## Zer du Bizkaiak?

---

**Z**ER du Bizkaiak mahaiaren antolaketan hoinbeste eta hainbesteko zailtasunak aurkitzeko eta erabiltzeko? Zeren beldur da? Txapelarekin bigabekeriaren bat egingo ote zaion? Hori al da arazoa?

Nik esan behar banu, Bizkaiak badu mahaiarekin fiatzeko hainbat motibo.

Epaileen jatorriari batere behatu gabe osatutako mahaiek, hirutatik bitan, beraren alde eman badute epaia, zerk kezkatzen du Bizkaia? Zertarako da probintziz hoinbestenaka mahaikedeak izendatze hori? Ez dirudi oraindik mahaia eskualdekeriarik erakutsi duenik. Zertan dabilta, beraz, mahaikoen jatorria zaindu beharrez?

Egia esan, ez da berri-berria Bizkaiak orain darabilkien kontu hori. Duela zazpi bat urte ere, azkenurreko txapelketaren inguruan, sortu zen hots bereko marmarra. Gipuzkoar hainbat bizkaitar behar omen ziren mahaian. Ez zitzaion jaramonik egin. Ez egin behar ere. Nik ez nekien orduan, eta ez dakit orain ere, nongotarrak ziren gehiago mahaian.

Nik dakidana, zera da: Epaia Bizkaiaren alde eman zela eta txapela txuri-gorrien lurraldera joan zela. Baina, dirudenez, ez zen aski izan, zeudekeen susmo txarrak itzaltzeko, agi denean, berriro kontu bera bait dabil Bizkaian. Ene Bizkaia, Bizkaia, zerk fiakaizten zaitu hoinbeste zeure senideekin?

Horrela moldatzen den mahai bat, sortzetik beretik, ez al da jaiotzen alderdikoi? Halako edo hola-ko probintziko direlako hautatuak izan direnak, ez al dira jartzen mahaian beren probintzikoaren babesetarako? Ez al zaie eransten ardura berezi bat epaile izateaz gain? Hala esan daiteke.

Eta ez al dituzte beste epaileak ere berenaren alde egitera behartzen, edo bultzatzen bederen? Haiek berena bereziki babesteko eginkizuna baldin badute, hauek ere ez al dute eskubide eta obligazio berdina? Bestela nork defendatuko ditu hauen eskualdekoak, haiek berenekoak egin behar badituzte bereziki? Ezin utziko dira bada inoren babes berezirik gabe beren lurraldekoak.

Era hortara antolatzen den mahai, pitzatua jaiotzen dela esango nuke nik. Nolabaiteko besatiraka batean esertzen direla epaileak. Elkarrekin fiaskaiztuta. Ez da egoera sana.

Eta nondik sortuko arazoa, eta Bizkaitik, azken aldi honetako txapelek gehien mimatu duten probintzitik. Azkenengoan gure buruaren tapaki hori Gipuzkoan gelditu zela? Bai, baina gaitza lehenagokoa da.

Biba Bizkaiko bertsolariak, ez bizkaitar direlako, bertsolari direlako baizik.

*Deia, 1989*

## Orain ere onak badaude

---

**I**GANDE eguerdiartero Euskadi Irratiak ematen dituen bertsoak entzuten omen dituen bat bildu zait lehengoan ondora, bertso horiek famatu eta famatu. Horiek omen dira noski bertsoak eta haiek omen ziren bertsolariak. Dena berak esaten zuen, eta nik “bai, bai” besterik ez nion eransten. Zertan hasiko zara kritiko izaten berearekin hain gustora dagoen baten aurrean?

Baina berak nahi hainako berotasunik ez zuen nonbait somatzen nere baiezkoetan, eta “orain ere bertsolari onak badaude” atera zitzaion berehalaxe. Eta izenak ematen hasi zen. Ez, ordea, behin eta berriz lehengo bertsolariak famatu gabe. Haien arrazoiak, noski!

Ez dago esan beharrik, hura ere, ni bezalaxe, ez dela eskolume bat. Aspalditxo hortzetan berdindua da eta burualdea ere ez zitzaion oraintxe hasi urdintzen eta soiltzen. Eta neure ingurura bildu zen unea bazkalondo bat zela jakinerazten bada, edozeinek igerriko dio berotasunik aski bazitekeela mihian ez ezik beste nonbait ere, eta gandurik ere bai lurrinaren lurrinez. Hitz batean, geure barruko merkantzia laisterren eta nabarmenkien bota ohi dugun tamainan zegoela nere solaskidea. Horrelako konfesio franko izan ohi da gure kontzientziko krisketak otordu on baten gurinak jotzen dituenean. Ez dago horrelakorik gure barruaren atakak zabaltzeko.

Lehengoen eta oraingoen artean alde bat badagoela, gauza jakina da. Zeintzuk diren hobeak jakite hori, ordea, beste kontu bat da. Nere iritzira, oraingoek motibo gehiago daukate hobeak izateko lehenagoek baino. Zeinek uka dezake, jaiotzez haiek aina baditezkeela hauek? Amaren semeak, orduan bezalaxe sor daitezke gaur ere. Beraz horretan berdin dira. Edo daitezke. Gero, ordea, oraingoek badaukate ordukoek ez zuten aukerarik eta alderdirik. Haiek ez zezaketen landu bururik eta belarririk hauek bezala doinuz, ez bertsoz. Gaurko bertsolariak aukerako kasetak dauzka, nahi hainbat bertso entzuteko eta hainbat eta hainbat doinu berri eta bixiko entzuteko. Ea horrek zenbat aberastu eta lagundu dezakeen berezkoa. Gaur, berezkoa puxka bat duen bertsolaria, asko horni eta jantzi daiteke. Eta hori ez da nolana hiko alderdia.

*Deia, 89-VII-22*

## Billabonan...

---

**B**ILLABONAN ginen lehengo larunbat iluntzean jaialdi bat egiten. Lau bertsolarirekin nintzen. Santiotan urtero antolatu ohi dute saio bat eta aurreten ere bai. Azken urte hauetan guztietan zinean izan da. Azkeneko hau plazan egin da. Plaza bikaina du Billabonak, erreboteko plaza bat eta ezkerparretadun frontoi bat eskuadrari dituela. Orain ederragotzekotan izan behar dute. Bejondaiela!

Zortziak genuen ordua jarria hasteko. Laurden gutxietarako han ginen bostetatik lau. Boskarrena zortzi terdietan iritxi zen. Orduerdiko atzerapenez beraz. Ez da berandu ibili ohi denetakoa; baina atzerapena handia da pestetan ere. Hala ere izan zuen denbora aspertzeko –eta ia-ia haserretzeko– jaialdia hasi aurretik.

Zortzietan ordua, eta han ez zegoen ez jendearentzat ahulkirik, ez bertsolarientzat mikrofonorik eta ez inorentzat ezer. Ez eta arduradunik ere ez zegoen. Mundu guztia bertsolariak non ziren galdezka eta inondik inolako erantzunik ez. Noizpaiteko batean aulki batzuk jartzen hasi ziren oholtzaduraren aurrean. Eskerrak! Horrela jendeak eseri bederen egin ahal izan zuen. Izan zuten denbora beren jarlekuak berotzeko. Bederatziak eta laurdenetan hasi zen jaialdia, jendeak aspertu ederra hartuta gero. Geu ere lotsatu eta guzti egin ginen “noiz hasi behar duzue?” hainbeste aldiz entzuten. Bazen kantatu gabe alde egiteko prest zen bertsolaririk ere. Eta ez garaiz etorritakoetakoa.



Horrelaxe ibili ginen Billabonan, han ere denak ez dira nonbait berez hangoak. Baina ez da hangoa bakarrik formalidaderik ezaren kontu hori. Lehengo igande batean eguerdiko hamabietan zuten ematekoa herri-kirol jaialdi bat Errenteriatik. ETBk puntuan ireki zuen bere lehioa han gertatzen zena ikusi nahiz; baina, han ez zegoen artean apustu itxurarik. Hogei minutu luzetan han ibili behar izan zuen, zer egin ez zekiela. Zergatik? Gure betiko formalidade faltagatik. Hori da egiazko esplikazio bakarra.

Billabonan atera genuen kontu hau ere, eta konforme ginen geure gauzetan erakusten dugun formalidade faltarekin. Hori bakarrik falta zitzaigun. Lehen jendeak grina gutxi daukala esaten ari gara geureenak ditugun gauzetarako, eta orain gu jende hori uxatzen gure axolagabekeriaz. Ederra kontua!

*Deia, 89-VII-5*

## Egun gogoangarriak

---

**B**ADIRA egun gogoangarriak bertsolaritzaren kon-  
dairan, bertsozale guztien gogoan gelditu dire-  
nak. Bat, tximista batek bezala bertsozaleen bihotza  
jo zuena, Uztapide haundia bertsorik kantatu ezin-  
da plazan gelditu zeneko hura dugu dudarik gabe.  
Hasi eta isildu. Berriz hasi eta berriz isildu. Eta  
gehiago hasi ez. Handik etxera eraman zuten. Do-  
nostiako Anoeta pelotalekuan izan zen. Apirilaren  
hogeitamarra zen eguna. Urtea, 1972a. Egun harta-  
koak dira hemen dakartzadan bertso hauek. Honela  
ematen dio gaia Joxe Mari Iriondok Xalbador zenari:  
“Zergatik maite duzu oraindik xahartzen ari zaizun  
emaztea?”. Hona erantzuna, hiru bertsoetan.

“Andrea ez dut nik hartu  
geroko menturan.  
Neguaz pentsa gabe  
maitatu dut udan.  
Bainan oraintxe jartzen  
ari naiz ni dudan  
gero ta maiteago  
zergaitk zaitudan”.

“Zure egina nauzu  
muin eta ezurra.  
Hola pasako zela  
banuen beldurra.  
Oraino re zurekin  
ni beti gustura,  
zuga kusi nuena  
ez baizen gezurra”.

Iduzki egina da  
zu zaren itzala.  
Luzaro elgarrekin  
gaitezke, oxala!  
Ikusten dut beti ta  
hobe zoazala  
armairu xokoan den  
arnoa bezala”

(Iparragirreraren “Gitarra zartxo bat...” bezala:  
Buruz ari naiz kopiatzen.)

*Deia, 89-VIII-26*

## Mila esker! Mila zorion!

---

**H**ORI nuen telegramarako pentsatua. Joaterik ez nuenez gero –mendian bait nintzen ikasleekin– telegramaren esku-erakutsia bederen egin nahi nion gure Aita Xanti haundiari; baina pentsatu bakarrik egin nuen. Bialtzerik ez nuen izan. Hau moxtadea!

Izan du merezitako aitormenik eta egin zaio eskerronezko agerpenik. Horiek guztiak eta gehiago ere ongi mereziak ditu karmeldar zintzo eta euskaltzale guztizko honek. Badu sarturik hamaika ordu isil eta luze liburuz betetako bere gela haretan bizkaitar prestu honek. Bejondaiola!

Euskaraz idazten duen edozein lumari, idazten duen lekuan eta idazten duen gaiz idazten duela, aipamenak eta goralmenak bait lerizkioke Aita Xanti-rentzat, bertso kontuetan ari den bati zer esanik ez. Sail honetan ere zorra diogu gure idazle oparoari.

Baina ni galdezka hasiko banintza, nahiz bertsolari nahiz bertsozale zenbaiti, zer zor dion bertsolaritzak Larreako karmeldar honi, bat baino gehiago geldituko litzateke zer erantzun ez dakiela.

“Gure bertsolariak” liburua da gutxienez txoko honetan zor dioguna Aita Xantiri. Aurten egingo ditu bere zilar-eztaiak liburu horrek. Ordurarteko bertsolarien eta bertsolaritzaren berri hor dauka nahi duenak. Bertsoaren neurkeraz eta abar ere ari da gure fraile jakintsua. Bertsolaritzaren sailetan sartu nahi duenarentzat irakasle on bat da.

Horra zergatik ekarri dugun Onaindia jauna as-teroko solasaldi honetara. Etorri-berria pranko ikusi dugu azken bolara honetan bertsoaren sailletara. Ez luzarorako zenbait, zorionez. Ekarri zituen haizeak eramanez.

Aita Xanti ez zuen haizeak ekarri eta ez du ere eramanez. Ez litzateke txarra izango seinaletxoren bat egitea ere bertsolaritzaren barnean Aita Xanti Onaindia jaunari. Zorra bazaio.

*Deia, 1989*

## Arratsalde argia

---

**A**SPALDI egin beharreko eta egin nahiko bisita egin berria dut joan den asteazkenean zortzi. Bakar bakarrik joan nintzen. Lagun batekin edo besterekin joatekotan ibilia nintzen lehen, baina joan gabea. Oraingoan ez naiz lagunei begira egon. Egia esan, ez zegoen egoterik ere. Gehienak “porai” ditut oporretan. Sagardo botila batzu hartu eta joan egin nintzen bakar bakarrik. Esango dut nora.

Ez naiz haserre etorria Xabier Amuriza eta beraren emazte Arantxa bisitatuta. Ez ninduten espero eta harritu ziren. Haiek uste Berriz gaineko Goiherri auzoan bizi direlako inork ez zituela bilatuko? Bilatu, ordea, ni bezelako mundurik gabeko batek ere. Galdetuz iristen omen da Erromara eta Amuriza eta beraren emaztea bizi diren etxera ere halaxe joan beharra dago: galdetuz. Itaunduz, berek esango luketen bezala, edo eta preguntetan. Edozein bizkaitarrek erakusten du zuzen bidea, Durango alde horretan Amuriza non bizi den galdetzen bazu.

Ustez gure bikotearen etxera heldu nintzenean, deskuidatu egin nintzela pentsatu nuen, emakume ezezagun bat atarian alfonbra astintzen ikustean. “Barkatu-esan nion-. Deskuidatu egin naizela uste dut. Ni Amurizaren bila nabil”. “Ez, ez. Ez zara deskuidatu” erantzun zidan andreak. Hura zela Amurizaren etxea eta han zirela senar-emazteak. Eta barrura sarrerazi ninduen.

Sarreran bertan egin nuen topo Arantxarekin. Bina musu eman genion elkarri, eta nik oso polita zegoela esan nion, lirain-liraina. "Laster hasiko naz berriro be loditzen" esan zidan berak, eskua zabel gainean ezarriz. Ohartu nintzen zer esan nahi zidan eta neure bizitzako zorionik bihoztienetakoak opa izan nizkion gure andreari.

"Xabierrek hor beheran dihardu" esan zidan, eta hara joan ginen. Hura gizonaren "piura"! Galtza motxetan, lepotik gora dena bizar eta ile, eta beste guztia dena zuri. Elkar besarkatu genuen, eta... bazerion hitza! Han zuen berriro, duela hilabete batzuk galdutako hitz-hotsa. Halare! Zertan ari zen eta abar hitz batzuek egin genituen eta hura dutxa bat hartzera eta itxuraz jaztera eta emaztea eta ni kalostra moduko batera exertzera, Anboto eta beraren ingurune guztia begien aurrean genuela.

Han kontatu zidan ahurdun nola zegoen eta medikuak lana egitea nola debekatu zion eta nik aurrena ikusi nuen emaztekoa laguntzera nola etorzen zaion. Eta kontatu zidan ere nolako moxtadeak ikusi zituzten aurtengo neguan. Aurrena hitza galdu zeharo Xabierrek, urrena orkatila puskatu eta gainera gainerakoak. Hura egoera noski elkarri ezer adierazi ezinez. Sinisten diogu. Orain kontentu dira. Eta gu ere bai. Arratsalde argia igaro dut lehengo asteazkenaren zortziko hori. Jainkoa lagun dakiela.

Bertsoaren txoko honetan ez dut uste berri atseginagorik eman dudarik egundaino. Nere irakurle apurrek ere atseginez hartuko dutela uste dut.

*Deia, 89-VII-30*

## Urruña

---

**U**RRUÑA izan daiteke gaur, apirilak 10, bertsolari eta bertsozaleen bilera-leku. “25 urtez azpiko bertsolarien **II Errexil Saria**” jokatzen da Ipar Euskadiko herri polit horretan. Hemengoentzat ere ez dago urrun Urruña, eta hango eta hemengo, bilduko dela jenderik esango nuke gaur herri bertsozale horretan.

Adina dute, besteak beste, jakineko baldintza, bertan parte hartu nahi duten bertsolariek. Gaztea izango da bertsolari kantatzailea bilkura horretan. Goizetik egiten da kanporaketa bat eta arratsaldean hoberenaren hautaketa. Badu egunak erakargarritasunik, bazkaria ere tarteko bait da.

Epaimahairik ez omen da izango. Entzuleek erabakiko dute, beraz, erabaki behar den guztia. Urruñan ez da entzule huts izango entzulea. Epaille ere izan beharko du.

Bada urte mordo bat, entzuleari horrelatsuko eginkizun bat eskaintzen hasi ginela, bai jaialdietan eta bai txapelketetan. Jaialdietakoa, bertsolariek berek debekatu ziguten egitea. Ez omen zuten nahi inolako bereizketarik. Guk hobe-beharrez egiten genuen. Jendea gustorago eta gehiago etortzen zela iruditzen zitzaigun, eta arreta ere haundiagoa jartzzen zuela. Eta berek epaitzekoa, bertsoaren bat izaten zen, edo ariketaren bat gehienez.

Nik konparatu ere egin izan nituen mahaiaren epaia eta entzulegoarena. Gogoan daukat behin



Añorgan, "Orixe Saria" jokatzeko batean, mahairi azpitik nola esan nion berak ere eman zezala bere epaia, nahiz entzulegoak hautatzen zuenarentzat izango zen gero saria. Ez zuten bertsolari bera hautatu biek. Entzulegoak baten izena eman zuen eta mahaiak beste batena.

Biak izan daitezke balekoak. Neroni bietara aritu izan naiz, eta bietara asmatu, edo hutsegín.

Iruñean, azkeneko txapelketakoan, entzule nintzen. Ez nuen beste zereginik. Saioa bukatu zenean, ordea, mahaikoek erabakia eman aurretik, irabaztun zitekeenaren izena eskatu zidan Euskadi Irratiak. Eta eman egin nuen, arriskuak arrisku. Eta asmatu egin nuen. Beraz biak izan daitezke balekoak.

Hala ere seguruagoa dela uste dut mahaiarena bestearena baino. Iruñean ere, mahaiko askotan izaten den batek hala esan zidan: "Nik holako (irabazi zuena ez) neukan aurreneko; baina lapitza eskuan hartzen denean, gauzak ez dira berdín ateratzen".

*Deia, 1989*

## Gaiak

---

**E**GUNKARIREN batean ikusi dudanez, Alkat ihol-diarrak zailtasunen bat izana du lehengo jaiez Hernanin, eman zioten gaia ulertzeko. Euskaldunon erdara-ikasi-beharrarena ateraldi polita izan daiteke; baina ez du balio. Gaiaren arabera kantatu behar da eta ez nolana.

Ez da lehenengo aldia horrelako ulertu-ezinak eta gaizki-ulertzeak gertatzen direla. Famatua izan zen Xalbadorren "Erromako zuba" ren hura. Guk badakigu zubi hori zer zubi-mota den. Harentzat, ordea, Italiako hiriburuko zubi bat besterik ez zitekeen izan, eta egundaino ikusi gabeko zubi hari jardun zuen kantari. Alde ederrean ariko zen kantari, etxeko sukaldetik hainbat alditan ikus zezakeen zubi koloretsuari kantatu izan balio. Alkat jaunari pasa zaiona, beraz, ez da lehenengoa, ez harrigarria eta badaiteke azkena ez izatea ere.

Horrelakorik gerta ez dadin, gai-ematea zehaztasunez egin behar da. Modu bakar batean ulertzeko eran esan behar dira gauzak. Bertsolariari ez dakiola dudarik sor. Dagoen egoera larrian egonik, alde-aldera esaten baldin bazaizkio gauzak, nahasi erazi dezakegu eta lehendaz gainera larri erazi. Lehenengo esanean har dezala eta garbi har dezala.

Horretarako, gaiak irakurtzea izan daiteke erosoena eta egokiena. Eta irakurketa, bertsolariari baino lehen, beste norbaitzuei egin behar zaie -adibidez gai prestatzaileei-, entzun hutsarekin zuzen

jaso daiteken ikusteko gaia. Horretarainoxe zaindu behar dela uste dut gaiaren prestaketa.

Eta zenbat eta hitz gutxiagotan adierazten den hobe, argi eta garbi adieraztekotan. Bertsolaria ez dago kontuetarako. Bere lana egin nahi du lehenbaitlehen. Eta gaijartzaileak ez dezaiola gaiaren lana besterik jarri, eta ez gaia ulertzearenik.

Hortaz aparte, ulertu ezinaren hori, euskalkien gorabeheran dago. Komeniko litzateke, akaso, iparraldeko epaile batek edo, gaiak hangoei eman aurretik ikustea, ulergarritasunik baduten ala ez jakiteko.

Eta orain arte esan gabeko zerbait ere esan beharra dago: Bertsolariak ez dezala gairik hasi ongi ulertu gabe. Bestela okerra egina legoke.

*Deia, 89-IX-4*

## Zuri, irakurle

---

**I**ZAN berri-berria naiz Antonio Maria Labaien jaunarenean. Beti euskal-gaietan jardun izan duen gizon honek, orain ere hala dihardu bere 91 urterekin. Orixe lagunaz idatzi duen lantxo bat osatzeko dato bat falta zuela gaztigatu zidan eskutitzez, eta hitzez erantzuna ematera joan nintzaion. Elkar agurtuta gero, nik neurea esan baino lehen, larunbateroko nere huskeriak pozik irakurtzen zituela esan zidan. Eta haien etxeko atea itxi eta atariko harmailetan behera nentorrela erabaki nuen gaur zer idatzi behar nuen.

Aspalditxoan ari nintzen pentsatzen, irakurle, egun batean zuri idatzi behar nizula. Zuretzat idazten dudala ez dago esan beharrik. Hori jakina da. Bestela ez nuke idatziko. Baina zuri ez nizun inoiz idatzi.

Ez dakit batere, irakurle, zu eta beste zenbat zaituztedan nere lerro labur hauen berri dakizutenak. Bakar batzuk bazeratela badakit. Azkena ikasi dutan izena esan dizut. Irakurle-lagun ospetsurik nahi bazenuen, horra hor bat. Gehiago ere aipa nitzazkizuke ezagunak eta izendunak. Izendun edo izengabe, irakurle berri baten berri izateak poza ematen duela esango dizut. Eta idazten jarraitzeko animo berriak sortzen direla.

Badakit, irakurle, larunbateroko neretxoaren zai egoten zarela. Eta badakit zenbaitetan huts egin dizula nereak. Jakin ezazu inoiz ere ez dela nere

erruz izan. Egunkariaren legeak dira inoiz gure larunbateroko solasaldia galerazten dutenak.

Aitortu behar dizut, nik nahi baino lehen etortzen zaidala askotan asteburua. Behin baino gehiagotan utzi behar izan dut zenbait txolarte goxo, zurekiko –eta neure buruarekiko– obligazio hau bete beharrez. Baina beti bete dut, inoiz estu xamar ibili banaiz ere.

Aurrera ere irakurle, ez zinduzket utzi nahi aseteroko hau irakurtzeko aukerarik gabe. Oraingoz ez behintzat. Noiz arte ez dakit. Betikorik ez dela hemen badakizu. Baina noizpait uztekotan ere, orain ezin uko egingo diogu behintzat.

Badakizu ongi, ene solaskide, udazken honetan, inoiz bada eta, bertso-ehize ugaria espero dugula. Txoko hau baino bazter zabalagorik hartuko du Txapelketak noski; baina hau ere berari dago kiola uste dut datozen hilabeteetan. Beraz oraingoz aurrera, zor dizudan aletxoarekin. Horrela eskertu nahi nizuke, irakurle, nereari hartzen diozun arreta. Hurrengo larunbatera arte, Jainkoak nahi badu.

*Deia, 89-IX-16*

## Mahaiaren alderdikeria?

---

**H**ORI adierazi nahi duela dirudi Karlos Ibarzabal nere adiskideak, honako hitz hauetan: “Dena den, gipuzkoarren aldeko jarrera ikusten dut nik nagusi, gupuzkoar bertsolariek tranpa asko egiten baitute euskararekin eta galtzaile beti bizkaitarrak ateratzen dira”. Parrafo osoa bizi ulerkorra ez bada ere, esaldi klaroa hor dago: “gipuzkoarren aldeko jarrera”.

Nik, egia esan, azken hamarkada honetan mahaiak egin duen lanari begira, ez dut gipuzkoarke-riarik somatzen. Ez dago ikusi besterik lehenengo postuak zein bertsolarientzat izan diren joan den aspaldian. Nik ez dut hor giputxen aldeko probintziakeriarik nabaritzen. Bizkaiko bertsolaria jaso duela gehienik lehen postuetara ikusten dut nik mahaiak. Beraz aurtengo Txapelketa arteko emaitzak ikusita, nik ez diot bilatzen nere adiskideak aditzera ematen duen moetak alderdikeriarik.

Gipuzkoar bertsolarien “tranpa” aipatzen da gero. Ez dut uste gaitz hori probintzi jakin batekoa bakarrik denik. Ez dut uste ere, gainera, tranparik gabeko bertsolaritzarik posible denik. Baina utz dezadan neure aburua eta natorren gure adiskidearenera. Eman dezagun “gipuzkoar bertsolariek tranpa asko egiten dutela”. Zakur xamarraren fama ere badugu eta, tira, aitor dezadan gure bekatua. Baina egia al da, hori mesedetan dutela bertsolari horiek? Edo, beste moduz esanda, tranpa horretan erori bezala egiten al da mahaia?

Erantzunik argiena, nik esan behar banu, lehenengo jardunaldien sailkapenean daukagu. Laugarren eta boskarren agertzen diren bertsolarietan. Eguzkitze eta Areitio ditugu. Horra hor Bizkaiko bertsolari-bertsolari bat. Zeinek esan dezake gipuzkoarrek baino “tranpa” gutxiago duenik? Eta horra hor Gipuzkoako beste bat. Zeinek esan diezaidake badela norbait Euskal Herri osoan, Bizkaia barne, gipuzkoar honek baino “tranpa” gutxiago duenik?

Eta horra hor biak berdin eginak mahaiak. Bizkaitar “tranpaduna” eta gipuzkoar “tranpagabea”, berdin daude biak sailkapenean. Berdin-berdin. Ez al da muestra polita mahaiaren nolabaiteko oreka ikusteko eta alderdikerien susmoa eta mamua uxatzeko? Nik hala esango nuke. Adibidea zoragarria dela uste dut. Eta adierazgarria! Tranposoek, nonahikoak direla ere, ez dute hori eta horrenbestez beren tranpan harrapatzen mahaia.

*Deia.* 89-IX-18

## Hutsegite pare bat

---

**B**AI, hutsegitetxo pare batek emango dit gaur hizpidea txoko honetarako. Kanporaketan zehar ondo ibili diren bi bertsoariri gertatuak dira: Anaxi eta Mendizabali.

Urnietarrak, bertsoari amaiera emateko puntu idatzia eskuan zeukala izan zuen bere ez-usteko eta ez-ohizko hutsegitea. Eskuko puntuaren errima berdinarekin egin zuen bertsoaren beste puntuetako bat. Ez dugu askotan ikusi tankera horietako pota bat.

Itsasondoarrak ere pota bat izan zuen bakarkako saioaren hirugarren bertsoan. Eta segirako bi puntutan egina gainera potoa. Elkarrengandik urrun dauden puntuen artean egiten den pota hura zerbait disimula daiteke; baina batetik besterako hori oso nabarmen gelditzen da.

Ez ditut aipatzen bi hutsegite horiek, hutsegite direlako. Bietan potoa ez den zerbaitek harritu nauelako aipatzen ditut. Anaxek eskuan dauka papera puntu idatziarekin. Zer gertatu zaio bere bertsoa puntu horren bukaera berdinarekin hasteko? Kontzentrazio falta bat nik uste. Gehiegizko konfiantza bat.

Mendizabalen kasuan, potoa baino lehenagoko zerbaitek harritu ninduen gehiena. Lau oinekin zortziko txikia egiteko erabili zuen doinu bera hartu zuela kartzelako gaia kantatzeko. Ez, ordea, zortziko txikian jarraitzeko, hamarreko txikian baizik. Doinu



berarekin egin zituen, beraz, zortziko eta hamarreko txikia. Hori berez ez da harrigarri. Edozeinek daki zenbait doinurekin hori askotan egiten dela. Hala ere, ez ote zuen Mikel Medizabalek ustekabeen hartu lau oinekiko bertsoa kantatzeko erabili zuen gaia ondorengo beste hirurak kantatzeko?

Galdera horiek sortu zaizkit behin eta berriz neure buruan aste honetan zehar eta honako kontsejuxo hauxe datorkit bertsolariantzat: kantatzen hasi aurreko "segundotxo" horiek arretaz zaintzeko. Ongi hasteko lana, doinua ongi aukeratuta eta eskuartean duen egitekoa zehazki nola den ohartuta. Eta bada ez bada ere, ongi egiten saiatzeko, azkarregi izango ez bada ere. Azkar eta ongi badakigu zeinek zer egiten omen duen.

Nik badakit, kantatzen hasi aurreko asti-hartze horretaz bat eta beste esaten dugula eta esan beharra dagoela. Baina horrek ez du esan nahi, alde aldeko segundo batzuk hartzea gehiegizko luzapena denik. Denok dakigu zertsu den bata eta zertsu bestea. Beraz lasai hasi, nork bere buruari utzi gabe, eta ongi hasi, ongi hasteak erdia egina omen du eta.

*Deia, 89-IX-25*

## Notizi on bat

---

**H**ORI eskatu zidan lehengo batean Don Pedro Berrondo apaiz euskaltzale haundiak. Notizi on bat gure herriarentzat nahi zuen entzun. Txarrak entzunak zeuzkan, denak entzun ez arren, nahikoa izaten bait dugu horrelakoetatik. Orduan ez dakit haren gustorik kunplitu nuen; baina gaurkoan egingo dudala uste dut.

Atzo hamabost, irailaren 15ean, bileratxo bat eginak gara Ipar Euskadiko Makea herrian. Xalbadorrak, A. Zavala, Joakin Berasategi, Laka bertsolaria, Makeako jaun ertora eta ni bildu ginen. Gai bat bakarra genuen elkarpede: Xalbador zenaren “Odolaren mintzoa” liburuaren birrargitalpena. Bada aldi bat, laubospat urte bai –gehiago ez bada–, agorturik dagoela, eta haren sendikoeak eta “Bertsolarien Lagunak” elkarteak berriz argitaratzea nahi zuten. Guk ere bai, jakina, nahi genuen eta nahi dugu.

Eta gauza erabakita utzi genuen. Argitaratu egin behar da berriz. Eta oraingo hau, birrargitalpen soil-soila izango da. Lehenengoan bezalaxe aterako da bigarren honetan. Bigarrena dela adierazteko behar beharrezkoak diren letra batzuk bakarrik izango ditu gehiago. Hori da notizia, notizi ona...

Eta noiz argitaratuko den ere erabakia dago. Bertanxko, xuberotarrek liotekeen bezala. Berehalaxe, alegia. Urriko usoekin batera hemen izango du-

gu berriro “Odolaren mintzoa” euskal herrietan bar-na. Hori da notizia, notizi ona.

Xehetasun gehiagorik ez dakart, ez bait daukat. Datozenezan zabalduko ditugu. Jakingo du bertsozaleak noiz eta non eta zer kondiziotan eskura ahal izango duen. Oraingoz asko du jakitea zeren aukera ederra eskaintzen zaion.

Xalbadorren “Odolaren mintzoa” liburua da bere buruari eusten diona. Bera bakarrik aski da aurrera ateratzeko. Ez du makulu beharrik euskarazko beste liburu askok eta askok bezala. Eta hala ere hor egon behar izaten dute pilatuta almazen zokoe-tan. Xalbadorrenarekin ez da horrelakorik gertatzen. Ez du lizuntzeko betarik izan. “Dakarren eskola” du nonbait halakoa.

Bai, ez da dudarik. Xalbador ez da irakurtzen euskaraz delako bakarrik. Beste zerbait ere baduelako erosten eta irakurtzen da horrenbeste. Bere mesanotxearen gainean daukan mutiko harek ere, ez dauka euskaraz delako bakarrik. Beste hori gabe euskarak ez du euskara salbatuko. Mami-ederdun literatura egin beharra daukagu, euskara ikas eta irakur eta erabil dadin nahi badugu.

*Deia, 89-IX-30*

## “Gogua dedan orduan”

---

“**D**EBALDE festa preparatzen det/gogoa dedan orduan”. Hitz gutxitan gauzak adierazten badu errenteriarrek “abilidadia”. Izan ere, berak ezagutu duen eta, seguru asko, hura arte izan den bertsolaritzaren historia oso bat egiten du bertso-zati horretan Xenpelarrek.

Hitz horietan, berez, berea aditzera ematen du bakarrik bertsolariak. “Det” eta “dedan” esaten du. Ez du esaten “degu” eta “degun”. Besteak ez ditu sartzen. Sar zitzakeen, ordea, nik uste, berak apartekotzat jotzen duen Iparragirre ez beste guztiak.

Xenpelar arteko bertsolariak, beren kasa egin zuten beren bidea. Nolabait hasi eta nolahala segi. Hasi, ez dakigu nola egin ziren; baina haien ondorengoen aitormenak lekuko, geroko hauen antzera hasi bide zirela uste izatekoa da. Etxean nahiz kanpoan, festa giroren batean hasiko ziren haiek ere, guk ezagutzen ditugun hauek berengatik aitortu diguten bezala. Norbaitek edo norbaitzuk jakin zer-bait aritzen omen zirela eta bileraren batean tranpada nahiz mahaiaren batetara igo arazi edo jaso, eta hasi, eta segi, eta horrelaxe, poliki poliki, egin izan dira bertsolari gure oraindainoko bertsolariak.

Lehenengo egun hura gogoan dute oraingoek eta gogoan izango zuten ordukoek. Handik aurrera, behin jendearekiko aurpegi-hauste hura egin ondoren, nahi haina aldiz kantatu ezinik ibili ohi ziren bertsolariak. Non norbaitekin topo egingo amorra-

tzen, ihardun bat egiteko. Halako tokitan ba omen zela bertsoaren bat, eta haren bila kantuan ekiteko.

Eta jakina, topaketa horiek, tabernetan eta festalekuetan egin ohi ziren batez ere. Eta dudarik ez dena, "papoa" ongi berotuta hasten ziren lanean. Askotan inork agindu beharrik ere batere gabe. Baina eragilerik ere izan ohi zuten. Bakoitzak bazituen bere aldekoak, gaurko fansak, eta hauek amorratzen egoten ziren beren hoberen ustekoa norbaiten aurka probatzeko. Gaineko hauek horrelaxe gozatzuten zuten beren idoloarekin.

Giro horretan ibiliak direlako diotsa Xenpelarrek "gogua dedan orduan" hori. Han ere izango ziren ordu ez hain atseginak. Hori betikoa da. Gehienetan, ordea, bere gustoko giroan ari zen bertsoaria kantuan. Eta "debalde".

Hau guztia zertara datorren? Gaur lekurik ez daukat, eta hurrengoan jakingo duzu, irakurle, Jainkoak nahi badu.

*Deia, 1989*

## “Gaurko onena...”

---

**G**AIJARTZAILE nintzen. Enkargua hartu nuenean, gaueko hamarretan zela esan zidaten jaialdia. Hurrengo egunetan, 10,30etan izango zela zioten komunikabideek. Ni, badaezpada ere, han nintzen agindutako ordurako. Ezagunen bat edo beste topo egin nuen jaialdi-lekuan, baina antolatzailek ez zitzaidan agertu.

Laister hasi ziren bertsolariak iristen. Erdietarako han nituen bat ez beste guztiak. Han geundela jakin erazi ziguten hamaikak arte ez zela jaialdia hasiko. Bertsolariak ordurako ahozabalka hasiak zeuden, eta tabernara joan ginen zerbait hartzera. Sartzea kosta zitzaigun, baina sartu ginen. Hartzea ere kosta zitzaigun. Aurrena, asmatu ez genuen egiten zer hartu; eta gero, ekarri ez ziguten egiten eskatu genuena.

Hortarako, ez geunden bakarrik bertsolariak eta gaijartzailea. Udazkeneko euli bat bezala pegatu zitzaigun arrotz bat generabilkien inguruan. Eta nik ezin hitzegin trankil bertsolariekin jaialdiaz. Nondik hasiko garen eta nondik nora ibiliko garen eta abar hitzegitea gustatzen zait neri lanean hasi aurretik. Eta han hori ere ezin egin.

Jo zuten hamaikak. Falta zitzaigun bertsolaria tabernan ari zen afaltzen, antolatzaile bat ondoan zuela. Ordulaurden bat barru hasteko moduan ginelan esan zigun harek. Azkenean hamaikak eta ho-

geitan hasi zen jaialdia. Berotzeko, txisturen bat edo beste jo ziguten.

Eta bitarte horretan guk hartu genuen asper-tua eta nekatua eta nazkatua? Ahozabalka egingo ez zuten bada bertsolariek! Kantatu beharraren kezka nahikoa ez dela, zuk dakizu zer den hori? Zer animorekin ekin behar zioten kantari bertsolariek? Asko kobratzen dutela...

Kronika hori egun batekoa da; baina beste ehun egunetako ere izan daitekeela uste dut. Eta hori jaialdi bat zelarik! Zoaz herri batera eta pasa ezazu egun bat, pare bat bertso-saioaren peskisan, bat bakarra ere ze ordutan izango den ez dakizula.

Zein harri daiteke, beraz, "gaurko onena", jaialdia bukatu eta libre haizela, hori duk politena" Lazkao-Txikiri entzutean? Lekutan gelditu da Xenpelarren "gogua dedan orduan" hura.

*Deia*, 1989

## Entzun eta irakurri

---

“**B**ERTSOA kantatzekoa bait da” esaten zuen batek lehengoan. Ongi esana. Eta hori bezain ongi esana legoke, berriz, “bertsoa entzutekoa bait da”. Kantatu-entzun harreman horretan du bere izaera. Hor bizi da bakarrik, eta horretatik kanpo ez da ezer.

Horrelako zerbait esan nahi izan zuen jaun harek. Beste norbaiti ere gauza beratsua entzuna diot berriki. Ez dakit zergatik errepikatzen den horren maiz bolara honetan.

Beraz ez ote litzateke bapateko bertsorik idatzi beharko? Ez ote luteke liburuetan jaso beharko bertsolarien emaitza horiek? Eta entzulearen memoriak bakarrik izan beharko ote luke bertsoaren iraunkortasunaren gordeleku?.

Galdera modu horiek, edo antzekoak, behin baino gehiagotan sortu izandu zaizkit nere barruan. Eta bakarra ez ote naizen uste izan dut zenbait alditan. Eta haseran jarri dutan esaldi horrek ere horrelatsuko zerbait adierazi nahi ote duen nago.

Izan ere bertsoa –esan dezake norbaitek–, entzulearen arretarik gabe eta haren oihartzunik gabe, sortu den une hartako giro hura gabe, ez al da zerbait hila, zaporerik gabea, arrai edo haragi konjelatua bezala?.

Beraz, fuera magnetofoiak eta fuera liburuak eta fuera irakurleak? Hitz batean, fuera bertsoaren hiltzaile guztiak? Balio badu, bego entzulearen oroi-



tzapenean, eta ez badu, eraman beza ahaztuazkoaren haizeak?.

Tankera horretako burutapenak etortzen dira inoiz burura. Eta zenbait bertso irakurtzean etortzen dira gainera askotan.

Izan ere, bertso bat irakurtzea, arbola bat neguan ikustea bezala da. Han ez dago inolako apainduriarik. Ez du ezerk disimulatzen bere gerria. Eta ostapean bikain eta eder zirudikeen zenbait arbolek, beraietaz erantztean, itsusi eta oker eta konkordun eta zakar eta makur ematen du. Jantzita zegoenean bazeukala zirudien edertasunik ez dauka.

Bertsoarekin ere horrelako zerbait gerta daiteke, eta gertatu ohi da. Entzun zenean zerbait bazela uste zen bertso asko, gero irakurtzean, hutsa gertatu ohi da.

Eta jakina, balorazioa ere aldatu egiten da. Zein da balio duena? Entzun hutsez egin zena? Irakurri hutsez egin dena? Biak elkarri erantsita egiten dena da hoberena, nik uste.

*Deia, 1989*

# Txapelketa giroan

---

Duela 25 urte egindako saioa duzu, irakurle. Azpillaga eta Xalbador zenarena. “Kulixka Sorta” sailean argitaratu ziren. Mutil gaztea zen orduan Azpillaga, eta 40 urteko gizona Xalbador. Ezagutzen ote zuten elkar artean? Bertsotan ofizioz, Xalbador “pilotaria” da eta Azpillaga “futbolista”. Ikus:

*Xalbador:* Nahiz batzutan gertatu naizen  
jokoarekin galtzetan,  
ni betidanik pilotarekin  
naiz errabila gaitzetan.  
Lenago ere izan direla  
entzun izan dut bertzetan;  
nik beti nai dut pilotari jo  
Eskualerriko plazetan.

*Azpillaga:* Onek eztauka berak dadukan  
afiziyua galtzeko;  
ta nik ere ez deporte ori  
golpetik galerazteko;  
baiño gaur badu fubolak ere  
pelotak aiña klaseko;  
Euskalerrian sartua dago  
geren denbora guziko.

*Xalbador:* Pilota ori neurekin daukat  
ene sortzeak emanik;  
naiz badakitan kontrarioak  
basditugula yadanik;  
zure yokuak ohore aunitz  
ezterauka nik emanik;  
ez futbolistak, ta ez futbolak  
eztu eskualdun usainik.

*Azpillaga:* Pelotariak bizi dirade  
suabe eta lerdetik;  
ta futbolistak ibili biar  
guztiz argal eta fiñik.  
Pelotaritza ez det esaten  
ikusteko txarra denik.  
zer diru pillak biltzen dituzten  
tongo galantak egiñik.

*Xalbador:* Zer dira bada futbolist oiek?  
Orai diruari mendu.  
Pilotariak oraino ere  
badu asko adimendu;  
pilotaz eztu Euskalerrriari  
oraino nihork ekendu,  
ta futbol ortan, sortuz geroztik  
edozeinek ikasten du.

*Azpillaga:* Onek esan du futbola dala  
nornaik ikasten duena;  
baiña ortarako ere bear  
indarra edo almena.  
Zertarako da pelotan asi  
eta urten ez leikena?  
Gaur futbola da, ikasirikan,  
ofiziorik onena.

*Xalbador:* Futbolistetan ikusten oi da  
dabilala ainitz arrotz;  
yakin zazue yoko orrentzat  
eztudala aintz biotz;  
badakit, bai, nik, yendea ez dago  
futbolaren alderat otz;  
baina pilota maitatzen dut nik  
eskualduna dugulakotz.

*Azpillaga:* Edozer gauza esaten baidu  
nere lagunen aguak;  
gaur pelotari egiñak daude  
atzerri edo albuak:  
Euskalerrian izango dira  
gogorrak eta sanuak,  
baino orain berdin irtetzen dute  
Castillan riojanuak.

*Deia, 89-X-14*

## Hamargarren txapela

---

**B**ESTE larunbat bat bakarrik gelditzen da Euskal Herriko Bertsolarien Txapelketa hasi aurretik, eta horrekin burua "hartua" daukadanez, gaurko hau gertakizun horri eskaintzea derriorrezkoa da.

Santu Guztien Egunez ekingo diote beren lehiaketari gure bertsolariek. Hamargarren txapela jokatuko dute aurtengoan. Oraindainoko bederatziek, bost buru estali dituzte. Ia oraingoak zer egiten duen. Berririk ez estaltzea erabakitzen badu, bada- kigu zeinenean kokatuko den. Aurreko bostetatik bat bakarrik izango baita lehiaketan. Azken-aurreko eta lehenengo txapeldunak bizi dira; baina ez dute parte hartzen. Beste bi, berriz, aspalditxo joanak ditugu gure artetik. Azkenekoa gelditzen da, beraz, txapeldunetatik lehiaketan. Bigarren aldiz txapelduko ote zaio bere buru ederra?

Jazten duenak jazten duela, epaimahaiaren baimenarekin egin beharko du. Entzule berezi horiek erabakiko dute zeinen buruari emango dion bere epela hurrengo urteetan txapelak. Beren lana ongi egin beharrez beren buruak trebatzen arituak dira lan txar horretarako. Beren egitekoa ongi burutuko duten itxaropena izan dezake, beraz, bertsolariak, eta bertsozaleak ere bai.

Gainerako antolaketa guztia ere egokitua dagoela jakinak gara. Badu eskuak bete lan horrelako ekinaldi baten antolaketak. Gauza, eta gauzatxo,

askoren baitan egon ohi da tamaina hortako gertakizun baten edertasuna. Dena prest omen da.

Beraz mahaia prest, egutegia ere prest, noiz-non-nola guztiak erabakiak,... Orain falta den bakarra, bertsoa dugu. Erlontzi horretako erregina. Beste joan-etorri guztiak horren zerbitzari dira.

Betor, beraz, bertsoa. Betor ugari eta on, bero eta argi, motz eta luze, zahar eta gazte. Betor betiko iturritik, eta bihoa ubide berrietan barna. Ekar beza bere sorlekuko kutsua eta har beza mende berriko arnasa. Betor eta bebil ahotik belarrira eta handik buru-bihotzetara eta eder bedi euskal-izpiritua.

Eta bertsogileek bezate bake beren buruekin eta beren baitan, dezaketen hura egin ahal izan dezaten. Egia gerta dadila denentzat, 1982an txapela jantzi zuen haren desira: "daukana eman dezala gure almazenak" Suerte on, jaunak!

## Hamairu urte

---

**D**ATORREN asteartean zortzi beteko dira 13 urte Xalbador hil zitzaigula. Igandez tokatu zela urte hartan azaroaren zazpia ez dakien euskaldun heldurik ez dago hemen. Halakoxea, izan ere, izan zuen heriotzea gure “Urepeleko artzainak”. Haren omenaldia hura gabe bukatzen ari zela bukatu zen gure gizona, Hura iluntzea! Haiek orduak! Zer zen hura! Baina zertan ari naiz ni gauza hauek esaten, azken orduko gaxteren bat edo beste izan ezik, denek badakizkite eta?

Bihar oroituko eta ospatuko da hamairugarren urtemuga Urepelen. Eta egun seinalatu hartan bezalaxe, “Odolaren mintzoa” berrargitaratua aurkeztuko da bazkalondoko jaialdiaren aurretik. Erosi nahi duenak hantxe izango du salgai liburu paregabe hori bi mila pezeta “zikinetan”. Hemen dagoeneko liburu-dendetan da.

Hamairu urte dira, lehen esan bezala, “Odolaren mintzoa” agertu zela, eta laubost bat badira jandantik agortu zela. Orduko argitaldi haretan sei mila ale bota omen zituzten. Beraz beste hainbat euskal-etxetan hor da geroztik liburua. Ez du hedadura makala izan “Urepeleko artzaina” deituaren liburuak. Liburu nagusiak, ez bait da bakarra. Beste bi senidetxo ere baditu. Hauek ere aspaldi agortuak izan behar dute.

Hedadura hainbateko sakondura izan badu urepeldarraren mezuak, badagoke lasai egilea. Argi-

taratuta bere eskuetan ikusi zuenean, hala esan omen zion Xalbadorrek Joakin Berasategi jaunari: "Nik egin dut nerea. Orain zure txanda da". Bai bat eta bai besteak, egin dute berena. Xalbador, Joakin Berasategi eta A. Zavala, horra hor hirukotea. Horien lana da, bigarren aldiz argitaratu behar izan den "Odolaren mintzoa". Olaberriarrak eta tolosarrak izan dezatela osasun, berriz eta berriz argitaratu ahal izateko, inoiz ahantziko ez den artzainaren obra.

Jakina nago, argitaratuak izan direnekin eta oraindik han-hemenka bil daitezkenekin obra oso eta haundi bat egitekotan ere ba omen dabiltzala. "Geroko gero"rako utzi gabe segi dezatela antolatzen. Gure eskerronik, orain arte bezalaxe, ez zaie faltako.

*Deia*, 89-XI-6



## Plaza

---

“**U**RTE guztian dozenaren bat saio egingo nitian (sic)” zioen lehengo igandean Azpeitian Eguzkitze bertsolariak. Eta harritua bezala agertzen zen bere buruarekin, hain saio gutxi egin izanik urtean zehar, Azpeitikoa hain saio biribila atera zitzaiolako.

Ez da dudarik nahitezko baldintza dela bertsolariarentzat jendaurreko saioak egitea bertsolari izateko eta plazagizontzeko. Edozeinek daki plazak jende asko jaten duela eta gordean edo bakarrean haundi den zenbait, ezdeus gertatzen dela jendaurrean. Etsai gogorra da publikoa, edo izan daiteke, ezagutzen ez bada. Ezagutza hori egiteko, ari egin behar da berarekin eta beraren aurrean. Bestela kateatuta bezala geldi dakiguke gure barnea eta gurerik egin gabe geldi gaitezke, dena dela gure egitekoa.

Eta hori nornahirentzat ere egia bada, zer esanik ez bertsolariarentzat, honek baino lan zailagorik egiten duenik ez bait dago jendaurrean. Beste guztiak zer egin behar duten aldeztatik dakitela ateratzen dira, eta bertsolaria, berriz, ezjakinean. Beraz plazagizontzea nahitezko gauza da bertsolariarentzat. Eta hori ibiliz eta jardunez lortzen da, horrela bakarrik ikasten bait da publikoak ez duela inor jaten. Ez dela giza-jale bat.

Horretaz ohartu eta inoiz guztiz menderatzen ez den bildurrari gaina hartu zaionean, plazagizondua

gelditzen da bat. Hortik aurrera plazak ez du bat jaten eta handik kanpora egiteko gauza den hura bera egin dezake plazan ere. Noiz iristen den pertsona horretara, norberak daki bakarrik.

Hortik aurrera, asko ibiltzeak bere abantailak eta bere eragozpenak izan ditzake. Asko dabilen bertsolari bat, xabartu ere egin daiteke, ohitura txarrak har ditzake. Egin, egingo duela badaki eta, nolahi ez bada ere, nola-hala eginarekin konformatzeko arriskua dauka. Nik behin bertsolari haundi bati entzun nionez, haren ustez beste bertsolari haundi batek bere etsairik haundiena bere burua zuen. Errez egiten zuelako bertsoa eta errezkerian erortzeko arriskua zeukalako.

Gainera, asko dabilena, hustu egiten da. Agortu. Eta beti zerbait berria esaten zaila denez, aspertu egin daiteke gauza berak, edo beretsuak esaten. Gutxiagotan ari dena, berriz, gustorago senti daiteke bere ideak eta sentimenduak agertuz, ez bait dauka gehiegitan entzun zaizkion beldurrik.

Eta mahaiari bagagozkio, gehiena dabilena daukake harek ere gehiena entzuna, eta behin eta berriz entzunak lizkioke idea berak asko dabilenari. Beraz, gutxi ibiltzeak, gutxiegi ibiliaren eragozpenak izan ditzake, eta asko ibiltzeak gehiegi ibiliarenak.

*Deia, 1989*

## Bi finalista berri

---

**S**EBASTIAN Lizasok eta Jon Lopategik ere badakite, lehengo igandeaz gero, zein sei lagun, eta zein sei etsai, izango dituzten bihar zortzi Donostian. Osatu zaie kuadrila. Uste zutena edo ez, horiekin ari beharko dute txapela jokatzeko.

Jokalagun gehienak lehendik ere ezagutzen dituzte. Maizenik alboan izan dutena, Jon Enbeita dute. Hau da bakarra zortzietan, azken hamarkadako txapelketa guztietan finalean izan dena. Eta hau dute bakarrik Lizasok eta Lopategik, berek jokatu dituzten bi txapelketetan beekin izan dutena aurtengo sei horietatik.

Orain hurrengoan hor izan ez zutena, Imanol Lazkano dute hor berriro aurten. Lehengoan ez zen sartu finalean eta aurten bai, larogeitabikoan bezalaxe. Ezaguna dute, beraz, hau ere.

Eta ezagunak dituzte ere Iñaki Murua eta Andoni Egaña. Lehengoan hor zituzten eta oraingoan ere hor dituzte. Hauek badakite lehendik txapela jokatzeko zer den, Lazkanok eta Enbeitak bezalaxe.

Hori ez dakitenak eta aurten ikasi beharko dutenak, eta Lizasok eta Lopategik alboan izango dituztenak, Mikel Mendizabal eta Xabier Eguzkitze ditugu. Bi finalista berri ditu, beraz, aurtengoak, urolatarra bata eta goierritarra bestea. Biak ere ondo-ondoraino etorri izanak aurrekoetan, baina kuadrilan sartu gabeak. Aurtengo berritasuna, partaidetzari dagokionez, bi horiek dakarte.

Lurralde kontuan, berriz, bi ditugu Bizkaitik eta sei Gipuzkoatik, eta inor ez Nafarroa-Iparraldek. Zortzitatik sei gipuzkoar ditugu, beraz, aurtengo finalean. Azkenaldiko txapelketako kopururik haundiena dugu aurtengo gipuzkoarrena.

Adinari bagagozkio, zaharrena Jon Lopategi dugu eta gazteena Xabier Eguzkitze. Horiek daude bi muturretan. Harengandik hurbilen, Imanol Lazkano daukagu eta honen hurrena Jon Enbeita. Eguzkitzerengandik hurbilen, Andoni Egaña dugu, eta honengandik ez urrun beste hirurak, elkarren paretsuan.

Dena dela adinez eta lurraldez eta bestez, kua-drila osatua dagoela Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa Nagusiko hamargarrena jokatzeko. Zortzikote honetan lasaiena ez dakit nik zein izango den; baina lasai inor ez dela egongo, hori badakit. Inor "ez bait da aski prestu" lan txar honetan, urepeldarrak zioen bezala. Eta nahiz denek jakin gai direla lan guztiak ondo egiteko, edozein gaizki egin dezaketela ere badakite. Ez dadila behintzat, inor lilura bere buruarekin, oso ongi ari delakoan. Lausotu bailekioke burua eta gutxien uste duen zuloan eror bailiteke. Altxa buruak, eta "aurrera mutilak".

*Deia*, 89-XII-9

## Bahe estua

---

**D**ONOSTIAN, bihar, bertso onak izango ditugula, zeinek duda? Txapelaren bila aterako diren gizonak ongi erakutsia dute beren abilitadea behin baino gehiagotan, eta igandean ere erakutsi nahiko dute. Ez digute hutsegingo bihar, zortzi bertsolari haundi hauek.

Hori egia da. Baina bai eta ere egia da, batzuk besteak baino hobeak izango direla bertsoak, eta hobe hauengatik, ez onengatik, jantzi beharko duela txapela irabaztunak.

Eta horra hor mahaiaren zeregina eta lan neko-soa. Oraindainokoa ere zailtasunik eta nekerik ez zitzaien faltako; baina igandekoan bihalakotu egingo zaie. Aurreko kanporaketetan lan txarra egin zuelako geldi zitekeen zenbait jende Txapelketatik kanpo. Oraingo honetan, ordea, lan ona eginda gelditu beharko du batek baino gehiagok txapelik gabe.

Onen eta hobeen artean bereizketak egin ahal izateko, iritsi zaio ordua bahe estuari, finari. Oraindainoko neurrietan on zitezkeenak, orain erdipurdiko gertatu behar dute, eta oraindaino erdipurdiko zirenak, orain txar. Neurriak estutuz bakarrik egin ahal izango da kalitatezko bereizketa.

Nik esan behar banu, akatsak zigortzea, bereziki zigortzea, "penalizatzea" izan daiteke modu bat bereizketa hori egoki egiteko. Bihar gerta daiteke txapeldun hutsik gutxien egin duena, aparteko la-

nik batere egin gabe. Norbaitek bestek ez bezalako saioaren bat egin duenean erraz da hoberena hautatzen; baina hori ez da beti gertatzen. Beti ez dago kaorik. Askotan puntuak ematen dute garaipena, eta horiek bestearen hutsegitez izan ohi dira askotan, eta ez norberaren merituz.

Eta hutsegiteak, denok dakigu zenbat eta zenbatekoak eta zenbat eratakoak izan daitezkeen. Logika-huts, morfologi-huts, gramatika-huts eta beste mila modutako huts guztia da hutsegitea. Denak dira falta.

Zeinen erraz ari naizen gauzak esaten! Esatea bezain erraz balitz egitea bai ederki. Ez izan ordea. Hala ere mahaia hor nonbait ibiliko den itxaropena badugu, orain arte bezalaxe. Lana ondo egiteko sosegua eta asmatzeko suertea opa dizkiogu. Ea bertsozalearen gustoa eginez eta kalitatea sarituz bukatzen dugun Bertsolari Txapelketa Donostian.

*Deia, 1989*

## “Jon da bertsolaririk onena”

---

**A**MAIAK zioen hori, txapeldun berriaren emazte arubiak, andre finak. Zorionak, Jon, honelako laguna etxean edukitzeagatik. Ez da nolana hiko alderdia bere ezkonkidearengan honelako istimazioa aurkitzea. Hamargarren epaile honena bai dela iritzi bete eta epai zoragarria.

Ez da lehenengo aldiz bertsolari-andre bati hori entzuten diodala. Beste baten emazteak gauza bera esan zidan 1967ko Txapelketaren ondoren. Harenak ez zuen txapelik eraman. Eta zer inporta dio, lehengoan jantzi zuen eta? Zer bihotz-musua ematen ote zion lehengo igande iluntzean urepeldarrak muxikarrari? Zer txaloak jo ote zizkion Lopategi haundiari Urepeleko zerutik? Hori bihotzaren ederra Jon Lopategik despeirakoan erakutsi zuena, bere txapela Xalbador zenari eskaintzean eta “txapelaz etorkizuna” Xabier Amurizari opatzean!

Bagenekien lehenetik ere “Beltzaren” bihotz argitsuaren berri. Nolaz ez, izan ere? Hainbeste bertso eder jaio den iturria, nola ez jakin zer kalitatekoa zitekeen? Baina lehengo honetan argiago ikusi dugu. Emazteak ere esaten zigun nolako aita eta maisua izan duen etxean bere seme-alabentzat. Belodromoan ere agertu zitzaion etxe-min hori. Ezinbesteko agurrak lagunei egin ondoren, berehalaxe han zutela etxean kantatu zien bere seme-alabei eta “etxekeo damari”.

Nik asko estimatu izan diot gaijartzailearentzat erakutsi izan duen eskerrona. Behin hala esan zidan: "Zuk poesia egiten ere laguntzen duzu". Gogoa izango dut.

Baina ez da bihotzaren ederra bakarrik Lopategik erakutsi diguna. Buru argiaren jabe dela ere erakutsi digu muxikarrak. Ez du nolana hiko kaskoa estaltzen txapel berriak. Arrazoietan haundia agertu da beti txapeldun berria eta bertsokeran ongi osatua. Bizkaiko tradizioz hoberena eta sagardotegietako eskola primeran elkartu ditu Jon Lopategik. Lastima, urdailak ez diola utzi zumu maitagarri horretatik edaten! Bestela den baino ere haundiagoa, hori bederen ahal balitz, izango genuen gure gizona. Ez. Bromak bromak, urdaileko nekeak umore punturen bat jan balio ere, inolako eskasiarik gabeko bertsolari haundia dugu Jon Lopategi.

Eta beti haundi izan duguna, orain txapeldun dugu. Bejondaiola! Lehen ere ez zegoen leku txarrean txapela; baina oraintxe ere ez da aldrebesean jarri. Zorionak, Jon, eta urte askoan goza dezazula emazte argiaren ondoan eta seme-alaba eder horiekin eta bertsozale eta lagun guztiekin. Eta ahaztu baino lehen, Eguberri eta Urteberri on!

*Deia, 89- XII-23*



## Burruka bukatu da

---

**U**RTE zaharra azkenetan dugu, eta Berriak gure onetara etorri gabe harrapatu behar gaitu. Bertsolari eta bertsozaleok aurtengo udazkenean jokatuko dugun apustuaren ondorenak oraindik ere sentitzen ditugu. Ez genuen nolana hiko paliza hartu Belodromoan, bakoitzak gureari laguntzen. Eta joaldi haundi baten ondorengo erorialdia gurekin dugula iritsiko zaigu Urteberri.

Bertsolari eta bertsozaleok, "amistoso" batekin hasi ohi dugu beti urtea. Hor ez da izaten apusturik. Omendu baten, edo gehiagoren, inguruan elkarzuten gara, festa haundi bat egiteko. Bertsolari eta bertsozaleen familiaren bilera eder horretan ez dago temarik eta borrokarik. Norbaiti, edo norbaitzuri, bertsoa dela aitzaki, eskerrona erakusteko egun bat da bakarrik. Egun horretan hainbat bertsolari batera ikusten eta entzuten ez da erraz. Hamaikarentzat ezezagun pranko agertzen da, plazetan dabiltenak ezagutuarekin ez bait dira bertsolari guztiak ezagutzen, zorionez. Bertsopesta haundi horrekin hasi ohi dugu urtea. Eta datorrenean ere, Jainkoak nahi badu, horrela izango da.

Berriak ez du Zaharrak izan duen burrundarik ezagutuko. Bertsolariak, amaitzear dugun honetan baino pakeagoan ibiltzeko moduan dira. Urdailetako txuloak eta bihotzetako urratuak sendatzeko ez da gaizki etorriko. Guduak berak ditu beti halamoduzko sarraskitxoak eta aurtengoak ere izango zituen. Horiek denak desegiteko giroa komeni da orain.

Denborak gauza asko konpontzen omen du eta, Berrriak goza ditzala Txapelketaren bide zakarrean nozitutako zauriak.

Betoz orain kurioso-kurioso antolatutako jaialdiak. Eskain bekie bertsolariei lan ona egiteko aukera. Goza bedi bertsozalea, Belodromoko ardurarik eta larririk gabe, gure artista hauen graziz eta gozoz. Hori da orain behar duguna eta denon artean zaindu eta landu behar duguna.

Jakin beza bertsolariak ez daitekeela nonnahi eta nolanahi eta zernahi kantatu. Bertsolaritzari lagundu nahi badio, bere osotasunean ari behar du bertsolariak. Nolanahiko jarduerak ez dute ez bertsolaria eta ez bertsolaritza meioratzen. Profesional on bat izaten jakin behar du bertsoetara doanak.

Jakin beza, bertsolariak deitu dituenak eta haien kargua daukanak leku bakoitzean, ez dagoela edozein moduz botatzerik bertsolariak mikroaren aurrera. Alde-aldeko giro bat behar du kantari ari behar duenak, nahiz entzulego kontuan eta nahiz arreta kontuan. Bestela burla egiten diogu artistari eta arteari.

Eta jakin beza publikoak txaloak nahi dituela entzun bertsolariak, eta ez gure orruak eta marruak. Gure eltzea irakiten dagoelako ez dauka bertsolariak zertan eramanik gure gainezkaldien erasorik. Entzun ditzagun bertsoak beren osotasunean eta txalo beren ederrarengatik, eta ez gure umorearen arabera. Burua fresko eraman dezagun jaialdietara, eta bihotza alai. Eta ez burua lausotua eta bihotza astun.

1990

## Pozeko negarrak

---

**E**SAN beharrik ez dago, urte zaharraren eta berriaren arteko mugakoak direla bertso hauek. Zaharra, bertsolarien Euskal Herriko txapelketarekin bukatu genuen. Bazen malkorik eta bestelakorik Belodromoan Donostian. Txapeldunak Xabier Amuriza aitatu zuen bere azken-agurrean, ahotsa erdi-galduan baizebilen garai hartan. Nik ere hala egiten dut hirugarren bertsoan. “Etorkizuna beltza” hori harena da, 1980ko txapelketan “Gizona ez da ogoiz bakarrik bizi” gaia kantatzean esana.

Agur, bertsolari, ta  
agur, bertsozale.  
Kantuz natorkizu gaur  
hitz biren esale.  
Telebistan bakarrik  
ez dira pestale.  
Urteberria jaio  
denaren seinale  
bertso hauek dituzu  
nere mahatsale.

Ale mardulagorik  
eman du zaharrak,  
biltzaileak hor daude  
belodromotarrak.  
Donostian haiek su  
eta haiek garrak,

bai bizkaitarrak eta  
bai gipuzkoarrak!  
Lekuko dira gure  
pozezko negarrak.

Pozezko negarretan  
joan den urteak  
nola ez piztu gudan  
geroko usteak?  
“Etorkizuna beltza”  
zioen besteak.  
Guri zuritu digu  
hura ikusteak.  
Hauek dituk, Xabier,  
gure albisteak.

*Deia, 90 - I - 1*

# Txapel-jaztailea

---

**D**ONOSTIAKO Belodromoan edertasun asko somatu ahal izan zen egunean zehar. Gainezka egin zuen, ordea, iluntzean edertasunak. Asma al zitekeen ikuskizun paregabeagorik, lehenengo txalpelduna azkenengoa txapelez jazten ikustea baino? Txapel kontuetan ere “katea ez da eten”. Ederra benetan egunaren errematea!

Berrogei eta hamalau urte zeuden bi txapel horien tartean. Eta aurrenekoa eta azkenengoa ziren biak. Lehenak jazten zuen azkenaren burua. Hurrengoaren eta hurrenagokoaren buruak jazteko ere eman diezaiola osasuna Jainkoak.

Eta txalpeldun zaharrak, hitzun ona izan arren, ez zuen hitzik egin. Zorionak ematen ikusi genuen berriari, eta eskua ematen ere bai beste lehiakideei; baina hitzik ez zuen egin. Egun hartako legez eta bertso giroko legez, kantatu egin zuen. Eta ederki kantatu ere bere zaharrear. Indartsu, garbi, eskukeinu eta guzti, berak ohitura zuen, eta duen, bezala. Bejondaiola!

Baina ederki kantatu zuela esatea, ez da nahikoa. Bertso aparta kantatu zigula ere esan behar da. Hona hemen:

Ekarri naute garaileari  
txapel eder bat jaztera,  
bertsolariok jarrai gogotsu  
herri batetik bestera,  
gure lurrean guk ez daukagu  
zertan egon buruz bera,  
une honetan aitor dezagun  
bagera edo ez gera,  
bertsolaritza bizi dan arte  
biziko baita Euskera.

Nik badakit, bertso hori pentsatu-xamarra ekar  
zezakeela. Baina halaxe ere, ederra da. Hori rimen  
egokitasuna. "Z" eta "s" hori etatik hasten dira ri-  
mak. Zeinen egoki eginak eta aberatsak! Hirugarre-  
na eta laugarrena bina hitz elkartzuz osatzen dire-  
nak dira. Guztira da aparta bertsoa.

Bejondaiola! berriz esanda ere. Jakin dut, ge-  
roztik bertsoan ere ari izana dela Nafarroa alde ho-  
rretan. Hamaikak istimatuko luke oraintxe ere be-  
rari entzuteko aukera. Geuk ere bai. Segi dezala ho-  
nelaxe. Entzulerik ez zaio faltako Errezilgo maisu  
zaharrari.

*Deia, 1990*

## Bi bizkaitar

---

**G**AURKO berriketaldi hau bizkaieraz egin behar-ko nuen, ongi izatera; baina nik ez dakit hoinbeste bizkaiera. Lehen ere izena –“Berbetan”– bakarrik izan nuen nik bizkaitarra. Barka biezaidate, beraz, bi bizkaitar omentzekoek, eta probintzia honetako irakurle zintzoek.

Komunikabide guztietan irakurriak eta entzuzkoak ditugu azken bolada honetan bi gizon hauen izen-abizenak. Gure txoko honetan ez dugu lehen ere aipatu gabea Basilio Pujana zeanuritarra. Lauren bat urte izango dira hori zela. “Auspoa” liburu-sailak argitaratu zion liburuxka batek eman zidan horretarako aitzakia. “Egi batzuek aixetaratzen” du izena eta bertsozkoa da. Sarrera eta beste zatitxoren bat bakarrik ditu hizlaurukoak. “Nere bizitza saltokasaltoka” du izena sarrera horrek eta bere bizitzako zenbait xehetasun eta pasadizo kontatzen du bertan Basiliok.

Joxe Agustin Alberdi ez dut uste inoiz hemen aipatu izan dudarik. Ezagutu ere, egia esateko, omenaldiren batean edo bestean ikusita bakarrik egin dut. Bertso gutxi dizkiot entzunak. Ez, noski, berak kantatu ez duelako, nahiz txapelketetan eta nahiz haietaz kanpo, ni Bizkaian gutxi izana naizelako baizik. Pujana ezagunagoa nuen bai aurpegiz eta bai obraz.

Izango da, Bizkaiaz kanpo, Euskal Herrian zehar bi bertsolari hauen berri haundirik ez duenik,



nik bezalaxe. Bihar du aukera aurpegiz ezagutzeko eta aurpegira txalo jotzeko. Eta aurpegiz ez-ezik zerbait gehiago ere ezagutu nahiko lituzkeenak, berriz, horretarako ere aukera izango du.

“Bertsolari Eguna 1990” izeneko liburuxka hor izango du erosgai. Ez du angulak aina balio eta arruinatu gabe eskuratzeko moduan izango gara. Eta hurrengoan ez dugu aitortu beharrik izango, Bizkaiaz kanpoko bertsozaleok, Basilio Pujana eta Joxe Agustin alberdi ez ditugula ezagutzen.

Liburuxka horren “Hitzaurrean” Antton Mari Aldekoa-Otalorak eta Jose Ramon Arbek idazten dituzten hitz batzurekin bukatu nahi dut. Hauetxe-kin: “Jende hau izan dugu gure oinarrian. Eskertu beharrean gaude euron animoa. Lehenaren eta orainaren katearen maila ez zen eten. Bizkaian, gerra ostean, plazaratzeko animoak behar ziren. Gaurko arbola haundia “Txok”ek, Basiliok, eta antzekoek ereindako haziaren ondorio dira. Animo aurrerantzean ere eta mila goraintzi”.

## Txapeldunaren hiru bertso

---

**A**TERA da Euskal Herriko azken Bertsolari Txapelketa Nagusiko liburua. Diskoa, zinta eta bideoa ere hor dira. Horietan ez dauden zenbait bertso eta xehetasun ere badaude, ordea, liburuan. Bertso asko eta onak badaudeke; baina txapeldunak txapela eta guzti kantatutako hiruak baino politagorik nekez, nahiz eta hutsegite bat badaukan. Urepeleko artzaina ez bait da "Eire", Aire baizik. Liburuaren aipamena egiten dugu, beraz, bertsozaleak hor dela jakin dezan.

Lendabizi mila esker  
bihotzez deneri,  
batez ere aurrez dauden  
nere ikasleri,  
txapela ematen zaio  
gaur edozeineri,  
eskaini nai nioke  
pentsatu zeineri,  
jantzi gabe joan zen  
Fernando Eireri.

Baina badut Bizkaian,  
badut nik laguna,  
hirutan etorri ta  
bitan jaso zuna,

gaur hemen egon nai ta  
ezin izan duna,  
bera eztarri minez,  
emazte haurduna  
txapelez agurtzen dut  
bere etorkizuna.

Baina familirako  
ere egin dut lana  
nirekin sufrituko  
zuten gaurko zama,  
seme eta alaba  
eta etxeko dama,  
astuna izan da baina  
amaitua dana,  
lagunok agurtuta  
hor naiz zuengana.

## “El mejor bertsolari...”

---

**H**OINBESTE erdara ez dakien bertsozalerik ez dago, eta irakurri ditudan bezala jaso ditut gaineko hitz horiek. Hor esaldiaren zatitxo bat jarri dut bakarrik. Osoan honela da osteguneko DV egunkaririk jasota: “Para mí es el mejor bertsolari de todos los tiempos”. Xebastian Lizasok esan du hori Basarri haundiarengatik.

Ados ez legokeen norbaitek uste baleza, gure azpeitiarrak txapelarekin batera burua ere galdu duela, jakin beza ez dela lehenengo aldia hori entzuten diogula txapeldun ohiari. Txapeldun ez zenezan ere hori entzuten genion. Beraz ez dauka zer ikusirik txapela galtzarekin, edo ez irabaztearekin, berak liokeen bezala.

Eta ez dut uste ere bertsolaritzaren ohorea hurbilera ekartzeagatik esaten duenik hori. Beti erakutsi du iritzi hori. Zergatik ez zuen bada “gure Patroi Haundiaren” lurra bertsolarien patroia ere sortu behar? Ez dakit nik Errezilgo zarauztarrak sinestuko dion ala ez; baina sinesten badio ere, ez du gezur haundirik irentsiko, Zarauzko txokoan oraindik ere hitz ederraren eta hizketa paregabearen jabe den agure ohoragarriak.

Dena dela txapeldun ohitik txapeldun ohirako fedea, gauza zera da: “Sei orduak” delako kirolaldi tzar horretan omen berezi bat egin nahi zaiola Basarri bertsolariari. Ez bertsolari delako, jakina. Kirol-berriketari delako egingo zaio.

Ez dakit lehen eginik bazaion; baina egin bazaio ez bazaio, zor zaiola bai, badakit. Ez dut uste inork ukatuko didanik, gure kirolen euskal-ahots bakarra bera izan dugula irratiz urteetan eta urteetan. Zeinek informatu du, azken urte bakan hauek baino lehen, entzulego euskalduna euskaraz kirol kontuetan? Erantzuna badakigu.

Idea ez dakit zeinena izango zen; baina atera duenak atera duela hitza, nere botoa badu. Eta kirolariena ere izango duela esango nuke. Eta kirolariek ezezik, garai bateko bertsozaleek ere istimatuko dute "Nere bordatxotik" ari izan den jauna telebistan ikustea.

Aditzea dudanez, ez dator gainera nolana hiko bizkarzaintzaile, edo guardaespaldasekin. Azken txapelketako hiru lehenengoak omen dakartza berekin bertsolari zaharrak. Bejondaiela denei! Gu egunaren zai egongo gara.

*Deia, 90 - I - 27*

## Bertsolari gazteak

---

**B**ERTSOLARI gazteek beren jai bat antolatzekoa zutela irakurri nuen aurrena. Bertsolari gazteek beren hitza atera zutela irakurri dut hurrena Elkartearen batzar batetan. Bertsolari gazteak bereiz hartzen bezala somatzen dut zenbait jende. Ez dakit nahiak edo beharrak eraginda; baina halamoduzko joera bat ikusten dut.

Nere ustez gauza berri bat dugu hori bertsolaritzaren sailetan. Nik behintzat ez dut inoiz horrelako kezkarik eta mugimendurik somatu. Eta ez zait ere inoiz iruditu bi sail berezi zirenik bertsolari gazteak eta bertsolari zaharrak. Beti nahasian eta armoni onean ikusi izan ditut. Batzuk joan eta beste batzuk etorri, hori honela izan dela esango nuke gaurdaino.

Egun, ordea, zerbait baduela dirudi bertsolari gazteak. Bere burua behar bezala kokatu-ezinen bat baduela bertsolaritzan. Bere lekua aurkitu-ezinen bat edo. Horrela adieraziko nuke nik zera berri hau. Nolanahi dela, beraiei entzunda jakin beharko dugu zer den.

Gaurko gizartean gazteari zenbat eta zenbateko arazoak sortzen zaizkion ez dakienik ez dago hemen. Eta zerk kausatzen dituen ere arazo horiek, alde-aldera denok ikusten dugu. Sustraietako bat, nik esan beharko banu, "gizartean" garaiz sartu-ezina dela esango nuke. Asko luzatzen eta atzeratzen da gaur gaztearen sarrera gizartean, eta horrek be-

reizketa bat sortzen du larrien eta gazteen artean. Nekez nahasten dira heldua eta gaztea eginkizun beretan eta gaztea albora gelditzen bezala da, dago-kion lekurik gabe.

*Deia, 90 - II - 3*

## Denborapasako jardunak

---

**B**ERTSOLARIEK, beren bertsoetako hasera nola izan den kontatzen digutenean, ia denek gauza beretsua esaten digute. Lagun artean hasi zirela, gehienetan taberna-txokoren batetan. Eta plazara, ustekabean bezala atera zirela. Beste norbait falta zelako, edo-eta bertsolariaren bat bakarrik ari zelako eta hari laguntzeagatik eta horrela. Askotan, gainera, ez dira berez hasten. Bestek bultzatzen die. Inoiz behartu egiten ditu. Bada bestek tranpadurara jaso eta hasi denik ere. Honelatsuko haserak izan dituztela esan izan digute.

Beti ere hurbil-hurbileko jendea da, bertsolari datorrenaren dohainez jabetu dena. Ez da harrizkekoa. Dohainetaz ez-ezik akatsetaz ere ingurukoak ohartzen zaizkizu aurrena. Dohain nahiz akats horiek gerenezko joerak ditugunean batez ere. Eta ezer bada eta, bertsolariarena da berezkoa. Eta aidenean, inoiz hiltzen ez dena, lehengo batean txapeldun zaharrak zioen bezala.

Nola edo hala bere xurrunmurrua ateratzen hasi den dohain hori, gero eta grina biziagoa gertatzen zaio jabeari. Gero eta ari-behar haundiagoa sumatzen du bere baitan bertsolari-gaiak. Eta aldi berean, baieztapen bat ere nahi du. Behar du. Bertsolari-bertsolariarekin neurtu beharra dauka. Ez du aski bere ingurutxo horren txaloa. Horrek bihoztegia dirudi. Oniritzi hotzagoa eta seguruagoa behar du. Eta horren bila dabil. Bere ahalmen hori bertsolari sonatuekin probatu arte ez dago trankil. Horrek



emango dio bere buruarekin konfiantza eta handik aurrera izango da gauza plazarik plaza hegan egiteko.

Hori behar zuen lehengoak eta hori behar du gaurko bertsolari gazteak. Helduekin jarduteak ematen dio badenaren segurtasuna. Baina jardun hori, lehenik, jolaseko eta denborapasako jardun bat behar du izan. Ez daiteke hasi plazako jokotik. Hori arriskutsua gerta daiteke gaiarentzat. Ukatu egin dezake.

Jolaseko eta denborapasako jardun gutxitxo ez ote du aurkitzen gaurko bertsolari berriak bertsolari helduekin? Ez ote dauka bertsolari eginak maizegi formal eta serio kantatu beharra eta txantxetan nahi aina ari ezina lagunartean? Eta ez ote da gaztea jardun eta egokiera horien egarri?

*Deia, 90 - II - 10*

## Ofizio zaila

---

“**E**z dakit baden ofizio errexik, bainan etzait iduri hau baino zailagoko aunitz baden munduan”. Aitorpen biribil horrekin hasten du Xalbador zenak “Pertsularitzaz bi hitz” zatia bere “Odo-laren mintzoa” liburuan.

Ez dira nolana hikoak urepeldarrak ateratzen dizkigun espantuak “pertsularitzaren” zailtasunak nabarmen erazteko. Mundua markatzen du, alajaina! Nik ez dakit beste bertsolariek hori bera usteko duten. Badaiteke bestelako abururik duenik, bakoitzak bere aldera juzgatzen baitu azoka edo feria, erdal esaerak dioen bezala. Xalbador baino errexago aritu izan denik badaiteke bertsotan eta ofizio hori hain zaila ez dela uste duenik. Hala ere Gipuzkoako bertsolari oparo bati baino gehiagori entzun izan diot nik, Xalbadorri irakurtzen diodan honako honen antzekorik: “Nik ere egin izan dut bakarretan (hamaika aldiz) desafio, ez nintzela gehiago joanen (bertsotara)”. Holamoduzko idea gaiztorik bere baitan jaio ez zaion bertsolari asko-askorik ez da izango. Nik bati eta biri baino gehiagori entzun izan diot behintzat.

Urepeldarrari sinestu behar bazaio, “batere ongi egitearen axolarik duenak –eta nork ez du?–, herstura gogorrek pasatzen ditu, hainbertze jende zuk zer aterako duzun beha dagoenean”. Bapateko bertso berria bota-beharrak berea du beti “herstura” hori, “erdi beharretan” den ama batek bezalaxe.

“Herstura” honek, ordea, ez du beti nahi bezalako fruiturik ematen. Eta askotan, zenbat eta larritasun biziagoa eta gutxiago. Orduan, erdi-minari, fruitu lotsagarriaren mina gaineratzen zaio. “Eta nork ez du ongi egitearen axola” eta nori ez zaio gaizki eginaren lotsaz aurpegira odola biltzen? Eta nola jokatu nahiko du inork, jendearen aurrean behin eta berriz lotsagarri gelditzeko arriskua?

Egoera horretan nornahiri sor dakioke, eta sortu ohi zaio, bere burua ezkutatzeko tentazioa. Inork ez du jendearen ahotan lotsagarri ibiltzeko gogorik izaten. Eta bere buruari orduan egiten dio “desafio” ez dela gehiago aterako jendearen aurrera bertsotarra.

Baina zorionez, beren baitan bertsolariek somatzen duten grina horri eskerrak, aurrera egiten dute, eta hor ibili ohi dira ofizio zail horretan ahal duten lanik hoberena eginez. Gaztea ere grina berak darabil eta dakar bertsolaritzara eta helduen sailera. Hari ere eskarmentuak erakutsiko dio zeinen ofizio zaila hautatu duen. Harek ere, ordea, desafioak desafio, aurrera segiko du bertsolaritzarekin.

*Deia, 90 - II - 17*

## Zaila ofizioa

---

**A**ÑORGAN zen. Urtea, 1970 inguru. Martxoa zela uste dut hilabetea. Sasoi horretan egin ohi zen han askotan bertso-jaialdi bat eta garai horretakoa zela nago gertakizuna. Ikusteko guztiak ikusi gabeak ginela igerri genion ederki egun hartan ere.

Zeinek pentsa, izan ere, “irriaren giltza” negarrez ikusi behar genuenik? Zeinek esan “gure ustez bihotz sendoko gizona, haur bat bihurtua” ikusiko genuela? “Hartaz oroitzeak berak irria ekar arazten” omen die jendei, “ezpainetaraino ez bada ere, bihotzerat segurik”. Eta gure irrilaria negarrez egun hartan?

Gure irri-gizona ederki ezagutzen zuen norbaitek, ederki adierazia utzi du gerorako gertakizun harrigarria eta notizi ikusgarria: “Mattin nigarrez ikusi dut”. Hura zen marka! Hura ez-ustekoa! Zein eta Mattin nigarrez, gure “irriaren giltza”.

Bere lagun bertsolariak esango digu zerk utzi zuen Mattin “nigar bero batekin bustirik begia”. Hark kontatuko eta kantatuko digu bertso paregabe batetan, zein zen aheztarrak “gorderik zineraman zauri bizia”. Zortzi bertsoan esplikatzen du notizia Xalbadorrek, eta hona hemen hirugarrena:

Aranalde apeza gai-emaile fina,  
hark dautzu jauz arazi nigar-zotina;  
semeaz kantatzea zautzun galdegina,  
nola Paris alderat dautzun aldegina;  
ez bada burdina,  
atzotik aintzina  
daukake jakina,  
zonbat den samina  
seme urrunduairen aitaren mina.

Hori zuen aheztar txiki-haundiak bere “zauri bizia”: Bizirik salbatu ahal izan zuen seme bakarra erbestera joan zitzaiola lanera, bere ofizioak behartuta. Nolako hustasuna ote zegoen bihotz haren barnean, hala negarrez hasteko.

Inguruan genbiltzanok igertzen genion, aspaldi hartan, burutik kendu ezin zuen arazoa zuela bere semearena. Beste konturik ez zuen izaten elkartzen ginen aldiero. Eskutitza jaso zutela. Ongi omen zegoela, baina aitamak zituela beti gogoan eta abar. Horrela ari zitzaigun joan den aspaldian Mattin. Neke horrekin zebilen herririk herri gure “omore pitzarazle gaitza”.

Zer “ofizioaren astuna gure Mattinena garai hartan, “min bat bezik ez bihotzean” eta irrijario eta irri pizten ibili beharra munduan! Solamente bihotzeko “zauri bizia” ukitu zitzaionean, ahaztu ziren irriak eta agertu ziren egiak. Zenbat aldiz ez ote zitzaion gertatu harako Xalbadorrek zioen hura: “Nahiz irria gezurra izan eta berari eman min”...? Zaila ofizioa bertsolariarena zenbait alditan.

## Pastorkua

---

**P**ASTORKUA zer den ez dakienik ez dago Urola aldean, eta hangoak ez garen askok eta askok ere ikasia dugu Azpeiti aldeko bertsolariek maiz bisitatzen duten jatetxe bat dela. Eta lehengoan ere, azpeitiar bertsolariei omenaldia eskaini zitzaien gauean, hantxe bukatu genuen jaia, duela hamabost egun esan nuen bezala. Han bukatu genuen; baina nik hangoa kontatzez ez nuen bukatu. Beste baterako utzi nuen gaur hamabostekoan. Hara txanda iritxi.

Aurrekoan nion bezala, Joxe Lizasok, berea duen eskuzabaltasunez, ederki hornitu zuen mahaia tartaz eta txanpanez eta puruz eta abarrez. Berak ere piztu zuen berea, ohi duenez. Eta denok bake ederrean hartzekoak hartzen ari ginela, artean aski eman ez baligu bezala eta aski gozatuak ez bagindauzka bezala, bertsoak ateratzen hasi zen lagunartera, horretan ere eskuzabal baita gure "rusoa".

Zertan esango dugu nolako sasoiarekin ekin zion bere lanari, hori ere jakina bait da, Joxe ezta-rriz eta puruz ongi baldin badago. Hura egurra! Hasi eta bukatu berak egin zuen, ni han egon nintzen bitartean egin zen saioa. Gero esango dut nola bukatu zuen. Orain esan dezadan nola joan zen.

Egingo nuke apustu, irakurle, zuk baietz asmatu, Izarraizpeko "axaria" han zela jakinda, zein saltatu zen aurrena Lizasoaren gonbiteari erantzutera. "Zein izango zen ba, beste Joxe" esango zenduke.

Bai asmatu ere. Joxetik Joxera izan zen eraso. Imanolek ere bakarren bat edo beste kantatu zuen. Euskitzek ere bi edo hiru bai; baina gainerako guztia bi zaharren gain joan zen.

Ederki jo zuten elkar. Min ematekorik gabe; baina elkar ondo berotuz. Oraintxe elkarri errespetoa faltatu behar ziotela zirudienean eta gizalegea galdu, poliki-poliki atzera egin zuten, bakoitzak bere konfesioa eginez. Eta apaltasunezko aitortzak Joxe Lizasok bukatu zituen, bakoitzaren giza-jitea ederki deklaratu:

Lengo hori ez altzan / arrazoi gogorra?  
Orain erantzutea / daukat derriorra,  
bertsotan ordainduaz / bertsozako zorra;  
hi haiz, motell, petrala / ni nauk egoskorra.

Ez zen gehiago bertsozik izan. Dena esana zegoen. Haiak algarak eta txaloak eta hura giroa!

Plazetako jaialdi eta bertsozez kanpoko beste bertso giro hauek dira nere gustorako, urritzen ari zaizkigunak. Txoko hauetako bertso-gosea mantendu beharra dago. Eta hor bai badutela bertsolari guztiek lekua.

*Deia, 90 - III - 17*

## “Osatzen dutan taldea”

---

“**A**METS egin dut txapeldun dela / osatzen dutan taldea”. Mixel Xalbador da amets horren egilea. Edo jasailea. Hark ere aurtengoan ez zezakeen egin bera zenik txapeldun. Berak “osatzen duen taldeak” behar du izan nahi eta nahi ez, txapela ez baita bakarka jokatzeko aurten Nafarroan, taldeka baizik. Launako taldetan banatuak daude bertsolariak, eta taldeak taldeari irabazi beharko dio txapela, ez bertsolari batek besteari. Horrela antolatu dute aurtengoa nafarrek.

Jakin dugunez bertsolari den-denak ez ziren konforme; baina ia denak hor dabilta. Eta aurreko alditan gordean egon den Arrosagarai ere hor dute. Duela aspaldi ezagutu genuen Arrosagarai eta beti gustatu izan zaigu haren bertsoetako tankera. Poz hartzen dut berriro bere lagunekin ikustearekin.

Zenbait jende beldur da, eta ni neronek ere bai, arrakasta ez ote zaion gutxituko aurten txapelketa honi. Ea grina gutxitxo aurkitzen duen bertsozaleengan nafarren norgehiagokak. Grinak, batetik, agortu xamarrek egon daitezke bertsozaleengan, Euskal Herrikoa pasa berria dugulako eta han hustu-xamartu zirelako bertso munduko grinak eta minak. Berriak pizteko, bestetik, ez dirudi taldekakoa denik norgehiagokarik egokiena. Banakakoak gehiago berotzen duela dirudi bertsozalea. Norbaiti egon ohi gara atxikiak, eta hura talderatzen bazaiagu, jan egiten du taldeak eta gu gure hura gabe gel-



ditzen gara. Beraz garabilzkiten grinak motelduak gerta daitezke eta arrakasta gutxitua.

Baina honek ez du esan nahi taldekakoa gaizki egina dagoenik, txapelketa ez bait da txapelarengatik bakarrik egiten. Beste helburu batzu ere izan ditzake. Eta horien bila dabiltzala dirudi nafarrak txapelketa honetan.

Txapelketa ez, "txepelketa" zioen lehengoan norbaitek norgehiagoka horrengatik. Ez da aldrebeza hizjokoa, eta badakigu zertsu adierazi nahi duten. Ez dagoela, alegia, beste zenbait txapelketarekin konparatzerik.

Egia da, gaur ez dezaketela erakus nafarrek gure arteko zenbait bertsolari bezalakorik. Ez daukate inoizko Lasarterik edo Xalbadorrik eta abarrik. Gure Atanorik ere ez zuten garai batean; baina haien Retegirik ere ez dugu guk orain. Etor daitezke han ere bertsolari haundiak, eta etorriko dira. Birtartean, ibiltzea da garrantzizkoa. Jardutea. Daukaten suari itzaltzen ez uztea. Horretan dabilta eta bebiltz. Fruituak ikusiko dira.

*Deia, 90 - III - 24*

## “Onena”

---

“**O**NENA” jarri zuen kopiatzaileak, eta **Zeruko Argiak** hala agertu, Xalbadorrek “... oso-na” jartzen zuen lekuan. Eta haserretu egin zen gizona, edo samurtu, berek esaten duten bezala.

Ez zen harritzekoa bertso hura kopiatzerakoan huts hori egitea. Bazirudien bertso haren erremateak horrela behar zuela. Edozini eskatzen die bertso hartako laudorio haiek azken hori. Eta gipuzkoar bati zer esanik ez. Ez al dute oraintxe ere, “Jakin” aldizkariak erakusten digunez, “bertsolari estimatuen eta gogokoena” Uztapide dutela esan Gipuzkoa aldeko bertsolariak? Uztapide-Lasarte-Basarri izan da beren hautua, denak batera jota.

Baina 25 urtez behekoak bakarrik hartuta, beste zerbaitek ageri da. Hauen hirukotea Txirrita-Xalbador-Lasarte da. Eta edozeinek daki hauek ia ia entzun ere ez zutela egin Xalbador. Hura ixildurik hamalau urte badira gutxienik. Zer entzun zezatekeen beraz urepeldarra, orduan haur batzu besterik ez ziren hauek? Eta zer konpreni? Hutsa.

Ez dira bakarrak beren eredia Xalbador dutenak hurbileneko bertsolarietan. Eskolak ere gure artzaina du eredueta bat. Ikasle-irakasleek ere bera dute. Zergatik ote da ezberdin baloratze hori “betiko” bertsolariak eta 25 urtez behekoak? Hori, nik esan behar banu, irakurketaren ondorio da. Uztapide eta Xalbador irakurtzez ezagutzen dituenarentzat, gauzak ez du dudarik. Paperera ezkeru ure-

peldarra da nagusi bertsotan, bapatekotan nahiz jarritakotan. Egun edo bihar bertsolaritza buka baledi –Jainkoak ez dezala nahi–, eta nonbaitetik norbait baletor “errestoen bila” paperak gidari, ez luke duda haundirik izango erabakitzen zein izan zen guk eza-gutu ditugun eta joan zaizkigun bapatekolarietan miresgarriena.

Eta Xalbador bera ere uste horretan zegokeenaren irudipena daukat nik. Ikus bestela honako bertso hau. Haur bati egina da. Haur horrek amets egin du Xalbador dela txapeldun. Entzun bertsoa:

Xabier maite, hori da aments  
zoroa egin duzuna!  
Bainan ni ere amenslari naiz;  
beraz zu ene laguna.  
Gauetzko gauzak dira amentsak,  
ager bekigu eguna;  
ez goregi har egia; bainan  
ez nauzu ni xapelduna.

Haren haserreak bazezakeen, bai, errima aldatetaren okerra bakarrik ez zen beste zerbait.

*Deia, 1990*

## Lizaso, Agirre, Lazkano

---

**Z**ER hiru izen puska! Zer hiru bertsolari ale! Zer hiru seme Loiolaren herriko! Joxe Agirre, Joxe Lizaso eta Imanol lazcano da hirukote hori. Izen-abizenak horiek dituzte, baina badute ez-izenik ere. Nola ez? "Rusoa" da Joxe Lizaxo. "Xarra" da Joxe Agirre eta "Gaztelu" da Imanol Lazkano. Horra hor izenez eta ez-izenez nonbratua gaur Lastur auzoak omenduko duen hirukotea.

Hiru izen eta hiru gizon ditugu azpeitiar hauek. Hirurak ezkonduak eta hirurak guraso ditugu. Lizaso aitondue ere egina dago. Besteak ere ez dira urrutizango. Maria Luisa de "Xarra"ren emaztea. Juli da "Rusoa"rena, eta Arantxa "Gaztelu"rena. Semeak -bi- ditu bakarrik Lizasok. Alabak -lau- ditu bakarrik Lazkanok. Seme-alabak -bi eta bi- ditu Agirrek. Familia eder banaren jabe dira beraz hirurak. Andreei eskerrak! Askotan eta askotan beren buruak erdi-alargun ikusi dituzten emakume hauentzat ere ez litzake gaizki etorriko gaur oroigarritxoren bat Lastur aldean. Hauek haina bertso kantatu behar izan duen bertsolariak ordu askotan utzi behar izan du gizonik gabe emaztea eta aitarik gabe seme-alabak, nahiz eta, hiru hauek bezala, emaztea berekin ibili zalea izan. Andreak beren ondoan maizena ikusten zaizkien bertsolariak hiru hauetxek dira. Baina halaxe ere, zenbat gau eta egun gizona noiz bilduko zai.

Baina Lasturrek ez ditu gaur omentzen hiru gizon bete direlako. Hiru bertsolari haundi direlako

omentzen ditu. Eta haundiak direlako baino ere gehiago, leialak direlako omentzen ditu.

Horixe dira, izan ere, batez ere, eta besteak beste, hiru bertsolari hauek: zerbitzari haundiak. Deia erantzuteko leialak eta etorritakoan kantatzeko berdin. Behar dena eta gehiago eman gabe ez zaituzte inoiz utziko. Bertsoak kantatu egiten dituzte, kontatu sekulan ez. Hori eskertuko die lehenik Lasturrek. Bestea dohain eder baten fruitu izan daiteke bakarrik; baina leialtasun hori beren meritua dute.

Beraz hiru gizon eta hiru bertsolari omenduko dira gaur gauen lasturko txokoan. Bejondaiela lasturtarrei! Olio pixka baten beharrean egon zitezkeen hiru gurdi zahar hauek aurrera egiteko negarrik gabe, eta gaurko igurtziak mesede egin diezaieke. Zorionak, bi Joxe eta Imanol.

## “Bertsozalea al zen Orixe?”

---

**G**ALDERA hori egin zidan gaur zortzi Gazteluko Herriko Etxean Euskitze bertsolariak. Hari orduan zer erantzun nion esan aurretik, esan dezadan biharamonean bazkaltzekoan entzun nuen hari bereko beste zerbait. Joxan Artze nuen aldamenean mahaian, eta berak kontatu zidanez, berari ere galdetu berria dio bertsolari gazte batek ea bertsozalea den.

Nik ez dakit bertsolariak jende eskolatua beren alde daukaten edo ez jakiteko kezka bat daukaten. Ez bitez kezka gahiegi gauza horrekin. Bertsolaritza bera bakarrik gai da aurrera egiteko. Baina jakin bezate, Orixeri dagokionez, bertsozalea zela eta bertsozalea, eta idatzirako gehiegizkoa baderitzo ere errimari, katurako beharrezkotzat daukala, eta bera ere, nahiz bertso-neurri berriak asmatzen ihardun, inoiz ez zela errimatik libratu.

Nola ez da bada bertsozalea izango Orixe, herri honek berez, inolako eskolarik gabe, egin duen kulturak izan duen kantatzailerik eta kontatzailerik paregabeena izanda? Zeinek kontsagratu du, izan ere, herri honen kantuzko eta dantzazko eta kirolezko festa “Euskaldunak” poemak bezala? Eta zeinek “inmortalizatu” ditu herriko pertsonaia apal eta inoiz baztertu horiek poema harrigarri batean taimana horretako protagonismoa emanetz?

Bertsolaria poeman etengabe dabil, gizonezko nahiz emakumezko, bizitzan eta heriotzean, lurre-

koetan eta zerukoetan. Protagonista gizonezkoa ere bertsolaria da. Eta poema osoa kanturako egina da, bertsozaleak kanta dezan.

Baina Orixeren bertsozaletasuna ez da espreski bertsotan egindako poeman bakarrik agertzen. Berak asmatzen duen zeruko izaeran ere bertsolariak ditu protagonista. Hango dantza haundiak bertsolarien kantua du lagun. Ez da posible Orixe baino mirisle haundiagorik aurkitzea herribertsoarentzat.

Poema haundiaren bukaera ikasi nahi baduzu, hona hemen, bertsolariaren ohiturari jarraikiz, bere poemari fetxa jartzeko egindako azken-bertsoa:

Bertsolariak oitura baitu  
esaten urtegarrena,  
bertsu-lan oni jakin zer urtez  
eman diodan azkena:  
Kristo jaiorik emeretzireun  
ogei ta amalaugarrena...  
Ederrik ba du, Arena du, ta  
txarrik ba du, neronena.

## Bertsolaria eta esparringa

---

**T**XAPELKETA egunean, eguerdi inguruan, jendearen ahotan zebilen saio bat, Egañak eta Euskitzek egindakoa zen. Bertsolariak –Egañak– laguntza bat nahi du txapelketarako prestatzeko eta esparring edo entrenatzaile bat eskatzen du egunkariz eta Euskitze datorkio. Hona bertsoak:

*Euskitze:* Entrenatzeko anuntzio bat  
eskura etorri zait neri,  
Andoni Egañak ezin lezake  
nor-nairen eskutan segi,  
batetik buru argia eta  
bestetikan sen geiegi,  
hutsaren pare utziko ditu  
Lizaso ta Lopategi.

*Egaña:* Txapelketa bat badator eta  
prestatu nai nuke bapo,  
mutil gazte bat aurreratu zait  
naiko txulo, naiko guapo,  
kazadora bat guztiz snow-a  
ta galtzetan franja pronko,  
piura txarra iruditzen zait  
esparring on batentzako.



*Euskitze:* Esparringari burla egiten  
hasi zaio alajaina,  
baina besteei babesik gabe  
ezin hartu die gaina,  
dirudienez bere ustetan  
oso ona da Egaña,  
halare nekez ikasiko du  
maisua dakien aina.

*Egaña:* Zu maisutzako onartzerikan  
ez dezu, bada, usteko,  
prestakuntzetan hiru-lau saio  
egin nai nitun asteko,  
baina gogorik ez det batere  
txolin honekin hasteko,  
egokiago ematen dezu  
lanbada irakasteko.

*Euskitze:* Nik labandaz gain zu hezitzea  
hartu nai det nere kargu,  
trebe samarra jarri zaitezke  
sartu ezkeru mila ordu,  
nere buruak zure etsaiak  
estudiatzen dihardu  
Azpeitiarrei irabazteko  
hango maisua behar du.

*Egaña:* Iragarki bat erantzun naian  
prestatu zera lanera  
zerorren ustez jarri nai dezu  
Andoniren esanera,  
berriz txapela eraman gura  
hauek Azpeitia aldera,  
espia lanak egingo ditu  
Lizasoren mesedera.

*Euskitze:* Hara Zarauzko gixajo honek  
ze oilar planta dakarren,  
burua arin samarra eta  
lojikaz erabat herren,  
leziorikan ez dit hartu nai  
nik merke eskeini arren,  
besterik ez du merezi eta  
gera bedi zortzigarren.

*Egaña:* Besteak lana egin beharko  
neri txapela jateko,  
traturik ezin degu egin da  
garaia dezu joateko,  
baina aurretik badaukat zerbait  
zuri lagun esateko,  
biboegia jaio zinala,  
esparringa izateko.

## “Lenago heldu zen ezina”

---

“**L**AZKANOK eta Lopategik ere saio bikaina egin zuten aita eta seme drogazalearen gaiarekin”. Hori esan zidan lehengoan batek. Hamarreko haundia dute neurri, eta neurria ez-ezik, edukia ere haundia dutela uste dut. Hemen dituzu sei bertsoak.

*Lazkano:* Len ere sarri eskatu dezu  
ez da lenengo notizi,  
seme maitea giro honetan  
gu ezin gindezke bizi,  
famili dena hondatutzea  
bait derizkiot itxusi,  
hartu itzazu mila pezeta  
nere bihotz eta guzi,  
bokadilo bat jan zazu baina  
drogarikan ez erosi. *(bis)*

*Lopategi:* Ene aitatxo zure sermoia  
entzun dut mantso la isil,  
ni bezalaxe langobezian  
aurkitzen da hainbat mutil,  
eta hortatik sortu zaizkigu  
denontzat hainbat maratil,  
mutil ederra nintzen lenago,  
orain gaixo eta zurbil,  
droga hortatik alde baino len  
orain naiago dut nik hil. *(bis)*

*Lazkano:* Lendabizikoz hartu zenduen  
etsairen batek salduta,  
hau da mutilan jakabidea,  
edade hortara helduta,  
beronek dio gazte jendeak,  
beste biderik ez du ta,  
ez dezazula zeure burua  
tranpa horretan izkuta,  
mundua ez da oneratuko  
zeure burua galduta. *(bis)*

*Lopategi:* Badakit hori arrazoia da  
hori ez da, aita, broma,  
beti zenduen gizon zintzo ta  
leial jatorraren sona,  
baina ez zenduen zure semeak  
behar zuenikan soma,  
beraz alperrik sermoi kantuan  
une hontan zatoz hona,  
ez zuk, ez bestek, ez bait dit eman  
drogan dudan zoriona. *(bis)*

*Lazkano:* Horra noraino iritsi zeran  
bizipozan eskasian,  
mundu guzia baztertu eta  
dabil beste galaxian,  
gizatasunak galdu ditu ta  
abereekin nasian,  
ama ta biok ez gera jarri  
bizimodu errezian,  
negar malkotan beharko degu  
geure bizitza guzian. *(bis)*

*Lopategi:* Zure babesa estimaturik  
bizi mintzen ni antzina,  
baina sarritan hurbildu eta  
e(g)iten zenidan muzina,  
gazte zorotzat neurtu ninduzun  
zu zintugun gizon fina,  
berandu xamar zotozkit aita  
lenago heldu zen ezina,  
drogan ez nintzan inoiz jausiko,  
ondoan egon bazina. (bis)

## “Nik ez det horren errurik”

---

**I**ÑAKI Muruak nolako eguna izan zuen finalekoa badaki mundu guztiak. Bere haurraren ondorezak aitaren bihotzari eman zion nekerik asko. Hala ere, goizeko bakarkako saiotan bertso ederrak atera zituela uste dut “Haur bat zara. Gaztelu eder bat egin duzu hondartzan eta bukatu orduko ura iritsi da zeure oinetara” gaiarekin. Hemen dituzu hirurak, bertsozale:

Eguraldia argi ta bero  
eguzkiaren jaiotza,  
ni hondartzara iritsi naiz ta  
alai-alai nun bihotza,  
gaztelutxo bat egina nuen  
hondar eta txirlaz osa,  
neretzako aproposa, (bis)  
uraren kulpaz negarrez nago  
len nengoena arrosa,  
zuk zer dala ta kendu didazu  
nere bihotzeko poza?

Sekula santa ez nuen pasa  
hau bezelako ordurik,  
eta zuk dena birrindu dezu  
ez det osatu modurik,  
ez nuen uste itsaso amak  
galtzen zuela bururik,  
ez al daukazu ardurik? (bis)

Ez det zikindu inoiz zaborraz  
itsaso amaren urik,  
zu haserretan zaudela eta  
nik ez det horren errurik. (bis)

Jolasti nengon. Zer zoriona,  
munduko pozen berdina,  
ni nintzateken jardín batean  
intzez dagon klábelina,  
orain gaztelu politto hori  
txikitu didazu baina,  
neuk eskutxoez egina, (bis)  
zuri begira haserre nago  
hau da ulertu ezina,  
zeurezat onik batere ez ta  
neri horrelako mina. (bis)

*Deia, 90 - VII - 14*

# Finalekoak

---

**F**INALEAN izan ziren hots haundia atera zuten bertsoak. Horietako batzuk dakartzat. Hauek Txapeldunarenak dira. Everest-era bidean laguna galtzen duenarenak. Hiru hitzen esanahia adieraziko dut, badaezpada ere: “armin” (larri); “lorrin” (ez-behar); “erkin” (ahul).

## 1

Mundu hontako justizia ere  
hain gertatzen da urria,  
gutxien uste dugun garaian  
bait dator gaitz bihurria,  
munduan dagon goi altuenari  
hartu naiean neurria,  
hona bikote oso zalea  
martxa haundian jarria,  
baina bere(ha)la buka zitzaigun  
ilusioen argia,  
hau da ene aldarria  
minbera eta larria,  
lagunarekin biok genduen  
Everesten egarria,  
azken boladan hola galtzea  
ez al da negargarria?



## 2

Ondo betea jarri genuen  
 jan edaritan saskia,  
 subentziotan hornitu ere  
 ibilera garestia,  
 bion bihotzak sentitzen zuen  
 esperantzaren izpia,  
 Everest gaina ia eskuan,  
 ibilera amestia,  
 baina ozipina agertutzen da  
 aienatu zen ezitia,  
 hargatik nire abestia,  
 sentimentutaz bustia,  
 Everest punta genun amesa,  
 hura gendun eguzkia,  
 baina laguna eroritzean  
 itzali zaigu guztia.

## 3

Jarraitu naita, jarraitu ezin  
 bihotza jarri zait armin,  
 zeinek pentsatu gure irteran  
 guretzat hainbeste lorrin,  
 galdu ditugu lagunarekin  
 gure hainbat ames gordin,  
 hala ta guztiz Everest berriz  
 jarri zaigu argi urdin,  
 ez ninteke ni bide erdietan  
 gelditu inola erkin,  
 ez naiz sentitzen atsegin,  
 baina segitu nai berdin,  
 punta hortara ailegatzeko  
 saiatuko naiz beinipein  
 lagunaren ta nire izena  
 bertantxe idatzi dadin.

Deia 1990

## Marinel zaharra

---

**M**ARINEL zaharra ohean dago. Urteek indarra jan diote eta ezinak ohean dauka. Lehen itsastar zen honek, olatuen hotsa du bakarrik orain itsasoarekiko lotura. Marinel zahar hori da bertsolaria. Zer dio? Egoera hori bereziki ederki adierazten duen bertsolaria Euskitze dela uste dut nik. Hona hiru bertsoak:

Hainbat urtetan probatua dut  
itsasoaren morrontza,  
sarri gozatuz, sarri sufrituz  
bere bero eta hotza,  
baina len gazte nuen gorputza  
ohean erdi hilotza,  
behintzat eskerrak entzun nezaken  
hainbat olaturen hotsa,  
hala ez balitz nik honezkero  
geldirik nuke bihotza. (bis)

Hainbat barkutan egin izan dut  
hara ta honako jira,  
denak batuta emango nion  
mundu osoari bira,  
nere alaba, nere ondoan  
erdi negarrez ari da,  
neska, mesedez, hainbeste malko  
hemen ez zazula tira,

altxa nazazu ea hiltzen naizen  
itsasoari begira. (bis)

Oso gazterik eman nuen nik  
itsasorako pausoa,  
aitortzen dut ez dudala izan  
bizimodu erosoia,  
zuri begira naiz zorionez  
neure alabak jasoia,  
nahiz nik hainbeste sufritu mila  
esker zuri itsasoia,  
ni ezer ez naiz, zu izan zera  
nere bizitza osoia. (bis)

*Deia, 1990*

## “Finalerdiak” eta “Finala”

---

**L**IBURU bakar eta berean dauzkagu batzuek eta bestea. Liburu haundia atera da. Lodia. Bertso asko da, ia larehun orrialde dituen liburu honetan. Laister ohartuko da irakurlea, liburuaren bi zati horiek, “Finalerdiak” eta “Finala”, benetan bi direla. Alde haundia dagoela batetik bestera. Eta alde, jakina, kalitatean. Nik ez dakit besteri zer gertatuko zaion, edo gertatua dakioken, baina ni uste eta nahi baino bertso on gutxiagorekin gertatu naiz “Finalerdiak” zatian. Denak ez bada ere asko eta asko banituen entzunak eta liburuan irakurrita baino hobeak ziren irudipena neukan. Eta irudipen huts gertatu zait, eta ez egiazko zerbait.

Esaldi makets askotxo aurkitu ditut. Elkarri josi gabeko puntuak ere asko. Ez hanka eta ez ipurdi ere bai zenbait. Hika eta zuka nahasteak ere badira. Puntu batetik bestera egindakoa ere bai bakarren bat. Hitz batean, nolahalako bertso askotxo bilatu dut. Nik uste eta nahi baino gehiago. Ajeatuenak, zortziko txikikoak iruditu zaizkit. Hori ez da harritzekoa. Denak ere, bai zati honetakoak eta bai besteak, zortziko haundian, eta haundiagotan, hobe ki moldatzen direla ikusten da.

Beste zatia, “Finala”, beste gauza bat da. Beste maila bat du. Hemen ere aurkitzen da bertso txarrik eta akasdunik. Bat bada lau puntuetan aditz jokatu bat bakarrik ez daukana. Baina hemen bertso ona askoz ugariagoa da. Ez ziren alferrik finalerdietako hamaseiak seitara bihurtu eta zortzikotea osatzeko

aurreko txapelketako txapelduna eta txapeldun-ordea sartu.

Bahea ez zela nolana eta alferrik pasa, garbi ikusten da bi zati horiek konparatzen badira. Alde ederreko distira dauka bigarrenak.

Txapelketak ez dakit nik zertaraino balio dezakeen bertsolaritza bideratzeko; baina kalitatea zaintzeko balio du. Eta bertsoaren lehen alderdia, eta beharrezkoena, kalitatekoa izatea da.

*Deia*, 1990

## Don Manuel Lekuona

---

**D**ON Manuel Lekuona aipatu gabe hola gelditu egun hauetan eta nere txoko honetan? Ba al da, izan ere, bertsousaina duenik ezer, Don Manuel gogora erazten ez duenik? Andoain aldean oiartzuar distiratsu honen izenean eta omenez jaialdia antolatu duten honetan, betor nere txokora gure “jaun fina”.

Lehen goan lagun batek hotsegin zidan telefonoz, Don Manuelez hitz bitan zertsu esan zezakeen galdetzeko. Eta hauxe erantzun nion: “Don Manuel zabor tartean zeuden pitxi preziatuak aurkitzeko gauza izan zen gizon berezi bat duk”. Horixe esan nion, eta bi exenplu bota nizkion. Beste zientoka begik ikusi eta ezagutu ez zituzten Grekoak eta beste askok eta askok hankapean zerabilten bertsolaritza. Harek ikusi zuen bazegoela zerbait ahozko literaturaren barnean dirdir egiten zuena.

Zaborra bazegoela bertsolaritzan, ez dago dudarik. Badut nik adiskide donostiar bat, emakumezkoa bera, Txirrita polikitxo ezagutu zuena. Abertzale haundi bat da andre hau. Hil edo biziko apustua jokatua da Euskadiren alde bere bizitzan. Bizia Madrilen Nuntzio zegoen kardanal jaun baten ahaleginari zor diola aitortzen du. Andre paregabe honi Txirritak nazka ematen omen zion. Larraitzen ezagutu zuen. Eta jakina, gure Lujanbio haundia alderdi haietan jan eta edan eta beste ibiltzen omen zen eta ez beti kurioso. Hil aurreko atakea ere gure hermaniar gogoangarriari, gazta zahar jan bat egin on-

doren eta pitxar erdiren bat ardo likidatu ondoren eman omen zion. Zein harri daiteke, beraz, gure neskatz fin eta zintzoaren buruan halako irudi itsusi xamarra utzi izana Txirritak?

Baina zaborra bakarrik ez zen Joxe Manuel Lujanbio. Artista miresgarri bat ere bazen arlote hura. Gure herriak ezagutu duen ahotsik garbienetakoa eta argienetakoa ere bazen. Baina hori ez zezakeen deskubri donostiar fin harek. Horretarako beste Manuel bat behar genuen. Oiartzuarra bera, bertso-laritzaren lurrian sortua, eta Lekuona apolidoduna. Don Manuel Lekuonari zegokion pitxi horren distiraz ohartzea.

Bidez egingo diote bai andoaindarrek ere omenaldia, beren artean hainbeste urtez izan zuten oiartzuarrari. Zeinek erakutsi die, izan ere, harek bezala beren etxean zeukaten balorea eskertzen? Bere jaioterritarrei ere beste inork ez bezala erakutsi die. Denoi erakutsi digu don Manuelek gure herriaren edertasunak ikusten eta baloratzen. Bejondiola! Goian bego.

*Deia, 1990*

## Galdera bat

---

**B**i sariketetako lanak iakurri behar izan ditut denbora gutxian. Bietako idazleak, adin bere-tsuko haurrak ziren. Batekoek gaia aukeran zuten eta bestekoek ezarria. Haiek narrazioa eta olerkia zituzten molde. Eta hauek bertsoa.

Esan dezadan, gerorako utzi gabe, atsegin haundiz irakurri nituela lehenengoak eta neke haundiz bigarrenak. Eta ez letrarengatik. Horretan ez zegoen alderik. Batekoek bezain aldrebesa zuten bestekoek. Eskerrak ohiturik gauden lehendik horrelako letrajeetara.

Aldea zera zen: lehenengoek, esan nahi zuten hura, nahi zuten moldez esan zezaketela, eta beste-ek, neurri jakin baten moldeak beharturik, esan nahi zuten hura, nahi zuten moldez edo bezala ez zezaketela esan. Eta esan nahi zutena nahi zuten bezala esan ezin horrengatik, nahi zutena esan gabe gelditzen ziren. Eta haurrak berea berez esaten ari behar du. Bestela ez daki hitzegiten. Hizkuntzaren trikimailuak geroago ikasten dira.

Aspalditxo ikasia naiz ni, haurrak eta gaxteak, edo gaztetxoak –zer esanik ez gazteak– zenbat gauza eder daukaten esateko, eta dakiten esaten. Badut hamaikatxo ikasirik horiengandik. Eta gerora ere izango ahal dut! Eta izango dut, dudarik gabe, baldin gizarteari ahazten ez bazaio ondorengoak sortzen. Baina ikaskizun horiek haurrak, berez eta bere gisara, bortxatu gabe, ari denean ematen ditu.



Hori ikusten zen sariketa horietako batetan. Haurrak berez ari zirela. Zorionak merezi dituzte, haurrak horrela berezkotasunean hazten dituzten irakasleek.

Eta bestean, horixe ez zen ikusten: Berezkotasuna. Ez zuten haurrarenak izan ohi duen ixuririk. Bertsoaren beharrak bortxaturik ikusten ziren.

Nik ez diot kontsejurik eman nahi lan horretan ari den irakaslejendeari. Ez du beharrik. Baina kezka bat, bai, agertu nahi diot. Ez ote goizetxo, hamar urte bitarteko adin hori, haurra bertsoak egiten jaritzeko? Bertso osoak behintzat, dela zortziko txiki, dela haundi, dela edozein hamarreko? Horrek ez ote du hizkuntzaren erabilpen motak hobeki ezagutzea eskatzen? Ez ote litzateke hobe errimaren jolas pixka bat eginaraztea, besterik gabe?

Hori da bi sariketa horietako lanak irakurtzeak sortu didan galdera.

*Deia*, 1990

## Beren jendearekin

---

**B**ATZUEK, udako beren jira, kitarra bat bizkarrean hartuta egiten omen dute. Harek berea harritzar haundi bat hartuta egiten omen du. Leitzeko harri-gizonak esaten zuen hori lehengo batean egunkarian.

Txoko honetako protagonistek ez kitarrarekin eta ez harritzararekin egiten dute beren jira udaran. Hauek bertsoarekin egiten dute. Hor dabilzkizu auzoz-auzo eta herriz-herri eta hiriz-hiri beren arte xume eta emankorra ahotan dutela. Harrigizonak gustoko ditu eta hauek ere gustoko dute harrigizona.

Eta nik esan behar banu, beren onean orain dabilta gure bertsolariak. Dagokien bezala alegia. Beren jendearekin. Betitsukoekin. Orain dabilta berez. Aurrean bertsoa entzuten dagoena bakarrik dute gogoan. Zeharreko ezeri beha egon beharrik ez daukate.

Hor ez dago lapitzadunik, dela bertsoari puntua jartzeko, dela biharamonean egunkarian idazteko edo dela ez dakit nik zertako. Hor pestalea dago bakarrik. Eskolatua izan entzulea edo eskolatu gabea izan, hor pestale da bakarrik. Eta pestak, dexente berdintzen gaitu denok ere.

Hitz batean esanda, berenezko izaeran eta giroan dabilzala bertsolariak beren urteroko jira egiten herriz-herri. Hori dute beren giroa eta hor daukate beren ohizko entzulea, bertsoa bere betiko afizioa duen jendea eta bertsoa entzutera joateko bestelako

gehigarririk behar ez duena, ez norgehiagokaren grinarik eta ez besterik. Bertsoa izatea ditxa.

Hori du bertsolariak bere lekua eta bere jendea. Hor dena berezkoa da, hartzailea eta emailea. Denak dabilta berenezko grina bati erantzunez. Bertsolaria ez du norgehiagokaren kezka lotzen, ez eta entzulea haren eraginak erakartzen. Behar den giroa eta behar diren protagonistak besterik ez dago hor: Bertsolaria eta bertsozalea.

*Deia*, 90 - VIII - 4

...?

---

**Z**EINEK ez daki hemen, bera bizi den gizartean, gauza asko zaiola ezezagun? Beste zenbaitek buruz dakizkien gauza asko eta asko ez dituela bati ere ezagutzen? Eta ez urruneko zaizkiolako. Norberak bere txokoa ezagutzen duelako bakarrik baizik. Eta txoko hori, gure ogibideak, afizioak eta abarrek mugatzen duten hura da.

Eta zein ez da mila bider harritu, gure ustez mundu guztiak jakin beharko zukeen zerbait halakok edo holakok ez dakielako? Guk geurok jakinaren jakinez ahaztuxe geneukakeen zerbait ez dakien hamaikarekin egin izan dugu topo. Beste hamaikak ere berdin egingo zuen gurekin. Eta gauza horiek, bizitzak, beharrez, edo bestela, eskura jarri dizkigunak izan ohi dira.

Hori bezain egi da, ordea, gehiegi ezagutzen ez ditugun sailetan sartzeko tentazio izugarria izan ohi dugula. Eta izan bakarrik ez tentazioa. Amore eman ere egiten dugula, eta mila aldrebeskeria esan behar izaten dugula arrotz xamarrek zaizkigun gai horietaz. Eta nolako komentzimentuz esan ere! Gaztelaniaz dioten bezala, ezjakintasuna atrebitua omen da, eta ez da gezurra. Ez daukagu inork erakutsi beharrik. Bakoitzak dakigu hori ederki. Atzera begira jarrita, zeinek ez dugu gogoan gure bizitzan zehar egin izan dugun hainbat eta hainbat gehiegikeria? Eta ez gaiztoz. Ezjakintasun puruz. Eta horrek ematen omen duen atrebentziaren errenditu ezinez.

Gazteari eman ohi zaio horretan aitzakirik gehiena gizartean. Erradikala omen da eta guztia baleki bezala iharduten omen du. Egia da, gazteak, bizitza lehenengo aldiz deskubritzearen liluraz edo, hau honela dela eta hori horrela dela uste izaten duela. Baina zein ez da hemen gazte, edo berri, mila modutako gaietan eta gauzetan? Zein ez da lehenengo aldiz agertu halako edo holako sailen batera? Eta zeinek ez dugu uste izaten, ordurarte beste inork deskubritu ez zuena guk deskubritu dugula eta beste guztienaren gaintetik dagoela gure egia? Ez da gezurra asko omen zekienak deus ez zekiela bakarrik omen zekiela, eta deus ez dakienak guztia badakiela uste izaten omen duela.

Honezkero galdetu diozu zeure buruari, irakurle, zer sermontto ote den nere gaurko hau. Aurrekoa irakurria baldin baduzu, eta hurrengoa, Jainkoa lagun, irakurtzen badidazu, ikusiko duzu.

*Deia, 90 - VIII - 11*

# Arrotzak

---

**B**i aste bada izen hori pentsatua nuela nere gaurko solasalditxoarentzat. Jakina, izena bakarrik ez nuen pentsatua. Izana ere bai.

Zera nuen esateko asmoa: Alegia, bertsolariaren eta entzulearen arteko harreman soil horretan sartzeko partez, bestelako eginkizunen batekin mundu horretara hurbiltzen direnen, edo garenon, balorazioak kontuzko gauzak izan daitezkeela. Esperientziak hori erakusten duela. Horren inguruminguru nuen iharduteko asmoa. Eta hona non, gaurko honen izena eta izana pentsatuta gero, gertakizun argigarri bat datorkidan eskura. Eta harira.

Guipuzkoako Baliarrain herriskara joan nintzen Amabirjin bezperan jaialdi batera. Ezagutzen nindutenek “gai jartzera, Joxe Mari?” galdetzen zidaten. “Ez –erantzun nien nik–. Gaur ez nator lanera”. Hala zen, izan ere. Aspalditxoan jaialdirik entzun gabe nengoen eta hartara nindoan soil-soilik: entzutera.

Peña, Euskitze, Telleria, Egaña eta Mañukorta ziren kantatzekoak. Eta bostak han igo ziren garaiz tranpadurara beren gai-emailea aurretik zutela. Ez da noiznahi gertatzen den gauza, baina han garaiz hasi zuten saioa. Orduan, alegia. Plaza betean bildu zen jendea. Gaugiroa ere primerakoa zen eta han jarri ginen zutik plaza zabalean bertsoak entzuteko zai, goiko izartegia beste sapairik babes ez genuela. Giro atsegin hartan ez bada, ez dakit non izan dai-

tekeen atsegin bertsoak entzutea. Haur, gazte, hel-  
du eta adineko, denetik bazen han. Zaharrek jarle-  
kutzoren bana istimatuko zuten, baina, tira!

Ordu eta laurdenekoa izan zen saioa. Nik ez  
nion luze iritzi, zutik egon arren. Bertsozale amorra-  
tu bat izan genuen gai-jartzaile: Peio Urretabizkaia.  
Ongi egin zuen lana. Presakatxo, akaso, erabili zi-  
tuela bertsolariak. Lasaitasun puntu bat falta zaio  
Peiori; baina badaki nola erabili bertsolariak.

Jaialdi ona izan zen. Bertso polit eta eder asko  
entzun zen. Bakoitzak berea egoki eman zuen. Eta  
bost bertsolari horiek, bakoitzak berea eman ezke-  
ro, ez da zaila sinestea saio ona aterako zela.

Baina denek ez zuten hala uste izan. Plazan, ni  
baino aurreraxeago, bertsolari bat zegoen ni bezala-  
xe entzuten. Bukatu zenean elkar saludatu genuen,  
eta ez bat eta ez bi, "saio eskasa" esan zidan. Nik,  
berriz, neri ona iruditu zitzaidala. Bertso egoki asko  
entzun zela. Azkenean, nere aldera jarriz bazela,  
bertsolariak famatzen hasi zitzaidan.

Hona nere kasa zer pentsatu nuen etxera bide-  
an: Hori ez duk entzule izan gaur. Hori epaile izan  
duk. Ez duk giroan sartu. Kanpotik entzun dik  
jaialdia. Egun horretan arrotz bat zen hura Balia-  
rraingo plazako bertso-giroan.

*Deia*, 90 - VIII - 18

## Erantzun zentzuduna

---

**I**RAKURLE banaka batzuk baditudala ohartzen naiz tarteka. Aste honetan ere batek eman dit nere gaur zortzikoaren berri. Lagun on bat dut azkenengo hau. Nik merezi baino hobea eta berak merezi bezain onik nekez aurkituko duen horietakoa. Irakurria eta ulertua zeukan nere azken solasalditxo.

Ez ginen bakarrik delako lagun hori eta ni lehengo larunbatekoa aitatu zidanean. Gurekin genuen bion beste lagun bat ere. Beste hau euskaldun garbi, argi eta jantzi bat da, gizon ikasia eta asko dakiena eta gehiago ikas dezakeena eta ikasiko duena, hartara jartzen bada ez bada.

Honek ez zuen irakurria nerea eta hitz bitan jarri genuen jakinaren gainean. "Arrotzak" jarri niola izena esan nion eta zera esan nahi izan nuela: Bertsolari-bertsozale arteko harreman horretan entzule soil izateko ordeztu bestelako eginkizun batekin sartzen direnen, edo garenen, balorazioak. Eta nola Baliarrainen, berez arrotz ez den bat -bertsolaria bait da bera- arrotz gertatu zen egun hartan, hartzaile soil izan ordeztu, epaile ere izan zelako, eta horrexegatik iritzi guztiz negatiboa nola eman zuen jaialdi polit eta entretenitu batetaz.

Nerea irakurtzeke zegoen gure lagun hau, bertsozalea da bera. Eta bertsozalea ere bai. Bada bertsolariaren bat beraren bertsoak asko famatu dizkiona. Baina ez dabil garai batean bezain sartua bertso munduari. Pixka bat atzeratua zegoela esan zigun.



Garai batean bezala itsu-itsuan sartua ez dabilela. Beste klabe batzuetan zebilela orain. Bertsoetara ere joaten zela, baina noizbehinka bakarrik. Bertsoa oso gauza polita dela zioen. Eta bitxia. Inoiz harri-garria ere bai. Baina ez dagoela pentsatzerik hor biltzen denik kultura guztia eta hor bildu behar duenik.

Horra hor asko-jakin baten postura zentzuduna. Bakoitzari berea aitortuz, herri-fenomeno hau eta bestea behar ditugula gure kultura osatzeko. Berak ederki zioen bezala, besteok egiteko gauza ez garen bertsokultura hor dago, bitxia, eta inoiz harri-garria.

*Deia, 90 - VIII - 25*

## “Basarri saria”

---

**B**ERTSO-PAPER sariketa bat da, dakizun bezala, irakurle “Basarri Saria”. Seigarrena zela uste dut aurtengoa. Epaia emana dugu. Ez dut esango irabaztunen izenik. Hori ez da nere egitekoa. Izenak jakiten direnean, zerekin harritu haundirik ez du izango jendeak.

Hogeitahiru bat bertso-paper baziren guztira. On-onak, sarituez aparte, ez ziren asko. Txar-txarrek ere gutxi. Kalitate politeko bertso-paperak ziren gehienak. Beti izaten da horrelakoetan itxuragabekoren bat edo beste, eta hemen ere bazen; baina bestela maila oneko lanak agertu dira. Maila on hori nola hobetu da kontua.

Bertso-paperak kantatu ainean, ohar beretsua idazten nuen behin eta berriz azkenean. Honelatsu: Bertso onak baditu; baina ahulak ere bai. Eta bertso-paper batetik, harengatik edo honengatik, erreusak bakandu beharra dagoenean, ez daukagu bertso-paperik. Bertsoak badauzkakegu, baina bertso-paperik ez. Piezarik ez, alegia. Aje hori bilatzen zaie askori eta askori. Nik badakit, piezarik hobereanean ere, badirela batzuk besteak baino motelagoak. Ez dutela denek kalitate berdina. Hori gauza jakina da. Erreusik ez, ordea, ez daiteke izan. Bestela piezarik gabe gelditzen gara.

Eta bertso ajeatuetan, mota askotako gaitzak ager daitezkeela ez dago esan beharrik; baina maizeneko bat, errematerik eza izan ohi da. Nik ez dakit

jendeak noiz ikasi behar duen bertsoak asentatzen. Kolokan utzi behar bertsoa! Bestela bertsopaper ona izan zitekeen bati laubospat kontatu nizekion horrelakoak. Bertsojartzaile bera ez al da konturatzeko gaitz horretaz? Nola segitu du hormagintzan –plangintzan alegia– harri haiek aidean utzita? Nola ez dizkio askoz buelta gehiago eman buruari erremate on –eta hobe– baten bila? Erreus horren ondoran ageri diren hobeak egin dituenak, ez al zezakeen hura hobetu?

*Deia, 90 - IX - 1*

## Zentsura

---

**B**EHIN eta berriz entzuna diot bertsolari bati, egun batez bertso-hartzaile bati egin omen zion azioa.

Delako pertsonaia horrek, prest zeukan bere tresneri guztia eszenategian. Eta askotan ikusi izan dugun bezala, makina nagusia lurrean zeukan, beste non jarririk ezta. Dena prest dago. Bertsolariak falta dira bakarrik.

Hauek ere badatoz noizpait eszenategira. Tresneriaren artetik pasa behar dute beren aulkietara joateko. Kable eta tresna artetik igarotzean, deskuidoz bezala, bertsolarietako batek, bere hanka handia gainean jarrita, krask eragiten dio tresnetako bati. Ohartu da aberia segurua dela, eta hala esaten die bere lagunei: "kantatu lasai, mutilak. Gaurko bertsorik ez dik jasoko". Ez omen ziren haserre gure bertsolari "baldarraren" lagunak.

Garai batean izan zuten halako ikusi-ezin bat grabatzaileentzat bertsolariak. Ez zen harritzekoa. Bazekiten ongi asko noraino iritsi zitezkeen haiek kantatutako bertsoak eta ondorenean zer etorri zitezkeen. Ez dugu izenik esango, baina denok dakigu nola ibili behar izan zuen zenbait bertsolarik, han edo hemen kantatu zituen bertsoak zirela eta.

Gaur ez dauka horrelako beldurrik bertsolariak. Gaur beste zerbaitek eman liezaioke kezka. Nolahalako bertsoak ere jasoak gelditzeak kezka lezake gaurko bertsolaria. Nik badakit gustora entzu-

ten dituztela beren bertsoak, hango eta hemengo jaialditik hartuta irratiak ematen dituenen. Ez ordea denak. Onak bakarrik dira gustora entzuten dituztenak. Besteak nahiago lukete haizeak eraman izan balitu. Jaso ez balira. Norbere bertso txarrik ez du inork entzun nahi.

Zail da, berriz, bertso onak biltzea, txarrik bildu gabe. Horiek nahasian etortzen dira. Onak galterik nahi ez bada, txarrak ere bildu beharra dago, nahiz gero etxean entzuteko gustagarriak ez izan.

Nolahalako bertso hauek direla eta, aspaldian buruan darabilkitan galdera bat dakart honera. Hauxe da: ez ote lituzkete irratieta emanaldiak zentsuratu beharko, han entzun behar diren bertsoen botatzaileek?

*Deia*, 1990

## Zenbat aldiz...

---

**Z**ENBAT aldiz eta zenbat jenderi ez ote zaio damutu grabagailurik gabe joan izana halako edo holako tokiren batetara, gogoan jasotzea merezi zuten zenbait bertso entzun ondoren? Asko aldiz damutu izan zaigu; baina damu alperra. Beranduegikoa. Eta “damua garaiz”, edo alperrik da. Eta zenbat bertso eder, haizeak betirako eramanak!

Aurten badugu bazkalondo bat oso polita entzuna. Donostiako taxista bat eske daukat geroztik. Uztapide zenak eta Lasartek Idiazabalen Zepainean bertako neskatxari botatakoak dira. Nolako irrikiz dagoelako taxista bertsozale hau bertso haiek berekin edukitzeko. Politia da izan ere egin zuten saioa. Magnetofono bat izan ez balitz han, akabo halako bertso saio aparta. Zenbat horrelako!

Hartuko nituzke nik ere pozik, Uztapideren omenaldian Ereñozuko soziedade batean Basarrik eta Mattin zenak kantatu zituzten haiek. Beste bertsolari gehiago ere bazen mahai haretan, baina bakarrik gelditu ziren azkenean kantari errezildarra eta aheztarra. Dozenaren bana kantatu zuten horrela buruz-buru. Galtzak eta gonak eta hoi izkutoak astindu zituzten ederki. Baldarkeria haundirik gabe gainera. Hura zirti-zartakoa!

Hartuko nituzke ere, Imanol Lazkanok eta Joxe Lizasok bazkalondo batean Zarautzen bota zituzten haiek. Debako jaialdi batetik etorri ginen. Norbaiten omenezko bazkari bat zen Zarauzkoa. Hemezortzi-

hogei bat urte dira hori zela. Orduko herri-agintariak ere han ziren eta horrek eman zien bide herri-arazoetan ere sartzeko. Eta sartu ziren, baina giza-legez, gaizkirik gabe. Alkateak berak zorionak eman zizkien azkenean. Hura gauza! Haiek bertsoak! Hura ziztua eta haiek txaloak!

Eta Elgetako gainean Egileorrek eta Mattinek eta Xalbadorrek eta abarrek egin zuten hura? Zeinek ez luke bere esku eduki nahiko hura? Egileorrek bestaldekoei “prantsesak” esan ziela eta hura iharduna! Presaka omen ziren ipartarrak, baina ahaztu ziren han presak. Haiek txaloak Xalbadorrek Egileorri esan zionean “prantsesik ezta harat joango/ handik ez baita etorri”.

Baita ere, zerbaitxo baino gehiago emango nuke, Uztapidek eta Arozamenak eta Lazkaotxikik eta abarrek Hernaniko zine batean egin zuten hura nere eskuetan edukitzeagatik. “Gauezko lana, egunezko lotsa” jarri nien gai, bostek kanta zezaten. Hogeiren bat bertso kantatu zituzten. Haur-sortzearekin sartu ziren. Hura saio fina eta polita egin zuten, batak bestearenik inoiz errepikatu gabe.

Zenbat horrelako saio, pozik hartuko genituzkeenak eta haizeak betirako eraman zituenak. Eta lehen bezalaxe, gaur ere asko eta asko alperrik galtzen dira. Hori erremediatzen egin beharko genituzke ahaleginak. Ederra lana, baina lana, eta lan haundia eta bikaina.

*Deia*, 1990

# Aurkibidea

---

Sarrera .....	7
“Eskerrikasko, Añorga” .....	9

## 1986

Ikasle on asko.....	17
Entretenigarri .....	19
Kalitatea .....	21
Bakoitza bere lekuan .....	23
Gaizo Xalbador!!! .....	25
Urepelen ez nuen esan.....	27
Bertso idatzi txar asko .....	29
Mendizabal eta biok .....	31
Uztapide eta Xalbador.....	33
“Onestidadetik urten barik” .....	35
Urte askoan horrelaxe, Manuel .....	37
Basilio Pujana.....	39
Istripu madarikatuak!.....	41
Gaiak.....	43
Xalbador (1920-1976) .....	45
“Mujikaren euskal-perlak” .....	47

## 1987

Berria .....	51
Pitxi.....	53
Gaijartzailea .....	55
“Carmelo Balda” .....	57
“Iritxi da ordua” .....	59
“Ari du eta badator” .....	61
Bertsolari baten prosa .....	63



Zazpirak eta bat.....	65
“Gehiegi bezala” .....	67
Bertso bat.....	69
Eskola .....	71

## 1988

Omenaldiak.....	75
Bertsorik behar bada... ..	77
Salatu gaituzte.....	79
Bertso haundia.....	81
Estratosfera.....	83
Lizardi eta Txirrita .....	85
Gaia bukatu .....	87
Gaia bukatu (eta II).....	89
Kanporaketak.....	91
Ikuskizun .....	93
Poto bana .....	95
Beste galdera bat .....	97
Gaijartzailearen pozak .....	99
Beti esaten.....	101
Orexarrak... ..	103
Jakinda nago.....	105
“Ezkontzen zaigunaz...” .....	107
Lagun bat .....	109
Sendimendu ezberdinak .....	111
Elegintza.....	113
Bi bederatzi puntuko .....	115
“Bertsolari Eguna” .....	117
Biba Bilbo!.....	119
Bertsoak irratian .....	121
Esan izana damu.....	123
Hamabi urte... ..	125
Gauza gogorak .....	127
“Orain sei urte...” .....	129
Orixe eta bertsoa .....	131
Bertso-papergile.....	133
Mitxelena bertsolaria .....	135
Nola esan.....	137

## 1989

Xabier Olaskoaga.....	141
Lexoti .....	143
Zorrak ordiantzen .....	145
Patxi Goikolea.....	147
Txapelketa-urtea.....	149
“Bapatean 88”: Pitxiak .....	151
Beste gazte bat .....	153
Nik irakurri dut .....	155
Nik ez dakit... ..	157
Zutik bertsoan.....	159
Berezkoa.....	161
“Bapatean 88” .....	163
Kezka .....	165
“Baldatikan oraintxe...” .....	167
Ikara.....	169
Gazteak .....	171
Mahaiak eta mahaia .....	173
Telebista bertsoan .....	175
Zer du Bizkaiak?.....	177
Orain ere onak badaude .....	179
Billabonan... ..	181
Egun gogoangarriak.....	183
Mila esker! Mila zorion! .....	185
Arrastalde argia .....	187
Urruña .....	189
Gaiak.....	191
Zuri, irakurle .....	193
Mahaiaren alderdikeria? .....	195
Hutsegite pare bat .....	197
Notizi on bat .....	199
“Gogua dedan orduan” .....	201
“Gaurko onena...” .....	203
Entzun eta irakurri.....	205
Txapelketa giroan .....	207
Hamargarren txapela .....	211
Hamairu urte.....	213

Plaza.....	215
Bi finalista berri.....	217
Bahe estua .....	219
“Jon da bertsolaririk onena” .....	221
Burruka bukatu da.....	223

## 1990

Pozezko negarrak.....	227
Txapel-jaztailea.....	229
Bi bizkaitar .....	231
Txapeldunaren hiru bertso.....	233
“El mejor bertsolari...” .....	235
Bertsolari gazteak .....	237
Denborapasako jardunak.....	239
Ofizio zaila .....	241
Zaila ofizioa .....	243
Pastorkua .....	245
“Osatzen dutan taldea” .....	247
“Onena” .....	249
Lizaso, Agirre, Lazkano .....	251
“Bertsozalea al zen Orixe?” .....	255
Bertsolaria eta esparringa .....	257
“Lenago heldu zen ezina” .....	258
“Nik ez det horren errurik” .....	261
Finalekoak.....	263
Marinel zaharra .....	265
“Finalerdiak” eta “Finala” .....	267
Don Manuel Lekuona.....	269
Galdera bat.....	271
Beren jendearekin.....	273
...?.....	275
Arrotzak .....	277
Erantzun zentzuduna .....	279
“Basarri saria” .....	281
Zentsura.....	283
Zenbat aldiz.....	285

**Joxe Mari Aranalderen  
orain arteko liburuak:**

*Egaztien mundua (Margoederdun  
Enziklopedia)*

*Tintin Ameriketari (Itzulpena)*

*Xalbador pertsularia*

*Xalbador (Haurrentzako irakurgaia)*

*Bihotzak dion hura*

*Bertso-kontuak*



1051102  
G-129/13



**J**oxe Mari Aranalde (Gaztelu, 1933) joan deneko berrogeitaka urte hauetan bertso-kontutan badabilela, edozeinek dakien gaiza da.

Asko idatzi du bertsoaz eta bertsolariez eta bi horien inguruneaz. "Bertso-kontuak" hau da horren erakuskarri.

Bapateko bertsoari dagozkion puntu asko ikusiko ditu irakurleak ikuituak liburu honetan: Dela bertsoa bera, nahiz entzuna eta nahiz hura bera irakurria; bertsoaren akatsak eta abantailak; jaialdien antolaketak eta beraietako eskasiak, eta abar.

Eta bertsolari asko ikusiko ditu irakurleak bakoizka neurtuak eta zehazki tratatuak, eta bertsolarien arteko beste zenbait izen ere aurkituko du irakurleak ederki trataturik. Mimos bezala tratatzen dituela ematen du Aranaldek jende horiek denak.

Hitz batean, mila modutako lezioak badituela esango genuke "Bertso-kontuak" liburuak bertsolaritzaren barnerako.

ISBN 84-89080-98-4



9 788489 080980

